

**ATZERRITARRAK ERDI ARO AMAIERAN: PASAIAKO BADIAKO
POPULAZIOEN ADIBIDEA
(XIV. MENDE AMAIERA-XVI. MENDE HASIERA)**

Iago IRIXOA CORTÉS

Historia eta Kultur Ondarean lizentziatua -
Ereiten K.Z.

Laburpena:

Gipuzkoan atzerritarrek izan duten presentziaren inguruan egin diren ikerketa gehienak, aitonsemetza unibertsalaren prozesuaren ildotik burutu dira. Badaude salbuespen batzuk, gaskoien kasua, esate baterako. Alabaina, lan horiez gain, Behe Erdi Aroa eta Aro Berriaren hasiera jorratzen dutenak oso gutxi dira eta oraindik oso gutxi dakigu garai haietan Gipuzkoan finkatu ziren kanpotarren inguruan. Urriak dira gertuko lekutatik zetozenei zein urrunagotik etorri zirenei buruzko azterketak. Ondorengo lerroetan, XIV. mende amaieratik XVI. mende hasiera arte, Pasaia badiaren emandako prozesuaren ildotik, bertan egon ziren kanpotarren presentziaren jardungo gara. Pasaia San Pedro eta Pasaia Donibaneko kasuetan begirada jarriko dugu, baina Errenteria bezalako guneak ahaztu gabe.

Giltz-hitzak: Atzerritarrak. Erdi Aroa. Populazioa. Merkataritza. Gipuzkoa. Pasaia. Errenteria.

Resumen:

Los escasos estudios centrados en la presencia de extranjeros en Gipuzkoa han estado estrechamente vinculados al proceso de hidalguía universal. Existen algunas pocas excepciones, entre las que destaca el caso de los gascones. Aun así, tanto para la Baja Edad Media como para los primeros compases de la Edad Moderna, apenas existen estudios que traten sobre la presencia o asentamiento en Gipuzkoa de gente procedente de otras latitudes, tanto de lugares relativamente cercanos como de otros más lejanos. A través de estas líneas, intentaremos acercarnos a un caso muy significativo en la Provincia: el de la bahía pasaitarra durante el siglo XV e inicios del XVI. Nos centraremos de forma especial en Pasaia San Pedro y Pasaia Donibane, aunque sin olvidar los datos que disponemos para poblaciones cercanas como Errenteria.

Palabras clave: Extranjeros. Edad Media. Poblamiento. Comercio. Gipuzkoa. Pasaia. Errenteria.

Abstract:

The study about the presence of foreigners in Gipuzkoa has been a theme very closed to the development of the universal nobility process. There are some exceptions. The most famous is the case of the gascons, specially in the cases of San Sebastian and Hondarribia. But, unfortunately, except this case, very few studies research about the settlement of these foreigners in Gipuzkoa during the XVth century and the first decades of the XVIth. We don't know very much about people who came from other latitudes, nor from nearer zones, neither from Europe. The next lines will try to analyze the very significant example of the bay of Pasaia. We will study specially the cases of Pasai San Pedro and Pasai Donibane, but bearing other communities like Errenteria in mind.

Keywords: Foreigners. Middle Ages. Population. Trade. Gipuzkoa. Pasaia. Errenteria.

1. XVI. mende hasiera: aitonsemetza unibertsalaren neurri zehatzagoen xedapena¹

1510 urteko abenduaren 24an, Gaztelako erregeen Juana I.ak, Gipuzkoako Probintziaren eskaerak aintzat hartuz, errege-probisio bidez honako erabakia jakinarazi zuen: bere gutuna argitara emango zenetik 6 hilabeteko epean, Gipuzkoan zeuden kristau berriek zein judu nahiz mairu jatorrikoek bertatik alde egin beharko zuten. Halaber, halako jendea ezingo zen ordutik aurrera lurralde horretan auzotartu. Eta hori jakinarazteko, hiribildu nahiz Probintziako justiziek dokumentu hori pregoatu beharko lukete.

Dirudienez, dokumentu hau ematearen arrazoia azken urteetan natura horretako pertsonak Probintzian finkatzen eta auzotartzen ari zirela zen, bai inkisizioaren beldur baita aitonsemetzak eskaintzen zituen pribilegioez gozatzeko asmoz. Prozesu hau guztia Gipuzkoaren gidaritzara politikoa zera-matenen kaltetan zen, hainbat mendez borrokatzen ari ziren aitonsemetza unibertsalaren aldeko garapenean berebiziko eragina izan zezakeen eta. Ordura arte gipuzkoarren kaparetasuna aitortzen zuten dokumentuak baliorik gabe gera zitezkeen. Hala, judu zein mairuen auzotartzea arrisku moduan ikusten zuten, eta baita Probintziaren zein gipuzkoarren ohorearen eta izen onaren kontrako ikurtzat:

“me fue suplicado (...) por la ynfamia que dello rreçiben mandase que ninguna de las dichas personas asi christianas nuevas de moros e judíos como de linaje

1. Laburdurak: AGS. RGS: Archivo General de Simancas. Registro General del Sello / AHPG-GPAH: Gipuzkoako Protokoloen Artxibo Historikoa-Archivo Histórico de Protocolos de Gipuzkoa / ARChV: Archivo de la Real Chancillería de Valladolid / BEHSS: Boletín de Estudios Históricos sobre San Sebastián / BRSBAP: Boletín de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País / CMH: Contaduría Mayor de Hacienda / EINA: Eusko Ikaskuntzen Nazioarteko Aldizkaria / EUA: Errenteriako Udal Artxiboa / GAO-AGG: Gipuzkoako Artxibo Orokorra-Artxibo General de Gipuzkoa / GFA: Gipuzkoako Foru Aldudia / HUA: Hondarribiko Udal Artxiboa / NAO: Nafarroako Artxibo Orokorra / NEA: Nafarroako Elizbarrutiko Artxiboa / OUA: Oiartzungo Udal Artxiboa / PUA: Pasaiaiko Udal Artxiboa.

dellos non se puedan abezindar en ninguna de las dichas çiudades, villas y lugares de la dicha provincia de Guipuzcoa ni en sus términos e si algunos subiesse (sic) abezindados los mandase salir”².

Halako neurriak ez ziren ezezagunak. Probintziak 1463an bertan bizi ziren mairu zein juduei, beraien izaera islatuko zuen ikurra eramatera behartzen zituen. 1480ean, aldiz, erregeek Gaztelako Koroaren eskualde bate-tik bestera joatea posible egiten zuten legea onartu bazuten ere, Probintziak honen aurka egin zuen, edozein kristau-berri edota kapare ez ziren gaztelarren finkapena debekatuz. Halaber, 1482 inguruan adostutako ordenantza baten bidez, Probintziak giza-talde horien auzotartzea ekidin nahi zuen. Hitzartutakoaren arabera, gaztelar orori, kristautu berriak ziren aitzakiapean, Gipuzkoara bizitzera edota ezkontzera etortzea debekatu zitzaion. Neurri hauen guztien bidez Probintziak kapare ez zirenen auzotartzea kontrolatu, mugatu edo debekatu nahi zuen³.

Hamarkadak aurrera igaro ahala kanpotarrentzako baldintzak gogortzen joango dira eta hainbat giza-taldeen aurkako neurriak (juduak, mairuak, kristautu berriak eta agoteak) areagotuko dira. Alabaina, pixkanaka neurriak beste esparru batzuetara hedatuko dira. Aro Berrian sartzen goazen heinean, edozein hiribildutan auzotartu nahi zuten gipuzkoarrek ere oztopoak izango dituzte, oligarkiek aurrera eramane zuten udal-gizartearen kontrol politikoa areagotzearen ildotik⁴.

Probintzia mailan ezarri nahi ziren neurriak, baina, ez ziren hiribildu guztien gustuko. 1518an Zestoak eta Arrasatek zalantzatan jarri zuten 1510eko dokumentua, beraien merkatal jardueri esker hainbat lekutatik zetorren jendearen mugikortasun eta ezarpena mugatuko zuelakoan. Haien uste-

2. HERRERO, V. J.; ACHÓN, J. A.; eta MORA, J. C.: *Archivo Municipal de Mondragón Tomo v. Libro 2. Copia de Privilegios antiguos (1217-1520)*. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1998, 113. dok.

3. ORELLA UNZUÉ, J. L.: “Una encuesta guipuzcoana de 1528. Estatuto de limpieza de sangre o afirmación de la hidalguía universal”. In: AYERBE IRIBAR, M.^a R. (coord.): *Estudios dedicados a la memoria del profesor L. M. Díez de Salazar Fernández, vol. 1: Estudios histórico jurídicos*. Donostia: EHU-UPV, 1993, 363-384 orr.; IDEM: “El control de los judíos, conversos y extranjeros en Guipúzcoa durante el siglo XVI y la afirmación de la Hidalguía Universal”. In: *Sancho el Sabio*, 4 (1994), 105-148 orr.; eta IDEM: *Las raíces de la Hidalguía Guipuzcoana. El control de judíos, conversos y extranjeros en Guipúzcoa durante el siglo XVI*. Donostia: Deustuko Unibertsitatea, 1995.

4. ACHÓN INSAUSTI, J. A.: “A voz de conçejo”. *Linaje y corporación urbana en la constitución de la Provincia de Gipuzkoa: los Bãñez y Mondragón, siglos XIII-XVI*. Donostia: GFA, 1995, 298-299 orr. Egile honek biztanle eta auzotarren arteko ezberdintasunak hiribilduko partaidetza politikoaren ildotik ulertu behar direla azpimarratzen du. Lourdes Soriak antzera dio. Ikus SORIA SESÉ, L. M.^a: “El criterio de honorabilidad en la Guipúzcoa del Antiguo Régimen”. In: *BRSBAP*, XLVII (1991), 109-132 orr.

tan, errege-xedapenak ondorio ekonomiko larriak ekarriko lituzke. Bi guneek argi adierazten zuten Probintzia guztian merkataritzak zuen garrantzia:

“era [Probintzia] de ratos e mercaderías e de prestados e dares e tomares (...) a cuya causa había muchos tratantes en ella y entre ellos se hacían muchos prestados y en cuanto a ello se gozasen la hidalguía se perdería el trato, e perdiendo el trato se despoblaría la tierra”⁵.

Urte batzuk beranduago, 1527an, kapare ez direnen auzotartze kontrol horren inguruko neurriak errepikatuko dira. Oraingoan Zestoan bildutako Batzar Nagusiek adostu eta erregeek hobetsiko duten ordenantza bat izango da hartutako erabakien adierazle. Arau honen bidez, Probintziak kapare ez zirenen auzotartzea debekatuko du; are gehiago, auzotar maila eskuratu nahiko zuten atzerritarrek aitonseme zirela frogatzea nahitaezkoa zuten. Orduko arauak, baina, auzotarren odolgarbitasuna demostratzeko ekimena alkateen esku utzi zuen. Justizia ofizial hauek izango ziren beraien jurisdikziopean zeuden biztanleen aitonsemetza kontrolatzeko ardura izango zutenak. Beraien ekimenez abiarazitako prozesuak lirateke, hau da, udalbatzaren dirua izango litzateke probantzari hasiera emango liokeena. Gastuen handitzea ekarriko luke honek eta pentsa dezakegunez, udalbatzak ez zeuden hori egiteko prest. Zer esanik ez Probintziatik kanpokoak ziren atzerritarren kasuan, non frogaketak gastu gehiago zekartzan, eta 1527ko ordenantza hazkunde ekonomiko baten testuinguruan txertutako neurria izaki, hiribilduko aberastasuna bermatzen zuten pertsonak zirenean.

Dena den, ordenantza berri honen ildotik, 1528ko maiatzean Azpeitin ospatu ziren Batzar Nagusiek txosten bat egitea adostu zuten, Probintzian kapare ez zirenak eta mairuen eta judutarren ondorengo zein ziren jakiteko asmoarekin. Hiribildu guztiak, baina, ez zeuden ados. Arrasatek eta Donostiak lan horiek burutzeko ikuskatzaileen izendapena egitea ez zuten onartu⁶. Azken hiribildu honen kasua oso esanguratsua da, kostaldeko eta Probintziako hiribildurik nagusiena baitzen eta, ondorioz, ohikoa zen kanpotarrak bertan izatea. Horregatik, nahiko adierazgarria da bere biztanle eta auzotarren artean egin zen galdeketaren emaitzaren ondorioa: beraien artean ia atzerritar edota pertsona zalantzagarririk ez zegoela, alegia. Esanguratsua, benetan.

Dena den, pixkanaka arauak gogortzen joango dira. 1510 eta 1526 urte bitartean, hiribilduetan kristautu berri, judu eta mairuen sarrera debekatzen duten aginduak argitaratuko badira, Probintziak 1527, 1557, 1558, 1564 urteetan xedapen ezberdinak eman zituen⁷. Hondarribin ospatutako 1566ko

5. ORELLA UNZUÉ, J. L.: *Las raíces de la Hidalguía Guipuzcoana...*, aip. lan., 8 orr.

6. Ibidem, 11 orr. eta IDEM: “El control de los judíos...”, aip. lan., 114 orr.

7. Arrasateko kasurako, ACHÓN INSAUSTI, J. A., aip. lan., 296-299 orr. Probintziako xedapenen inguruan, ikus DÍEZ DE SALAZAR FERNÁNDEZ, L. M.; eta AYERBE

Batzar Nagusiek, hiribildu eta populazio gune ezberdinetan arrotzak ziren eta kaparetasuna frotagua ez zuten pertsonen inguruko informazioa egin zedila agindu zuen, 1527ko ordenantza eguneratuz. Dakigula, halako ekimenak Arrasaten eta Donostian bete ziren⁸.

Esan bezala, atzerritar edota kapare ez zirenen gain kontrola areagotzeko lehenengo saiakera sakona 1527-1528 urteetako dugu, Probintziak Pedro Gebarakoari, bere semeei eta Maria Sarastikoa bere ilobari Gipuzkoa uzteko agintzen zienean⁹. Hau aurrera atera nahian, Gipuzkoako herri eta hiribilduek zuten egoerari buruzko txosten bat egin zen.

Hurrengo hamarkadetan norainoko eragina izan zuen zehatz-mehatz ez dakigu. Hasiera batean, Gebararen kanporatzeak nolabaiteko xalotasuna ekarri zuela dirudi¹⁰. Horren adierazle, ondorengo urteetan gaia Batzar Nagusietan gutxitan azaleratu zela da. Jorratu zen bakoitzean, gainera, nahiko joera irekiarekin egin zen: eztabaida 1531n eta 1536ko maiatzean ikus dezakegu, baina garrantzia handiegirik gabe. XVI. mendeko lehen erdialdean, beraz, egoera nahiko lasaia izan zen, hiribildu batzuetan neurriak aplikatu

...

IRIBAR, M.^a R.: *Juntas y Diputaciones de Gipuzkoa, 1. (1554-1557. Documentos)*. Donostia: GBBNN-GFA, 1990, 519-521 orr.; DÍEZ DE SALAZAR FERNÁNDEZ, L. M.; eta AYERBE IRIBAR, M.^a R.: *Juntas y Diputaciones de Gipuzkoa, 2. (1558-1564. Documentos)*. Donostia: GBBNN-GFA, 1990, 61 orr.; eta DÍEZ DE SALAZAR FERNÁNDEZ, L. M.; eta AYERBE IRIBAR, M.^a R.: *Juntas y Diputaciones de Gipuzkoa, 3. (1565-1568. Documentos)*. Donostia: GBBNN-GFA, 1990, 326-329 orr. Egile batzuek 1510eko eta baita 1527ko dokumentuak Gaztelako Koroaren testuinguruan sortutako testuak direla azpimarratzen dute. Ikus ACHÓN INSAUSTI, J. A., aip. lan., 298 orr.

8. ACHÓN INSAUSTI, J. A., aip. lan., 299 orr. eta GARCÍA DE VICUÑA OLAIZOLA, I.: "Estudio sobre el padrón de San Sebastián de 1566". In: *BEHSS*, 38 (2004), 77-148 orr. Ald. DÍEZ DE SALAZAR FERNÁNDEZ, L. M.; eta AYERBE IRIBAR, M. R.: *Juntas y Diputaciones de Gipuzkoa, 3. (1565-1568. Documentos)*, aip. lan., 354 orr. Pasaiari dagokionez, Bizente Etxabek, aitonemetza frogatua ez zuten atzerritarrei udal karguak betetzen uzten zitzaieela salatzen zuen 1568ko maiatzean ospatu ziren Batzar Nagusietan. Ikus DÍEZ DE SALAZAR FERNÁNDEZ, L. M.; eta AYERBE IRIBAR, M. R.: *Juntas y Diputaciones de Gipuzkoa, 3. (1565-1568. Documentos)*, aip. lan., 479 orr.

9. Honetarako, ikus 2 oharrean aipatutako lanak. Valladolideko Errege Txantzillarian ere, horren inguruko auzia gordetzen da (ikus ARChV. Pleitos Civiles. Moreno, Fenecidos, 1262-6).

10. Inkestaren arabera, Pedro Gebarakoa Donibanen bizi zen. Aita mosen Juan Gebarakoa zuen, eta bere aiton-amonak juduak omen ziren. Pedrok Donibanen etxea eta emaztea utzi zituen 1528 inguruan, berak Bera edo Lesakara alde egin zuenean. Horrez gain, inkestak Pasaiari iloba bat zuela aipatzen du, bere arrebaren alaba. Ustez, Pedro kanporatua izan zen, baina Gebara abizenak Donibanen jarraipena izango du. 1559an Maria Gebarakoa ageri zaigu, Migel Lizartzakoaren alarguna. Migel, gainera, Mariaren aita Pedro Gebarakoaren ontzi-maisu zen eta 1556an hil zen Veracruz. Maria, Maria Beltran Gabiriakoaren alaba zen eta Markesa izeneko ahizpa zuen (Pedro eta Maria Beltranen alaba), 1544an jaioa (GPAH-AHPG, 3/325, 62 au. fol. eta hh.). Hortaz, Pedro kanporatua izatetik gutxira bueltatu zela dirudi.

zirela badirudi ere¹¹. Eraldaketa ondorengo urteetan etorriko da, bereziki 1557tik aurrera. Orduz gero, jazarpen eta aitonsetmetza eta atzerritarren inguruko eztabaidek indar handiagoa eskuratuko dute. Urte hartako Hondarribiko Batzar Nagusiek neurri berriak ezarri zituzten: Probintziako edozein lekutan auzotartu nahi zuen edozein atzerritar onartua izateko, pertsona horrek ezarri nahi zen herri edo hiribilduetako alkateen aurrean bere odol-garbitasunari buruzko frogaketa egin beharko zuen.

Baina XVI. mende hasieran oraindik ere garapen ekonomiko baten aurrean eta hazkunde fase batean gaude, eta Probintziarako merkataritzak zuen garrantzia kontutan hartuz, ez da harrizkoa 1528ko inkestaren ondorioak oso larriak izan ez zirela jakitea. Beste hiribilduetan egoera zein izan zen ez dakigu, baina Errenteriako kasua oso eredugarria da. Inkestan azaltzen diren guztiek bertan jarraituko dute, baita arbaso judutarrak zituztenak ere. Batzuk, gainera, hiribilduko bizitza politikoan erabat txertaturik ageriko zaizkigu, Probintziako batzarreetan Errenteriako ordezkari bezala arituz¹².

Jakina da Gipuzkoako bihi edo ale eskasiaren aurrean, bertako biztanleek bi jarduera nagusi izan zituztela: burdin ekoizpena (bai landuta nahiz landugabekoa) eta merkataritza. Lehengoa bigarrenari estuki lotuta egongo da, burdina bihurtuko baita kostaldeko euskal probintzietako esportazio produkturik nabarmenena edo, hobe esanda, kanpora bideratzeko lurraldeak berezko zuen gairik nagusiena. Esportazio honek hainbat helmuga zituen eta guztiak ez ziren penintsularrak. Azken ikerkuntzek aditzera ematen dutenaren arabera, Pasaiako badiako populazio guneez eta, orokorrean Gipuzkoako ekialdeak, Bristol zuten jomuga lehenetsi eta burdin merkatu nagusienetako bat. Deba bailarak, berriz, Portugalekin izango du harreman nabarmena XV. mendearen erdialdetik¹³.

11. Lourdes Soriaren ustetan, 1527-1536 artean ordenantza ez zen zehaztasunez bete. Hurrengo 20 urteetan, aldiz, bere erabilerak hedapen nabarmena izan zuen, 1557an araua xehetasunez garatu baitzen. Alabaina, beranduago egile berak dio Probintziaren arauak nahiko betetze partziala izan zutela udalbatzen aldetik. Horregatik, 1536-1557ko epean erabilera baino, erabilera eza eman zela uste dugu. Honen aurrean Probintziak legedia xehetasunez garatu beharrean aurkitu zen, geroz eta murrizketa gehiago ezarri. Ald. SORIA SESÉ, L., aip. lan., 117 eta 121 orr. José Ramón Díaz de Duranak ere, XVI. mende hasieran neurriak erregulartasunez bete zirela dio. Ikus DÍAZ DE DURANA, J. R.: *La otra nobleza. Escuderos e hidalgos sin nombre y sin historia: hidalgos e hidalguía universal en el País Vasco al final de la Edad Media (1250-1525)*. Bilbo: EHU-UP, 2004, bereziki 103 orr. eta hh.

12. Ikus IRIJOA CORTÉS, I.; eta MARTÍN SÁNCHEZ, D.: *Errenteria a inicios de la Edad Moderna (1495-1544)* (prentsan) eta IDEM: *Errenteria XVI. mende hasieran: merkataritza eta gizartea* (prentsan).

13. Ondorengo lerroetan sartuko ez bagara ere, merezi du azpimarratzea José Ángel Achónek bere garaian Gipuzkoako Probintzia osatzen zuten eskualdeek berezko merkatu propioak zituztelaren ideia inguruan egin zuen oharra. Ald. ACHÓN INSAUSTI, J. A., aip. lan.; AZPIAZU ELORZA, J. A.: *Sociedad y vida social vasca en el siglo XVI. Mercaderes*

2. Atzerritarrak Gipuzkoako Erdi Aroan: ekarpen gutxiko gaia

Testuinguru hau aintzat hartuz, ondorengo lerroen helburua atzerritarren ordura arteko presentzia norainokoa izan zen jakitea da. Gipuzkoako kasuan prozesu hauek hainbat analisi jaso dituzte, baina oraindik aztertu gabeko esparruak daude. Gure artean beste leku batzuetako pertsonen presentzia urria dirudielaren aurreiritziaren ondorioz, XVI. mendea baino lehenago bizitako prozesuak gutxitan izan dira aztergai. Lerro hauetan, beraz, 1527ko ordenantza aurretiko hamarkadetan bizi zen egoera hizpide izango dugu eta gure artean egon ziren atzerritarren inguruko datuak jasoko ditugu.

Lehenago *atzerritar* kontzeptuari buruzko ohar bat egin nahi dugu. Jakina da garai horretan hitz horren azpian hainbat lekutako pertsonen aipamena egiten zitzaiela; zehazki, erreinu edo entitate politiko ezberdinetan bizi zirenei. Gipuzkoa Gaztelako Koroaren zati zen, baina monarkia honetan sartuak zeuden beste erreinuetako auzotarrak atzerritarrak ziren, hau da, gali-ziarrak, asturiarrak, gaztelarrak, besteak beste. Era berean, nafarrek maila hori zuten, eta baita Iparraldekoek ere¹⁴. Azken bi hauekin mendeetan zehar garatutako harreman sakonek beste ikerketa bat mereziko lukete eta gertuko biztanleak direnez, alde batera utziko ditugu. Hortaz, lerro hauetan ez dugu Euskal Herriko edo Gipuzkoako beste leku batzuetatik badiara iritsitako en adibidea jorratuko. Oraingoan haratago dauden eremuetan eta Europatik etorritako pertsonetan jarriko dugu begirada. Arrazoiak bi dira. Batetik, San Pedron XV. mende erdialdean ikusten ditugun biztanleek inmigratio prozesu oso esanguratsu eta ez-ohikoa islatzen dutelako, Kantaurialdetik etorritakoa, hain zuzen ere. Bestetik, 1528ko inkesta eta beste hainbat dokumentu aintzat hartuta, urte horietan zehar zenbait kanpotar ikusteko aukera izango dugulako, Gaztelatik, Ingalaterratik, Frantziatik, Flandriatik edo Italiatik datozenak. Horrek Pasaiaiko badia Europako itsas bideetan zuen papera agerian uzten du, ainguraleku moduan aritu bazen ere; hau da, azpiegitura garatu eta nabarmenik gabeko esparru xume bat bezala¹⁵.

Atzerritarren inguruko ikerketak gipuzkoarren aitonsemetza edo kaparetasun unibertsalaren eraketaren inguruan egin dira. Prozesu honek Aro

...

gipuzcoanos. Donostia: Aurrezki Kutxa Probintziala, 1991 (bi tomo); IRIXOA CORTÉS, I.: *Pasaia: hastapenak (XIV-XVI. mendeak)*. Pasaia: Pasaia Udala, 2009; eta IRIJOA CORTÉS, I.: “Fuentes inéditas para el estudio de mercaderes guipuzcoanos a fines de la Edad Media: el libro de registros del mercader Juan Ibáñez de Hernani (1495-1503)” (prentsan).

14. Ikus ARAGÓN RUANO, A.: “«Con casa, familia y domicilio». Mercaderes extranjeros en Guipúzcoa durante la Edad Moderna”. In: *Studia Historica. Studia Moderna*, 31, (2009), 158 orr. eta hh. (155-200). Atzerritar izatearen esan nahi juridikorako, ikus ROSSETTI, G. (zuz.): *Dentro de la città. Stranieri e realtà urbane nell'Europa dei secoli XII-XVI. Seconda edizione riveduta e ampliata*. Napoli: Liguori Editore, 1999.

15. Ald. GOIENETXE PATRÓN, R.: *Pasaia atlantikoa* (prentsan).

Berrian bere pausorik nabarmenenak edo adierazgarrienak eman zituzenez, ia lan guztiek garai horretan jarri dute begirada. Hala, portugaldarrekin XVII. mende hasieran bizitako arazoak eta, bereziki, mairu zein judutar jatorria omen zuten pertsonen inguruan hartutako neurriek arreta berezia izan dute¹⁶.

XV. mende erdialdean areagotu zen hazkunde ekonomikoaren baitan, eta Gipuzkoa bezalako lurralde batean merkataritzak izan zuen pisua kontutan hartuta, oso gutxitan jarri izan da begirada garai haietan gure artean ezarri eta finkatu ziren atzerritarrengan; aitzitik, badirudi kanpotik etorritako jendea egon bazitekeen ere, hau oso urria zela¹⁷. Erdi Aroko kasua ikertzerako garaian gaskoiak izan dira salbuespena, Donostia eta bere inguruetan (Hondarribia, Altza edo Pasaiaiko badian) utzi dituzten aztarna toponimiko ugari ondorior¹⁸. Egoera hau harrigarria dirudi, Behe Ertaroko lehenengo mendeetatik euskaldunak Europan zehar kusteko aukera izango dugulako.

16. MORA AFÁN, J. C.; eta ZAPIRAIN KARRIKA, D.: “Exclusión social en los siglos XVI y XVII”. In: *Vasconia. Cuadernos de Historia-Geografía*, 24 (1996), 157-192 orr. Hauen inguruko laburpen baterako, ikus GARCÍA FERNÁNDEZ, E.: *Gobernar la ciudad en la Edad Media: Oligarquías y elites urbanas en el País Vasco*. Vitoria-Gasteiz: Arabako Foru Aldundia, 2004, 155 orr. eta hh., zeinak Tolosari buruzko informazio adierazgarria ere jasotzen duen.

17. Alvaro Aragonek, adibidez, egoera “benetako basamortutzat” du. Ikus ARAGÓN RUANO, A., aip. lan., 156 eta 158-161 orr. Bertan topatu ahal izango dira hainbat lan eta artikulua, baina horiez gain beste bi dokumenturi aipamena egin behar diegu: 161 lan Hondarribiako udalbatzak egindako frantsesen errolda (ROLDÁN GUAL, J. M.^a: “Inmigrantes franceses en Fuenterrabía: un ‘censo’ de 1611”. In: *Lurralde*, 10 (1987), 129-144 orr.) eta Pasaí Donibaneko 1791ko frantsesen errolda (GPAH-AHPG, 3/3462, 41 au.-45 at.). Behe Erdi Arorako salbuespena, bereziki XV. menderako, honako artikulua da: SOLÓRZANO TELECHEA, J. A.; eta ARÍZAGA BOLUMBURU, B.: “Protéger et contrôler la présence et les activités des étrangers dans les villes portuaires du nord de la Couronne de Castille au Moyen Âge”. In: *Annales de Bretagne et des pays de l’Ouest*, 117 (2010), 209-222 orr., non Bizkaia eta Gipuzkoari buruzko hainbat datu jasotzen dituzten.

18. Besteak beste, LACOMBE, G.: “Un document sur les gascons de Pasajes”. In: *EINA*, 10 (1919), 49-52 orr.; MÚGICA, S.: “Los gasones en Guipúzcoa”. In: *Homenaje a D. Carmelo de Echegaray (miscelánea de estudios referentes al País Vasco)*. Donostia: GFA, 1928, 2-29 orr.; CIERBIDE, R.: “A propósito de un texto gascón de San Sebastián de 1304”. In: *EINA*, 31 (1986), 861-876; LOIDI BIZKARRONDO, J. A.: “Gaskoi-toponimia Irunen”. In: *Plazara*, 2 (1985) 13 orr.; BARANDIARAN, J. P.: “Gaskoiak Lezon eta Oiarsoko bailaran”. In: *Lezo*, 6 (1991), 7-14 orr.; BANÚS Y AGUIRRE, J. L.: “Gascones en el costalde de Guipúzcoa”. In: *BEHSS*, 25 (1991) 561-584 orr.; LANDA IJURKO, I.; eta ETXEBESTE GONZALEZ, J. C.: “Altzako Erdi Aroa izenez izen”. In: *Altza, hautsa kenduz*, II (1994), 69-84 orr.; LANDA IJURKO, I.; eta ETXEBESTE GONZALEZ, J. C.: “Altza XIV. eta XV. mendeetan”. In: *Altza, hautsa kenduz*, III (1996), 51-72 orr.; TENA GARCÍA, M.^a S.: *La sociedad urbana en la Guipúzcoa costera medieval: San Sebastián, Rentería Fuenterrabía (1200-1500)*. San Sebastián: Dr. Camino, 1995; ATELA GURRUTXAGA, N.; ISASI SALABERRIA, A.; VICENTE BELTRÁN, I.: *Pasaiaiko euskararen historia soziala*. Pasaia: Pasaiaiko Udala, 2000; ORELLA UNZUÉ, J. L.: “La gasconización medieval occidental del reino de Navarra”. In: *Lurralde*, 33 (2010), 177-208 orr.; CIERBIDE, R.: “Occitano languedociano y gascón en la Navarra Meridional, País Vasco Norte y Guipúzcoa”. In: *Pirinioetako hizkuntak: oraina eta lehena. Euskaltzaindiaren XVI. Biltzarra*. Bilbo: Euskaltzaindia, 2011, 761-772 orr.

XV. mendearen erdialdean ekonomiak eta itsas-garraioak izan zuen bultzadak biztanleen mugikortasuna areagotu egingo du, baita euskaldunena ere. Eta hau jazo bazen, testuinguru horretan atzerriko jendea Euskal Herrian ere izan edo finkatu zela logikoa dirudi.

Kanpotarren presentzia honek berebiziko interesa du Probitziaren garapen politikoan, oinarrian –Gaztelako Koroaren eta Monarkia Katolikoaren beste hainbat lekutan gertatu bezala– antolakuntza politikoak eta gizarte egituraketaren inguruan onartutako eta hitzartutako xedapen eta neurriek kanpotarren, edo hobe esanda, kapare ez zirenen presentzia mugatu edo debekatuko baitute. Alabaina, ikerlari ezberdinen aburuz, XVI. mendeko lehen erdialdean oraindik ere nahiko irekia den gizarte baten aurrean gaude. Hau dela eta, historian zehan eman diren odolgarbitasuna mantentzearen zein pertsona arrotzen auzotartzeak ekiditearen inguruko neurriak Bostehunaren lehen hamarkadetan indar handirik izan ez zutela ohartu dute.

Halako analisiak bideratzeko zailtasunak agerikoak dira. Batetik, geografia nahiz familia esparruetako ezegonkortasun, mugikortasun edo garaiko gizarte-praktikek (dokumentazio eskasiarekin batera), beraien lorratza jarraitzea zaildu egiten dute¹⁹. Bestetik, pertsona horien jarduera nagusiak itsasoarekin edo merkataritzarekin lotuta izaki, gehienak gure artean iragaitzaz daude; halaber, behin-betiko finkatzen diren kasu adierazgarri batzuetan, beraien lorratza 2-3 belaunalditan galdu daiteke abizen aldaketagatik. Adibiderik nabarmenena Thomas Barcot bristoldarraren ondorengotzan dugu, bere biloba batzuek oraindik abizen hori mantenduko badute ere, gehienek amaren aldetik hartutako Isasti abizenari lehentasuna emango diotelako²⁰.

Ondorengo lerroetan hori guztia aintzat hartuz, XIV. mende amaieratik eta XVI. mende hasiera arte Pasaiako badian eta, bereziki, bere bokalean kokatutako bi populazio guneetan egon ziren atzerritarrengan begirada jarriko dugu. Nortzuk ziren, nondik zetozen eta beraien nondik norakoen berri emango dugu, dokumentazioak aukera ematen digun heinean, jakina. Pasai Donibane eta Pasai San Pedroren adibideak hartuko baditugu, dokumentazioak oso datu esanguratsuak ematen dizkigutelako da. Izan ere, atzerritarren azterketak izenak eta, bereziki, abizenak oinarri bezala hartzen baditu, Pasaia aldean oso bereziak eta esanguratsuak direnak topatuko ditugu²¹.

19. ARAGÓN RUANO, A., aip. lan., 159 orr.

20. EE.BB.: *Hondarribiko baserriak*. Hondarribia: Hondarribiko Udala, 2003 eta bereziki, IRIJOA CORTÉS, I.; eta MARTÍN SÁNCHEZ, D.: *Erreterria a inicios...*, aip. lan. eta IRIJOA CORTÉS, I.; eta MARTÍN SÁNCHEZ, D.: *Erreterria XVI. mende hasieran...*, aip. lan.

21. Gauzak honela, ondorengo lerroetan abizen toponimikoetan begirada jarriko badugu ere, ezin ahaztu bertako biztanleen artean dauden izen esanguratsuak Benedicto, Bertelot, Jorge, Rafael edo Robert bezalakoak. Ikus artikulu honen amaieran jarri dugun 1.go eranskina.

Esan bezala, Pasaiaiko badiaren kasuak lehen mailako adibidea osatzen du; are gehiago, iturri bikain baten aurrean gaude. Oso abizen esanguratsuak ditugu, inguruetan (Donostia, Hondarribia, Errenteria edo Oiartzunen) eta gure garaian oso gutxitan ageri direnak edo erreplikatzan ez direnak; halaber, abizen horiek duten atzerritar kutsua hainbat iturriek emandako zeharkako datuekin bat datoz. Hori dela eta, garaiko biztanleek esandakoek eta Kantabria, Asturias edo Galiziari erreferentzia egiten dioten hainbat eta hainbat abizenek, benetan jazo zen migrazio prozesu baten aurrean gaudela adierazten digute. Gainera, lekukotza ezberdinen arabera, Donostiak San Pedro inguruak populatzeko ekimenak 1397. urtetik aurrera bultzada nabarmena jaso zuen, badiaren inguruan emandako epai nabarmen batzuekin bat datorrena.

Laurehunaren erdialdean Europa mailan eman ziren garapen eta dinamika ekonomikoek oso argi uzten dute pasaitarrak eta badiako beste hainbat biztanle (errenteriarrek, kasu) kontinentean zehar barreiatu zirela garraiolari, itsasgizon eta marinela moduan. Baina horrez gain, Europako hainbat lekutatik gurera ere etorri ziren. Ondorioz, Donostiak bultzatutako ekimenaz gain, XV. mende amaieran eta Bostehunaren hasieran kanpotik iritsitako jendea ikusteko aukera izango dugu.

Ikertuko dugun garaian, atzerritarren etorrera hau bi prozesu ezberdinek eragingo dute. Lehenengo prozesua Donostiak abiatutako ekimen berezi batek sortuko du, eta bertan ez dira hainbat alditan merkataritza edo artisautzari lotuta aztertu diren inmigratio prozesuen nondik-norakoak ikusiko. XV. mendearen lehen hamarkadetan San Pedron ikusten dugun mugimendua, propio bultzatu nahi den eta kalkulatu dagoen plangintza bati erantzuten dio. Bertaratzen diren pertsonak merkataria handiak baino, maila xumeagoa dutenak dira. Donostiak hainbat geografia esparrurekin garatutako harremanen isla dira, bai, baina beraien agerpena ez dugu itsas-merkataritza garapen baten baitan ulertu behar.

Bigarrenak, berriz, bestelako dinamika bat islatzen du. XV. mende hamaieran eta XVI. mendean zehar ikusten ditugun populazio mugimenduek ez dute harreman zuzenik ia mende bat lehenago jazotakoarekin. 1485-1530 urte bitartean agertzen zaizkigun atzerritarrek, prozesu natural-ekonomiko bat jarraitzen dute, Pasaiaiko badiak itsas-merkataritzan zuen paperaren ondorio zena. Aurreko fasean ikusten ditugun geografia esparruak agertzen badira ere, hein txikiago batean egiten dute. Orain beste batzuk izango ditugu protagonistak. Horietako asko Europako beste lekuetatik datoz eta hainbatetan aipatu diren merkataritza jardueri erantzuten diete, baita alturako arrantzaren eraginez garatutako loturei ere.

Baina bi prozesuak ezberdinak izanda ere, Erdi Aroko dinamikaren eredu dira. Bigarren garaia, XV. mendean eta XVI. mendearen lehen erdialdean

mantendutako testuinguru positiboaren ondorio da eta 1500etik aurrerako lehen hamarkadek Erdi Aroko bideen jarraipena erakusten digute. Pasaiaren kasuan, XV. mende erdialdetik areagotuko den joera islatuko du, bereziki Ingalaterrarekin izan zen harremana, Errege Katolikoen garaitik estuagoa izan zena²².

Honek ez du esan nahi antzeko prozesuak gerora ikusiko ez ditugunik. Hamarkadak igaro ahala abizen berriak ezagutzeko aukera izango da; are gehiago, gure ikerkuntza XVI. mendearen lehen herenean amaitzen bada ere, ondorengo mendeetan atzerritarrak gurean ikusten jarraituko dugu²³.

Ikertzaile ezberdinek diotenez, XV. mendean eman zen hiri-garapenak eta oparotasun ekonomikoak populazio gune ezberdinetako biztanleen mugikortasuna areagotu zuen, esku-lan merkatuan dinamismo handiagoa sortuz²⁴. Kantauri itsasertzari dagokionez, XV. mende amaieran izango ditugu atzerritar hauen agerpenari buruzko datu gehien. Batetik, dokumentazio gehiago dugulako. Bestetik, portu ingeles eta kantauriarren arteko lotura geroz eta estuagoa izan zelako²⁵.

Pasaiako kasuan egoera honek nahiko baldintza bereziak ditu. Izan ere, gure ikerkuntzaren oinarri diren bi populazio guneak mende luzeetan zehar bi hiribilduren menpe egon ziren ekonomia eta politika arloetan. Hau dela eta, logikoena atzerritar horiek beste leku batzuetan kokatzea zen: Pasai San Pedro eta Pasai Donibaneren buru ziren Donostia eta Hondarribian edota, badiak zuen erakargarritasunaren ondorioz, bertako hiribilduan, Erreterian alegia. Hau dela eta, gurean emandako populazio mugimenduek nolabaiteko ezaugarri bereziak izan zituztela pentsatu behar dugu. San Pedoren XIV. mende amaiera-XV. mende hasierako kasuan, hala izan zen.

Azken populazio mugimendu honek 1460tik aurrera jarraipena izan ez zuela aipatzea garrantzitsua da, baina hala ere, argi dago ondorengo hamarkadetan hainbat lekutako pertsonak Pasaia eta inguruak helmuga-puntua izan zituztela. Mugimendu hau itsasoari loturako jardueri edota merkatal dina-

22. TENA GARCÍA, M.^a S., aip. lan., eta CAUNEDO DEL POTRO, B.: *La actividad de los mercaderes ingleses en Castilla (1475-1492)*. Madril: Universidad Autónoma de Madrid, 1984.

23. Ikertzen dugun garaian ikusten ez ditugun Laredo, Griego, Gibraltar, Callabar, Zaragoza, Murcia eta Finisterras, kasu. IRIXOA CORTÉS, I.: *Pasaia: hastapenak...*, aip. lan., 27, 31 eta 38-40 orr. Juan eta Martin Catalanek 1577an ospatutako batzarrean agertuko dira (GAO-AGG, CO ECI 353). Murciari dagokionez, Juan izeneko batek 1560ko bileran parte hartuko du (PUA, 1626-4, 7a.-8a.).

24. NAVARRO ESPINACH, G.; IGUAL LUIS, D.; eta APARICI MARTÍN, J.: “Los inmigrantes y sus formas de inserción social en el sistema urbano del reino de Valencia (siglos XIV-XVI)”. In: *Revista d’Història Medieval*, 10 (1999), 164 orr. (161-199).

25. SOLÓRZANO TELECHEA, J. A.; eta ARÍZAGA BOLUMBURU, B., aip. lan., 2 orr.

mika baten ondorio denez, atzerritar horietako asko denbora jakin baterako geratuko dira gurean. Marinelei dagokienez, ontziek atsedeen-leku hartzeko edota hauek hornitu eta konpontzeko. Merkatariaik eta hauen ordezkari edo faktoreak, aldiz, denbora gehiagorako gelditu zitezkeen; negozioak burutu artean, hain zuzen ere. Hau guztiagatik, eta egiari zor, XV. mende amaieran eta XVI. mende hasieran ikus dezakegun prozesuak ez du kanpoko pertsona ugariren finkapena ekarriko; ez behintzat beraien ohiturak, hizkuntza edo beste bereizitasunak mantenduko dituen komunitate itxi bat osatzera arte. Bestalde, hori bideratuko luketen baldintzek badiako bokalean kokatu ziren komunitateetan zailtasunak topatzen zituzten, geofisikoak bereziki. Horrez gain, San Pedroko kasuan nekazaritza edo abeltzaintzara bideratutako lurrek XIV. mende amaierarako okupazio prozesua ezagutu zutela dirudi, bizilekua murriztuz.

Aipatu dugunez, Pasaiako bokalean kokatutako komunitateen kasuan ez gaude beste ikerkuntzek azpimarratu dituzten elite internazionalen aurrean; aitzitik, maila apalagoko atzerritarren inguruan hitz egin beharko dugu. Hauek izango dira benetako bidea irekiko dutenak eta gure artean protagonista izango direnak²⁶. Gehienak marinela edo itsasgizonak, askotan gazte direnak, morroi edo laguntzaile bezala kontratatuak. Horrek ez du esan nahi San Pedro edo Donibanen garrantzia nabarmena eskuratuko ez dutenik; hor ditugu Cotillos edo Villaviciosa. Baina jakitun izan behar dugu ez direla Donostia eta Hondarribiko elite eta oligarkiaren kide nabarmenen mailara iritsiko, ez behintzat beraien bizilekua bokaleko komunitateak izango diren bitartean²⁷.

Beraien etorrera Pasaiako badia XIII. mendetik eskuratzen ari zen garrantziaren isla izango da eta Gipuzkoako merkataritza esparruen ondorioa. Portu garrantzitsua izaki, herrialde ezberdinetako herritarrak gurean

26. “Pero estas élites [atzerritarrak] no son el motor de la historia. El variado panorama de forasteros que en el siglo XV están presentes en las ciudades europeas tiene funciones diversas y capacidades de incidencia, en clave de cambio social, bastante diversificadas. Si bien es cierto que los grandes mercaderes, los personajes de primer plano en el mundo de las finanzas y de la política, han dejado una huella sustancial en la historia internacional de los espacios urbanos, de manera central en el siglo XV, sin embargo, la contribución esencial de los forasteros viene marcada no sólo por determinadas acciones u operaciones individuales de prestigio, sino más bien por las lentas incidencias, modificaciones y transformaciones aportadas por millares de personas, pequeños y anónimos agentes constructores del sistema europeo de relaciones que preparan poco a poco el terreno y favorecen la acción consumada de las élites”. NAVARRO ESPINACH, G.; IGUAL LUIS, D.; eta APARICI MARTÍN, J., aip. lan, 164-165 orr. Ikus ibidem, 185 orr. eta hh. “Bizkaitarren” kasurako, ibidem, 193-194 orr.

27. Ildo honetatik, San Pedro, Donibane edo Lezotik hiribilduetara (Donostia, Hondarribia eta Errenerriara, bereziki) salto egin zutenen azterketa oso interesgarria delakoan gaude: bai bertan nola txertatu ziren jakiteko, baita jatorrizko herriekin loturak hautsi edo mantendu zituzten jakiteko ere.

izango ditugu denboraldi txiki batzuetan, ontzia konpontzeko, ekaitzen aurrean babesa jartzeko eta, jakina, baita merkatalgaiak lurreratzekeo edo kargatzeko. Baina ohartu behar dugu horrek ez duela zertan beraien finkapena gurean ekarri behar, batzuetan hala izango bada ere.

Orokorrean, atzerritar horien bizitzan sakontzeko edo analisi prosopografiko bat aurrera eramateko dugun informazioa urria da. Dena den, ondorengo lerroek azterketa toponimiko-onomastiko baten hurbiltze txiki bat eta etorkizunean esparru honetan sakontzeko aukera emango dutela uste dugu. Horregatik, iturrien inguruan aipamen txiki batzuk egitea beharrezkoa deritzogu.

Aurreko mendeetako populazio gune ezberdinen populazioaren azterketan, pixkanaka inmigrazioaren inguruko analisisan ikerkuntza ezberdinek sakontzen dihardute, bereziki Aro Berrirako; hauen bidez, hiribilduen edo populazio gune garrantzitsuenetan izan ziren hainbat lekutako pertsonen nondik norakoak ikusi daitezke²⁸. Baina beste leku batzuekin alderatuta, Erdi Arorako azterketak oso urriak dira. Hor dugu Valentziako erreinuaren kasua, non XIV. mende hasieratik aurrerako auzotartze liburuak gordetzen diren²⁹.

Askotan, prozesu hauetan landa edo herri eremuetatik hiri eta hiribilduetara doazen pertsonetan jarri izan da begirada³⁰; gutxiagotan, ordea, helburua atzerritarrak izan dira. Alegia, Gaztela eta Aragoiko Koroek osatzen zituzten hainbat erreinuetatik etorritako jendea eta Frantzia, Ingalaterra edo Italiatik zetorrena. Beste leku batean aipatzen genuen Gipuzkoa mailan halako prozesuak ikertzeko dokumentazio zuzenik ez dugula: batetik, halako datuak eman ditzaketen dokumentuak, hala nola udal-aktak, kontserbatzen ez ditugulako. Bestetik, mugikortasun prozesu horiek ikertzeko beste hainbat lekutan sortu zen dokumentazioaren inguruan, auzotartze liburuen inguruan alegia, berririk ez dugulako. Ikertuko dugun garaian salbuespen bakarra dugu: Erreneriako 1529ko udal akta bat, non Martín Corcam/Brotanen auzotartze kontratua gordetzen den³¹.

1528ko espedientea da horren inguruan informazio gehien eman diezagukeena, tentuz jorratu behar bada ere. Erreneriaren kasuan, behintzat, aipa-

28. Azkeneko azterketa ARAGÓN RUANO, A., aip. lan.

29. Hauen erabilerari buruzko ohar eta arazoetarako, ikus NAVARRO ESPINACH, G.; IGUAL LUIS, D.; eta APARICI MARTÍN, J., aip. lan., bereziki 168-179, eta 195-196 orr. Ikus baita IRIJOA CORTÉS, I.; eta MARTÍN SÁNCHEZ, D.: *Erreneria a inicios de la Edad Moderna...*, aip. lan.

30. Ikus abizen toponimikoei egiten zaien aipamena CRESPO RICO, M. Á.; CRUZ MUNDET, J. R.; eta GÓMEZ LAGO, J. M.: *Colección documental del archivo municipal de Rentería. Tomo I (1237-1470)*. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1991, III-VI orr.

31. Ikus IRIJOA CORTÉS, I.; eta MARTÍN SÁNCHEZ, D.: *Erreneria a inicios de la Edad Moderna...*, aip. lan.

tutako datuek, jazarpen gogorra baino, gizarteratze argia erakusten digute. Juan San Vitoreskoaren kasua da azpimarragarriena, 1539an hiribilduko hamabi nagusi izateaz gain, urte bereko Hondarribiko Batzar Nagusietan parte hartu baitzuen hiribilduko ordezkari moduan. Halaber, hainbat urte lehenagoko beste datu batzuek atzerritarren edo kapare ez zirenen gizarteratze hau ohikoa zela islatzen dute. Oso esanguratsua da 1511tik aurrerako Donostiako udal ordenantzetan atzerritarrak udalbatza-karguetan aritzea debekatu izana, ordura arte egiten zutelaren seinale.

Datozen paragrafoetan, beraz, Pasaiko komunitateak ikertzerakoan bi testuinguru hartuko dira kontutan: batetik, XIV. mende amaiera eta XV. mende hasierakoa, Donostiak bideratutako ekimenaren ondorioz etorri zen jendearena. Bestetik, XV. mendearen azken hamarkadetatik 1530 urtera artekoa; merkatal eta ekonomia oparotasun garaia, alegia. Oraindik Erdi Aro amaieran bizi izan zen koiuntura positiboak 1450tik aurrerako merkatal bide atlantiarren pisua islatzen du, hamarkada gutxiren buruan Ternuagatik ordezkaturia izango dena.

Horretarako, garaiko dokumentazioaz gain, beranduagoko datuak emango ditugu. Hauen bidez, XV. mendean zehar ikusten ditugun abizenen jarraipenaren inguruko datuak ematen saiatuko gara. Horretarako Donostiako Elizbarrutiko Artxiboko webgunean kontsultatu daitezkeen bataio, ezkontza eta heriotza-agiriak hartuko ditugu (www.mendezmende.org). San Pedroko elizaren kasuan, adibidez, nahiko informazio goiztiarra dugu, bataio-agiriak 1541 urtean hasten baitira.

Azkenik, lan hau oinarri bezala hartzea nahiko genuke. Etorkizunean beste ikerkuntzek zein ikerlarik bide honetan jarraitzeko aukera eta materiale bezala ikustea, alegia. Gure saiakera honek ez du zerbait itxia izan nahi; aitzitik, ikusitakoa ikusita, datu irekiak dira, pixkanaka osatzen joan beharko direnak.

3. Populazioaren finkapena Pasaiko bokalean

Dagoeneko hainbatetan aipatu izan da XIII. mende amaieran Pasaiko badia, Oriorekin batera, Gipuzkoa kostaldeko burdin esportazio-puntu nagusia zela. Oarsoaldeko burdinolek, Probintziako beste hainbat puntutan gertatutakoaren antzera, berebiziko garapena bizi izan zuten ordutik XVI. mende amaiera arte, haraneko baso eta ur errekurtsioek bultzatuta eta Arditurriko mehatzeak lagun. Ooreretako lekua dugu garapen horren lekuko, han sortu baitzen, 1320 urtean, Villanueva de Oiartzun hiribildua. Pasaian izan ziren populazio mugimenduen aitzindariak, ordea, ez ziren leku horretan eman, Lezo inguruan baizik. Hondarribiko hiri-gutunak (1203) argi adierazten zuen ordurako, zonalde horretan “Guillermo de Lazon” eta beste hainbat biztanle

bizi zirela, hango lurrak lehortuz eta ustiatuz. Biztanle hauen jatorria izan da, hain zuzen ere, historiografikoan hainbat eztabaida edo hausnarketa izan dituen eta Donostialdeko gaskoien eraginarekin batera, atzerritarren aipamenaren inguruan eman den adibide nagusia.

Errenteriaren sorreran inguruko biztanleen bultzada zalantzarik gabekoa bada ere, jakina da aurreko mendeetako harreman sozio-ekonomikoen jarraipen gisa, nafar erresumako hainbat biztanlek Oiartzun ibai ondoan sortutako hiribildu berria izango zutela jo-muga eta bizileku; jatorri nafarreko toponimoak oso ugariak izango dira oraindik XVI. mende hasieran. San Pedro inguruak XIV. mendean bizitzako prozesuaren inguruko datuak, berriz, oso urriak dira.

1379-1397 artean baina, beste mugimendu esanguratsu batzuen lehen saiakera garrantzitsuak izango ditugu. Beste leku batean aipatu bezala, badiaren jurisdikzioari lotutako garaipen judizialekin batera, Donostiak beste prozesu bati ekingo dio: San Pedro inguruak populatzeari, alegia. Mugimendu demografiko honek gainera, ez du bakarrik inguruko biztanleekin egingo; aitzitik, kantauri isurialdeko hainbat herritatik etorritako jendea izango da protagonista nagusietako bat. San Pedrori berebiziko bultzada eman baino lehen, ordea, Altzak atzerritarren aldetik jaso zuen nekazaritza-okupazio prozesua martxan jarri zen, 1390ean elizaren eraikuntzarekin irudikatu zena³².

Hori dela eta, gure helburuari ekin baino lehenago, badiaren inguruan hainbat azalpen egitea beharrezkoa deritzogu, hainbatetan errepikatu badira ere. Hauen bidez, badiaren garrantzia eta bertan jasotako mugimenduen nondik norakoa ikusteko aukera izango dugu eta, ondorioz, populazio mugimendu horien zergatia hobetu ulertuko dugu.

3.1. Pasaiako badia Behe Erdi Aroan: merkatal garapenaren isla eta istilu gune

Gipuzkoan hiribildu maila lortu zuten lehenengo hiribilduak kostaldean kokatzea oso esanguratsua da. Nafar erregeek XII. mende amaieran Donostian eta Getarian kokatzen ziren populazio guneei hiribildu maila ematea³³, gerora Probintzia izango zenaren kostaldea antolatzen hasia zela

32. Ikus ZAPIRAIN KARRIKA, D.; eta MORA AFÁN, J. C.: “Alta: de los cubilares al concejo. Formación y características del régimen jurídico-político altzatarra”. In: *BEHSS*, 32 (1998), 535-577 orr.; LANDA IJURKO, I.; eta ETXEBESTE GONZÁLEZ, J. C.: “Altzako Erdi Aroa izenez izen”, aip. lan.; eta LANDA IJURKO, I.; eta ETXEBESTE GONZÁLEZ, J. C.: “Alta XIV. eta XV. mendeetan”, aip. lan.

33. Gogoratu behar dugu Getariari 1209an Alfontso VIII.ak emandako hiri-gutuna, aurretik emandako baten berrespena dela: “Dono itaque vobis et concedo forum ancti

islatzen du. Antolaketa honek hiru ardatz izango zituen: batetik, bertako biztanleen joera natural bati jarraituz; bestetik, monarkiak merkatal garapen bat bilatzen zuen politika bat bultzatuz; eta azkenik, aurreko hamarkadetatik Gaztela eta Nafarroaren arteko gatazketan geroz eta garrantzia handiagoa izaten ari zen lurralde baten gaineko kontrola areagotuz edo, behintzat, hori egiteko asmoz. Horrekin batera, Gipuzkoa Gaztelako erresumaren zati izatera pasa ondorengo lehenengo urteetan, Alfontso VIII.a erregeak Oiartzuni eta Mutrikuri emandako hainbat pribilegio izango ditugu. Bi gune hauen kasuan gainera, hiribildu titulua edo maila politiko-juridikoaz igo aldetiko mesedeak izango dira eta ondorioz, lurraldean ematen ari ziren aldaketen isla argia dira.

1180 urte inguruan Antso VI.a nafar erregeak Donostiari hiri-gutuna eman zionean, kostalde gipuzkoarrak erresumarako zein garrantzia zuen adierazten du. Halaber, errege berak urte gutxiren buruan (1194an hil baino lehenago) Getaria hiribildu mailara igotzea beste adibide adierazgarri bat dugu. Mesede hauek ordea, ez dira bakarrik errege nafarren interesen isla izango. 1200. urtean, gerora Gipuzkoa izango dena Gaztelako erregeen pean gelditu zenean, Nafarroak hasitako bideari jarraipena eman zioten monarka berriek. Aurreko hamarkadetatik *Itsasaldeko Bost Hiribilduei* (gaur egungo Kantabria) emandako garrantzia Gipuzkoari eskainiko diote. Honela, aurretik fundatutako hiribilduei hiri-gutuna berretsiko diete eta berriak sortuko dituzte: Donostia eta Getariari Hondarribia (1203) eta Mutriku (1209) batuko zaizkie. Gure lurraldean fundatutako lehenengo 4 hiribilduek beraz, oso ongi islatzen dute itsasoa eskuratzen ari zen garrantzia. XIII. mendeko lehen hamarkadetan Gipuzkoako kostaldeak berebiziko bultzada izango du. Hala, Alfontso VIII.a 1214. urtean hil zenerako, hiri pribilegiatu kutsuko azpiegitura bat finkatzen hasia zen.

XIV. mende amaierako epaietan Pasaiaiko portuaren inguruan lehen tirabirak ikusi badira ere³⁴, badakigu aurretik eztabaidak edo arazoak izan zirela.

...

Sabastianni, ut illud perpetuo habeatis in montibus, pascuis, aquis et in omnibus causis, *eo modo quo rex Nubarra illud dedit vobis habendum*". Ikus MARTÍNEZ DÍEZ, G.; GONZÁLEZ DÍEZ, E.; eta MARTÍNEZ LLORENTE, F. J.: *Colección de Documentos Medievales de las Villas Guipuzcoanas (1200-1369)*. Donostia: GFA-BBNN, 1991, 5. dok. Soledad Tenak ere, Hondarribia errege nafarrek fundatu zuela zioen; hiri-gutunak halakorik ez badio ere, aurretik antolatutako populazio-gune garatu bat zegoela dio ("dono et concedo uobis concilio de Fonte Rabia, presenti et futuro, forum de Sancto Sebastiano..."). Gure ustetan, ikertu gabe dagoen Hondarribia-Donostia-Getaria merkatal-bidearen isla litzateke. Donostia eta Getariaren arteko harremanak uste baino estuagoak direla iruditzen zaigu eta horien atzean gaskoien bultzada nabaria egon zitekeela. Euskal Herrian bi "Getaria" egotea, donostiarrak Getarian hainbat jabetza izatea edota Donostiako probestuak Urolako hiribilduan eskumenak izatea, horren isla litzateke. Guzti horri, gainera, 1318an aipatzen den Hondarribia-Getaria bidea batu beharko litzioke.

34. Ikus ZAPIRAIN KARRIKA, D.: *Pasaia 1805-2005: 200 urteko batasuna*. Pasaia: Pasaiaiko Udala, 2005, 30-31 orr.

Oiartzuni Donostiako forua berresten zion dokumentuan (1237 urtekoa), Donostiako gizonen harreman baketsuak izatea eta oiartzuarren defentsan laguntza ematea agintzen zitzairen. Hasierako liskar hauek portuaren ustiake-taren inguruan izan ziren ala ez, ez dakigu; baina badirudi badiak osatzen zuen portu naturala Donostiarentzat oraindik oso interesgarria ez zela. Izan ere, erregeak 1237an defentsa egitera behartu zituen, Oiartzun aldean izandako tirabiren aurrean Donostiak inolako mugimendurik egin ez zuela adierazten zuen; Urumeako hiribilduak bailararekiko zituen betebeharrak bete ez zituela³⁵. Beraz, garai horretan Kontxa eta Urumeako ainguralekuak ziren hiribilduarentzat lehentasuna zutenak, Pasaia inguruan jazo zitezkeen istiluak urruti samar ikusten zituelarik.

Egoerak eraldaketa izango du ehun urte baino gutxiagoren buruan. XIII. mende amaieran Oiartzungo portua burdin esportazioan garrantzia nabarmena eskuratzen ari zen, 1293-94ko hamarren zaharraren kontuek ondo adierazi bezala, eta merkatal bideen derrigorrezko ainguraleku bihurtuko da. 1318ko ekainean, Alfontso XI.ak Getaria eta Hondarribiari emandako aginduan, Donostiarako bidean bi ainguraleku kokatzea bidaltzen zuen. Bata badiako Kontxan ezarriko zen eta bestea, Oiartzungo kanalean zegoen “*cod del mastel*”-etik kanporanzko bidean. Toponimo hau Pasaiaren inguruan dugun zaharrena da eta primeran islatzen du ordura arte gune hori ontziak ainguratzeko puntu garrantzitsua zela; alegia, itsas trafikoaren geratze puntua. Getaria eta Hondarribiari emandako agindua denez, bien arteko itsas bidea islatzen du eta halaber, Donostiarekin zuten harremana³⁶.

Ondorengo hamarkadetan bailarari zuzendutako pribilegioek, bereziki burdinari lotutakoek, inguruko ekonomiari bultzada eman zioten. Alfontso XI.ak 1328an Irun eta Oiartzungo olagizonen emandako foruak, ekoizten zuten metala nahi zuten lekutik atzeratzeko askatasuna eman zien, lurrez zein itsasoz izan. Horren ordainetan, burdinari lotutako errege zergak betiko lekuetan ordainduko ziren, Oiartzungo portuan besteak beste.

Halaber, hainbat hiribilduk beraien merkataritza-jarduerak finkatzen ari ziren. 1296an, adibidez, Donostiak eta Hondarribiak (Pasaiako badiaren esku-

35. Dokumentu horretan, gainera, Oiartzungo udalbatzak aurreko erregeen aldetik beste hamahiru gutun eta mesede dituela adierazten da. Honek argi adierazten du zonalde horrek gaztelar (eta nafar?) erregeen interes-puntu bihurtu zela. Ikus MUNITA LOINAZ, J. A.: “El original más antiguo del Archivo Municipal de Rentería: el privilegio rodado de Fernando III al concejo de Oyazun (20.marzo.1237)”. In: *Bilduma*, 2 (1988), 92-98 orr (67-105) artikuluan egindako ekarpen interesgarriak.

36. Era berean, Gaztelako erreinuak 1268an Xerezko Gorteetan merkataritza gune garrantzitsuenen inguruan garatu zen araudian Donostia eta Hondarribia aipatzen ziren eta, beraz, Pasaiako badiak bere papera izango zuen. Ikus RUIZ DE LA PEÑA SOLAR, J. I.: *Las «polas» asturianas en la Edad Media. Estudio y Diplomático*. Oviedo: Universidad de Oviedo, 1981, 231 orr.

mena zuten hiribilduak, alegia), Getaria, Bermeo, Castro Urdiales, Laredo eta Santanderrekin batera, Gasteizekin *Hermandad de la Marina de Castilla* delakoa sortu zuten, Kantauri Itsasoko merkatal trafikoa ziurtatzeko. Gauzak horrela, Pasaiatik ateratzen zen burdina Gipuzkoaz haratagoko eremu geografiko zabalago batekin harremanetan jarriko luke, edo lotura honen area-gotzea ekarri.

Oparotasun egoera honi bultzada emanez, 1320ean Erretereria hiribildua fundatuko da eta bere egoera ekonomikoa finkatzen joango da Pasaiako badian. Honen adibide, ordutik sortuko diren etengabeko liskarrak ditugu³⁷. 1338ko urrian, Alfontso XI.ak fiskalitateari lotutako mesede bat eman zien Erretereriako zein beste lekuetako merkatariei: Pasaiako portura eramaten zituzten produktuengatik, ez sisa eta ezta Donostiak ezarritako beste zergarik ez ordaintzeko pribilegioa eman zien. Agidanez, azken hiribildu horrek zerga ezberdinak ordainarazten zizkien. Pasaian zegokion jurisdikzioa aprobetxatuz, Urumeako hiribilduak onura ekonomikoa ateratzeko asmoz, bertara iristen ziren produktuen gainean hainbat diru sarrera lortu nahi zituen. Hau, badia pixkanaka hartzen ari zen garrantziaren adibidea da, bertan burutzen ziren merkataritza jarduerak kontrolatzeko Donostiak agertu zuen asmoa islatzen baitu. Garrantzia hau dokumentuak berak ematen digun informazio berrian ikus daiteke. Aurreko datuekin alderatuz, inportazio jardueraren lehenengo datu zehatzak ditugu, Donostiak lurreratzen zen gari eta aleari aplikatzen zien sisa aipatzen baita. XIV. mende hasierarako beraz, badia burdin esportazio eta labore inportazio gune zen³⁸.

1338ko dokumentua eman eta urtebetera, 1339an, Donostiak eta Erretereriak adiskidetasun hitzarmen bat sinatu zuten³⁹. Honen bidez, Erretereriak Donostiari Oiartzungo portuaren jabetza osotasunean aitortzen zion, horretan laguntzeko konpromisoa hartuz. Halaber, Donostiako portura iritsitako merkantzien erdia hemen lurreratzeko ezartzen zen, ordutik Donostiak defendatuko duen eskumena delarik.

Akordio honek zergen inguruan zituen xedapenen artean, zerga salbuespenari buruzko bat interesatzen zaigu. Izan ere, salbuespen honetan Oreretara joaten ziren merkatariei egiten zitzaien erreferentzia. Bai bertakoei, baina baita lehen aipatu dugun *Itsasoko Ermandadea* osatzen zuten hiribilduei

37. IRIJOA CORTÉS, I.; eta MARTÍN SÁNCHEZ, D.: *Erretereria a inicios...*, aip. lan.

38. CRESPO RICO, M. Á.; CRUZ MUNDET, J. R.; eta GÓMEZ LAGO, J. M., aip. lan., 4. dok.

39. Egia bada bere sorreran defentsa eta babes arrazoiak daudela, uste dugu badia eskuratzen ari zen garrantziak ere berebiziko eragina izan zuela. MARTÍNEZ DÍEZ, G.; GONZÁLEZ DÍEZ, E.; eta MARTÍNEZ LLORENTE, F. J., aip. lan., 204-206 dok. Ald. ZAPIRAIN KARRIKA, D., aip. lan., zeinak akordioa Oiartzun eta Donostiaren artean egin zela zioen.

(Santander-Hondarribia artekoei) eta hemendik haratagokei; ondorioz, Pasaiko badiarekin beste leku batzuetakoek zuten lotura estuaren lehenengo aztarnen aurrean gaude.

1339ko akordioa Donostiarentzat guztiz onuragarria bazen ere, ondorengo urteetako joerak, hitzarmenak islatzen zuen Erreteriarren menpekotasuna agerian uzten du eta baita akordioan parte hartu zuten bere ordezkarien zalantzagarritasuna ere. Izan ere, erregeek 1338ko mesedea berretsi zuten 1340, 1351 eta 1371 urteetan. Ondorioz, bertako eta atzerriko merkatariek hiribildura ekarritako produktuak, Donostiak ezarritako zergetatik salbuesten ziren eta errege zergak bakarrik ordainduko zituzten. Alegia, 1339. urtean sinatutakoaren kontrako xedapenak⁴⁰.

Berrespenek ongi islatzen dute badia geroz eta tentsio-gune handiagoa zela. Eta hau XIV. mendeko azken laurdenean agerian geratzen da, epai gehiago eman baitziren. 1374an Erretereria eta Oiartzungo olagizonak Donostiaren kezu ziren duela 12 urtetik ordura arte (Donostia erre zenetik, alegia), ontziratzen zuten burdin, altzairu eta beste hainbat merkatalgaien inguruan, kintal bakoitzeko zerga kobratu arazten zielako eta Oretetan merkataria eta pertsona ezberdinek lurreratzen zuten ogiaren erdia, Donostiako portuan lurreratzerako behartzen zielako, 1339 sinatutako akordioan oinarrituz. Erregeak 1374ko irailaren 30ean emandako epaia historian zehar eman denaren kontrakoa izan zen. Portua berea eta publikoa zela adieraztearekin batera (beste dokumentuetan jasotzen dena), Oretaren aldeko bi xedapen erabaki zituen: batetik, badiako hiribilduak ez ziola Donostiari ezer ordaindu behar; bestetik, Erreteriarra iristen zen ogiaren erdia ez zela derrigorrez Donostiako portuan lurreratu behar.

Oiartzungo portuaren inguruan sortutako liskarrek Endrike II.aren beste epai bat ekarriko dute 1376an. Bertan, oretarrei Oiartzun, bailarako burdinola eta Erreteriarren mantenurako ekartzen zituzten produktuak, portuan lurreratzeko askatasuna ematen zien. Bai ontziak beraienak zirenean eta baita horiek alokatu edo beste pertsonekin hitzartzen zituztenean. Horretarako pinaza maisuek portuzainen aurrean zinpekoea egin behar zuten, leku horien mantenurako zirela esanez. Bestetik, pinazen eta ontzien sartuatera eta arrantza askatasunez egitea ahalbidetzen zitzairen. Hala, arrantzatutako arraina portuan askatasunez lurreratu zezaketen eta baita edozein lekura bidali ere, Oretara, Oiartzun eta burdinoletako biztanleei janari bezala salduz.

Bestalde, Erreteriarak lortu zituen antzeko eskumenak ematen zitzaizkion Donostiari: arrantzaren lurreratze askatasuna, batetik; badiatik hiribildura lurrez nahiz itsasoz garraiatzea inolako ordainketarik egin gabe egiteko

40. CRESPO RICO, M. Á.; CRUZ MUNDET, J. R.; eta GÓMEZ LAGO, J. M., aip. lan., 5. dok., 14 orr. Ikus baita ibidem, 7 eta 12. dokumentuak.

ahalmena, bestetik. Neurri hauei esker Donostia ez zegoen produktu ezberdinarik Erreterian lurreratzen behartuta; hau da, itsas-jarduera horiei lotutako azpiegiturarik garatuena zituen lekura. Ondorioz, Donostiak nolabaiteko eraikuntzak egiteko aukera izango zuen bere jurisdikziopeko lurretan, eta baitz itsasoari lotutako hainbat jarduera garatzeko ere⁴¹.

Ez dugu ahaztu behar, baina, epai hau Donostiaren aldeko mesede edo pribilegio bat zela, dokumentuak berak aipatzen zuen bezala: “*por quanto la dicha villa de Sant Savastian es la mejor villa que nos avemos en el nuestro sennorio de Guipuscoa. E que mas pertenesçe al nuestro serviçio que esté bien poblada*”. Urumeako hiribildua abantaila politikoa lortzen ari zen eta epaia horren isla da, Donostiari eskumen gehiago emateaz gain, Erreteriarren merkatal jarduera mugatu baitzuen. Erreteria, Oiartzun eta burdinole-takoak ez ziren baina badiara zihoazen ontziek zeramaten produktuen erdia, Donostian lurreratzen behartzen zituen; eta horrez gain, Donostia helmuga zutenek ezin zuten Oretan inolako lurreraterik egin.

Epai honek ez zituen arazoak ekidin eta istiluek ez zuten bakealdi luzea izan, Oiartzun eta Erreteriarren arteko liskarrek Donostiaren partaidetza ekarri baitzuten. 1399ko martxoan, berriz, Endrike III.ak, Gonzalo Morok 1397 urte inguruan emandako epaia berresten zuen. Azken honetan, ordura arte badiako liskarretan ia agerpenik gabeko hiribildu bat izan zen protagonista: Hondarribia. Azken honek Donostia, Erreteria eta Oiartzun salatzen zituen, bere lurak okupatu zituztelako. Irtenbide gisa, mugarritze bat egin zen. Hondarribiari zegozkion lurren artean, bokaletik bere aldean zeuden Pasaia etxeak eta hemendik Lezoko elizaraino zeudenak zeuden. Horrez gain, Donostiarekin zituen Jaizkibel lur amankomunen ustiapena bien artekoa zela agintzen zen⁴².

1376ko epaiak Donostiaren eskumenak areagotu bazituen, 1397-1399koak ez ziren Urumeako hiribilduarentzako oso arrakastatsak izan. 1399ko epaia XV. mendearen bigarren erdialdetik aurrera ditugun liskarren oinarria izango da. 1455ean Martin Gartzia Likonakoak, Morok emandako epaia berretsiko du. Oraingoan, tirabirak Donibanen bizi zen Miqueo Berastegikoa hondarrabiarrak urak ikutzen zuen lekuan eraikitako etxeagatik sortu ziren. Donostia izan zen ekintza hori errefusatu zuena, berari zegokion jurisdikzioan bere baimenik gabe egiten ari zela salatuz. Epaileak berretsi egin zion Donostiari urak itsasgoran betetzen zuten Donibane eta Lezo artean zegoen badiako lur horren jabetza. Etorkizunean zonalde horretan etxeak

41. Azkenik, erregeak beste neurri bat hartu zuen: ontziratutako burdina Donostiak ezarritako zerga eta eskubideetatik libre egiten zuen eta Oretari ere, halako neurririk hartu ez zezan agintzen zion.

42. Horrez gain, Donostiak auziko gastuak ordaindu beharko zituen. Ikus, ibidem, 24 eta 25. dok. TENA GARCÍA, M.^a S., aip. lan., 558-559 orr.

eraikitzea edo zeudenak zabaltzea debekatzen zuen; halakorik egitekoan, itsasoak ikutzen zuen lurretan egingo ziren eraikin berriak Donostiako jurisdikziopean geldituko ziren, hiribildu honek horiek eraisteko aukera zuelarik. Alabaina, berrogeita hamar urte horietan zehar egindakoak bertan jarraitzea adosten zuen, Donostiari pertsona bakoitzak urtean 5 maraiko errenta ordainduz. Horrekin batera, bi aldeek ordura arte zituzten jarduerak (arrantza, bereziki) askatasunez egitea bermatzen zuen. Epai honek ordea, Hondarribiaren aldeko erabaki nabarmen bat ematen zuen: Moren epaitik ordura arte Donostiaren jurisdikzioan (alegia, itsasgorak urarekin ikutzen zituen zonalde horietan) eraikitako etxeak, Bidasoako hiribildura pasako baitziren⁴³.

Argi dago San Pedro pareko lurretan XIV. mende erdialdetik mugimenduak areagotzen ari zirela. Horretarako, ez dugu liskarretan parte hartu zuten agerpena ikustea besterik: hasiera batean Oiartzun-Errenteria etengabe azalduko bazaizkigu, pixkanaka Hondarribiak protagonismoa eskuratuko du. Horrek adierazten du azken hiribildu honen jurisdikziopean zeuden lurretan eraldaketa bat ematen ari zela. Lehenengo pausoak XIII. mende hasieran ditugu, Lezon hainbat biztanle kokatu zirenean. Hamarkadek aurrera egin ahala, Donibanen biztanleak finkatuko dira. Kokapen honek arrakasta izango du, XIV. mendearen bigarren erdialdean eliz xume bat eraikia zutela baitakigu, gaur egungo Bonanza inguruetan; alegia, Donostiaren jurisdikzioarekin muga egiten zuten lurretan⁴⁴. Populazio berri honek Donostiak badian izandako jarrera baldintzatuko du, Donibaneko kasuak mugimendu oso esanguratsu bat islatzen baitu: bere jurisdikziotik at zegoen komunitate baten antolaketa, non eta bokalean. Kontutan izan behar dugu Kondemasti edo Ondartxoren ainguraleku jarduerak behera egingo zutela, Donostiako juridiskziotik kanpoko beste leku batzuetan azpiegitura hobek egingo zirelako: 1320tik aurrera Errenterian; XIV. mendearen bigarren erdialdetik, Donibanen.

43. “las dichas casas e solares e difyçios que después de la dicha sentençya por el dicho dottor [Gonzalo Moro] pronunçiada fueron y están edifycadas sobre la dicha mar e athenyentes a la marea e creçiente d’ella, serían e fueron edifycadas e fechas en el térmyno e jurediçion de la dicha villa de San Sauastián; por algunas razones que a ello me mueuen, declaro e mando que los dichos edifçios e solares e casas que agora son e están ansy nuevamente fechas edifycadas después de la dicha sentençya por el dicho reuerendo dottor [Gonzalo Moro] pronunçiada, e los moradores d’ellas, myentras fueren e duraren los dichos edifçios e casas que agora son, *que sean de la vezindad e jurediçion de la dicha villa de Fuenterravia*”. PUA, 1665-1, 8 at. fol. Soledad Tenak aldiz, Likonak etxe horiek Donostiako jurisdikziopean geratu zirela zioen. Ald. TENA GARCÍA, M.^a S., aip. lan., 559-560 orr.

44. Fermin Iturriozek XIV. mende amaieran eraikia zela zioen, Migel Iñarrakoak bertsoetan adierazitakoan oinarrituz. Azken egile honen arabera, eliza 1400 inguruan eraikia zen eta ez, ordea, 1366an. Ald. ITURRIOZ, F.: *Pasajes. Resumen Histórico*. Pasajes: PYSBE, 1952; IÑARRA, M.: “Bonanza. Itz-neurtuetan bere kondairacho bat”. In: *Euskal-Erria*, 1895, 522 orr. (520-524).

Horrez gain, 1401. urtean Endrike III.ak merkatari nafarrei emandako pribilegio baten bidez, hauei Pasaiaiko portua Donostiakoa erabiltzen zuten moduan erabiltzeko mesedea eman zien, lehengoak eskaintzen zituen abantailak eta bigarrenak zituen arriskueta oinarrituz⁴⁵. Hori islatzen duen dokumentu zehatzik badugu, izan ere 1403an bi merkatari iruindarrek ingelesez eraso pairatu zuten, Andre Maria ontzian zihoazela; eta hau, “*Ville Nebe de Wyarson*”goa zela adierazten zuten, alegia, Errenteriakoa⁴⁶.

Gauzak honela, Pasaiaiko portuaren inguruan ematen ari ziren eraldaketan ondorioz, Donostia bere egoera indartzen saiatuko da. Badiarekiko zuen egoera ezin hobegatik, Errenteria lehiakide indartsua bihur zitekeen, Donostiako merkatal garapenari traba eginez. Era berean, Donibaneko komunitate txikiaren antolakuntzak badiara sartzen ziren ontziei berebiziko laguntza emango zien. Honen aurrean, Urumeako hiribildua badiako garapena mugatzen edo kontrolatzen saiatu zen. Horretarako, baliabide judizialez gain beste prozesu batzuk abiatu zituen. XIV. mende amaieran, adibidez, San Pedro inguruetan jendea finkatzeko bideari ekin zion.

3.2. Pasai San Pedro inguruko lurren okupazioa: gaskoiak aitzindari?

Jakina da Donostia eta Hondarribiko hiribilduak kokatu ziren lekuetan gaskoiek berebiziko eragina izan zutela populazio gune horiek hiribildu maila eskuratu zezaten. Prozesu honek izan zuen eragina ikertzea historiografiaren gai kuttunetako bat izan da, bereziki gaur egun oraindik mantentzen diren toponimo ugariak direla eta. Horrez gain, azkeneko ikerkuntzek gaskoiek Alzaren eraketan izan zuten pisua ere azpimarratu dute⁴⁷. Ildo honetatik jarraituz, Donostiak garai honetan bere gain hartzen zuen lurraldeaz gain, Pasaiaiko badia ere gaskoien edo behintzat, gaskoi jatorriko familien jo puntu bezala jarri da, bereziki Pasai Donibane.

Gamonek oso datu interesgarri bat aipatzen du gaskoien etorrera honetan. Bere ustetan, gaskoiak San Pedrorra XIV. mendean joan ziren bizitzera. Prozesu hau, ordea, ez zuten zuzenean Baiona edo Iparraldetik egin, Donostiatik baizik. Eta lekualdatze honen protagonistak hainbat arrantzale izan zirela zioen, pixkanaka etxolak eginaz eta eliza eraikiz. Egile errenteria-

45. ZAPIRAIN KARRIKA, D., aip. lan., VII orr.

46. CHILDS, W. R.: *Anglo-Castilian Trade in the later Middle Ages*. Manchester: Manchester University Press, 1978, 44 orr.; IRIJOA CORTÉS, I.; eta MARTÍN SÁNCHEZ, D.: *Errenteria a inicios...*, aip. lan., eta bereziki, IRIJOA CORTÉS, I.; eta MARTÍN SÁNCHEZ, D.: *Errenteria XVI. mende hasieran...*, aip. lan.

47. Ildo honetatik, oso esanguratsua da Iñigo Landak eta Juan Carlos Etxebestek jaso zituzten Gaskoiniako toponimoen zerrenda. Ikus LANDA, I.; eta ETXEBESTE, J. C.: “Altzako Erdi Aroa izenez izen”, aip. lan., bereziki 81 orr. Horrez gain, funtsezkoa da ZAPIRAIN KARRIKA, D.; eta MORA AFAN, J. C.: “Alta...”, aip. lan.

rrak ere, San Pedrotik Donibanerako bidea egin zutela zioen, azken gune hau populatu zutenak izan zirelarik⁴⁸.

Gamonen hipotesiaren hainbat puntu aintzat hartuz, aipatzen duen kronologia gertu dago dokumentazioak aditzera ematen duen San Pedroren populatzearen prozesu nagusitik; baina baliteke hasierako pausoak hamarkada batzuk lehenago ematea. Hala azalduko litzateke gaskoi jatorria duten Trintxer eta San Matet bezalako abizenek geofisikoki hainbat jarduetarako aukera ematen zuten lurretan begirada jartzea: abelazkuntzarekin eta nekazaritzarekin lotutako lanak egiteko aproposak zirenetan, alegia. Izan ere, gerora San Pedroko inguruek ez zituzten jarduera horiek horrenbeste bideratzen; are gehiago, bertan kokatuko diren biztanle gehienek itsasoarekin lotutako lanak izango dituzte ogibide.

Horregatik, Trintxer eta San Mateten jatorria Altzako lurretan bizitako prozesuaren ildotik ulertu beharko genukeela uste dugu. Arzac edo Arnaobidao bezalako abizenekin batera Herrera inguruetan kokatu ziren lehenengo familiak izango ziren, Alza eta Donostia arteko bidearekin lotuta eta badiako garapena aprobetxatuz. Beste era batera esanda: batzuk Altzamunon begirada jarri bazuten, beste batzuk Herrera-Port de Plat-etik Salbiorako lursailetan topatu zuten aurrera egiteko lekua⁴⁹.

Badakigu Donostiako udalbatzak San Pedro inguruetan lurrak doan ematen hasi baino lehen, gune hori Altzako abeltzainek beraien abelburuen bazkaleku bezala erabiltzen zutela. Datu gehiagorik izan ezean, lur horietan zeuden sastraka, txaradi eta sasitzak ahuntzen bazkaleku bezala aprobetxatu zituzten:

“...el dicho suelo de las dichas huertas, ante(s) que se fisyesen e plantasen, hera cosa desaprobechable e tal que ninguno se aprobechaba d’ello mas de quanto

48. “Gamón por el contrario dice que desde San Sebastián se trasladaron el siglo XIV a Pasajes de su jurisdicción o sea al de San Pedro, algunos pescadores gascones que se establecieron en la villa de aquel puerto con algunas barracas para acogerse en ellas, y fueron después edificando el pueblo y una reducida iglesia a la caída del monte Mirall hacia 1467. De allí pasaron al otro Pasajes, actualmente de San Juan, y lo poblaron también”. MÚGICA, S., aip. lan., 11 orr. Ald. ATELA GURRUTXAGA, N.; ISASI SALABERRIA, A.; eta VICENTE BELTRÁN, I., aip. lan., 39 orr.

49. Ohartu beharko genuke, baina, toponimo gaskoi bat egoteak ez duela besteekin lotura zuena izan behar; hau da, guztiak ez direla garai berean sortutakoak. Hor egotea gauza bat da eta beste bat, noiz iritsi zen jakitea. Askotan, gaskoiak XI-XII. mendeetan gertatutako uholde bat bezala aurkeztu dira eta ikuspegi hau moldatu beharko litzatekeela uste dugu. Mendeetako harremanek etengabeko prozesu bat islatuko lukete, nafarrekin gertatu bezala. Esan nahi duguna zera da: Gipuzkoa ekialdean ikusten diren gaskoi kutsuko izen guztiak ez zirela garai berean sortu. Are gehiago, inguruetan gaskoi izenak egotea ez du esan nahi populazio finko bat zegoenik. Hori da, gure ustetan, Kodemastiren kasua. Ald. BARANDIARAN, J. P., aip. lan., edota BANÚS Y AGUIRRE, J. L., aip. lan., 565 orr.

*andauan algunas bezes por ello algunas cabras de los vezinos e moradores de la tierra de Alça...*⁵⁰.

Halaber, badakigu hasierako sanpedrotarrek, eliza eraiki baino lehen zerbitzu erlijiosoak hainbat lekutako elizetan jasotzen zituztela, tartean Altzako eliza zegoelarik. Donostiako udalbatzaren prokuradore Martin Perez Bildaingoak zera zioen:

“antiguamente los del dicho lugar yvan a oyr misa e resçebyr los sacramentos a la yglesia de Sant Marçal que está junto con el dicho lugar del dicho Pasaje por dos tyros de vallestá, la qual yglesia de Sant Marçal fue e es anexa de las yglesias de la dicha vylla”⁵¹.

Hasierako biztanle bakan horiek beraz, XIV. mende amaierako bultzada baino lehen finkatutakoak, Altza eta Donostiarekin lotura zuten gaskoi jatorriko pertsonak izango ziren. Gehienak lurlean oinarritutako jarduerak izango zituzten ogibide; beste batzuk aldiz, beranduago etorritakoak, arrantza eta itsas munduari atxikitutako lanei ekin zieten. Hasieran San Pedro aldean kokatu ziren biztanleak, Altzan ematen ari zen prozesuaren zati ziren, garai batean Altzan kokatu ziren gaskoi jatorrikoekin zetozen beste gaskoi batzuk zirelarik: San Matet eta Trintxer, alegia. Horren adierazle, Lope Martínez Isastikoak berak San Pedron jasotzen zituen oinetxe eskasak ditugu, izan ere Trintxer eta San Matetez gain, beste bi besterik ez zituen aipatzen, eta horietako bat, ziurrenik, bigarren horrekin lotuta⁵².

Guretzako Trintxer eta San Matet, Arnaobidaorekin batera, prozesu horren isla argia dira. Hau da, Donostiak Altzako lurretan bultzatutako “neka-

50. Halako adierazpenen adibideak 1498 lekukotzetan ditugu. Ikus ARChV. Pleitos Civiles. Fernando Alonso, Fenecidos, 1332-1, 115 au., 121 at., 152 at. eta 161 at. folk, besteak beste. David Zapirainek eta Juan Carlos Morak Altzak XIV. mende amaieran zuen jarduera nagusietako bat abeltzaintza dela diote; honen ildotik, oso adierazgarria da 1465ean Donostiak eta Altzak abelburuen inguruan sinatu zuten akordioa. Ikus ZAPIRAIN KARRIKA, D.; eta MORA AFÁN, J. C.: “Altzak...”, aip. lan., bereziki 574-576 orr. Bestalde, abeltzaintza jarduera honekin lotuta, ez dugu ahaztu behar 1197 urtean aipatzen ziren sarobeen artean Irurdita edo Illurgita izenekoak zegoela, Ulian (ikus LANDA IJURKO, I.; eta ETXEBESTE, J. C.: “Altzako Erdi Aroa izenez izen”, aip. lan.). Altzatarrek XV. mende hasiera baino lehenago beraien abereak Herrera-San Pedro inguruetara bazkatzera eramatea honen aztarna litzateke?

51. ARChV. Pleitos Civiles. Fernando Alonso, Fenecidos, 1330-1, XI au. fol. Anton Agirrekoa hondarribiarrak ere antzekoa zioen: “antes que se feziése e hedeficase la yglesia que está en el dicho logar del Pasaje, los vesynos e moradores del dicho logar solían yr a misa a vna yglesia que se llama Sant Marçal, que está en jurisdicción de la dicha villa de Sant Sabastián”. ARChV. Pleitos Civiles. Fernando Alonso, Fenecidos, 1331-1, LIII at. fol.

52. Zehazki, San Mateten ondoren aipatzen duen Juan Idiakezkoa jaunaren basetxea “casería de don Juan de Idiaquez” (hurrenkeria ikusita guretzako oinetxe bera dena) eta “Placer” izenekoak. Oarsoaldeko oinetxeetarako, ikus MARTÍNEZ DE ISASTI, L.: *Compendio Historial de la M. N. y M. L. Provincia de Guipúzcoa*. Donostia: Ignacio Ramón Baroja, 1850 (arg. faks.: Amigos del Libro Vasco, 1985), 91 orr. eta hh.

zal kolonizazioa” ia-ia badiako bokalera iritsi zela, eta ez bakarrik Altza ingurutara mugatu. Populatze horren muga San Matet litzateke, hemendik bokalerako bidean zeuden lurrek nekazaritzarako aukera gutxi ematen zutelako; ezta abeltzaintzarako ere. Ikusi dugunez, altzatarren ahuntzen bazkaleku izan ziren baina ez, ordea, behiena. Hala, Arnaobidao, Trintxer eta San Matet oinetxeak sortuko zituzten lehenengo kideek, Altzara joan baino, bokalerako bidea egin zuten eta bertako lurrak nekazaritza zein abeltzaintzara bideratu zituzten⁵³.

Ondorengo hamarkadetan beste prozesu batzuk etorriko lirateke lurralde horietan: batetik, Donostiak sustatutako okupazio handiagoa; bestetik, XV. mendearen bigarren erdialdetik aurrera, oligarkia donostiarraren inbertsioak. Azken honen adibide, Iparragirre, Martinbono eta Viver basetxeak eta Gomistegi gerora eraikiko zen lurren jabetza ditugu⁵⁴.

Honek guztiak, dena den, ez du esan nahi gaskoia XIV. mendean bakarrik iritsi zirenik; Donostiak XIV. mende amaieran bultzatu zuen okupazio prozesuan beste hainbatek ere parte hartu zuten, tartean Altzan ikus ditzakegun hainbat. Hala nola, 1465 urtean altzatarren artean ditugun La Canal, Carbuera, Pollón, Labao/Laba edo Fayet abizenak. Horiei Fautes edo Collardao bezalakoak batu beharko zaizkie⁵⁵. Lehenago, 1390ean, San Martzial eliza eraikitzeko proiektuan azaltzen diren 18 izenetan Pasaian ezagunak izango zaizkigunak agertuko dira: La Lana (Santxo, Rodrigo eta Martin)⁵⁶, Baro (Pes), Durango (Martin) edota Carbuera (Juan de la). Oraindik famatuak egingo diren Artzak edo Arnaobidao ez dira ageri. Bi oinetxe hauen kokapena zein den ikusirik, altzatarrek zituzten behar horiek ikusi ez zituztelako, agian. Horregatik, Mirakruz gainatik badiarako bidean ezarri ziren abizen esanguratsu horiek azaltzen ez baziren, Trintxer eta San Matetek ere, ez zuten nahi eta nahiezko agerpena izan behar. Hala, dokumentazioak momentu horretan jasotzen ez baditu ere, ordurako edo urte gutxi batzuen buruan badiarako bidean kokatu zirela uste dugu.

53. Adibide berantiarra bada ere, jakina da XVI. mende hasieran Trintxer etxeak abereentzako etxola edo borda bat bazuela. IRIXOA CORTÉS, I.: *Pasaia...*, aip. lan., 73 orr.

54. Ikus LANDA IJURKO, I.: “Engomeztarren jabetzak La Herreran (1467-1574)”. In: *Altza, hautsa kenduz*, V (1999), 141-176, orr.

55. 1465eko zerrendarako, ikus ZAPIRAIN KARRIKA, D.; eta MORA AFÁN, J. C., aip. lan., 557-558 eta 574-576.

56. Baliteke jatorrian hauek Altzan kokatzea eta hainbat urteren ondoren adar batzuk, Pasaiara joateaz gain, Donostiara ere bizitzera joatea. Badakigu 1477 eta 1486an Juamot La Lanaren jaraunsleek etxea zutela Donostiako Moleta kalean. Ikus FERNÁNDEZ ANTUÑA, C.: “Notas sobre el caserío Erbitegi (Ergobia) y Miguel Pérez de Erbeeta”. In: *BEHSS*, 39 (2005), eranskin dokumentala 1 (47-80) eta AHPZ. Híjar, I-147-2-39. Bestalde, oso aipagarria da lehenengo altzatar hauen artean “Solomon” edo “Salomon” abizena duen bat azaltzea, kutsu judutar nabaria baitu.

Arnaobidao, San Matet eta Trintxer abizenen lehenengo datu zehatzak XV. mendearen erdialdean ditugu. Domingo Lizasok jasotzen zuen lehenengo Arnaobidao abizena zuen pertsona Pedro izeneko bat zen, 1442an Altzako ordezkari izan zena⁵⁷. Halako jarduera batean ikusteak oso gazte ez zela adierazten digu, alegia, urteetan zehar nolabaiteko ezagutza metatu zuela eta hala, bertako biztanleentzako ospea zuen pertsona bat zela; ondorioz, gutxienez 25 bat urte izango zituela uste dugu eta beraz, bere jaiotza data hipotetikoa 1418 urte inguruan kokatu beharko genuke.

Susmo batzuek, baina, abizena XIV. mende amaieran gure inguruetan kokatzeko aukera ematen digute. Batetik, Pedro Altzako ordezkari bezala aritzearen arrazoia bere aitaren oinordeko izatean egon zitekeela pentsa dezakegu; hau da, azken hau izango zela gurean izan zen lehenengo Arnaobidao abizendun pertsona. Pedro bere izen onaren oinordeko bihurtuko zen eta horrek emango zion altzatarren artean ospea. Hala, lehenengo Arnaobidao hori Pedro baino 25 bat urte lehenago jaio izan balitz, 1390 urte inguruan jaio zela esan nahiko luke, alegia, Altzako eliza sortu ondoren; horregatik ez zen eskritura honetan agertuko.

Bestetik, 1442rako Pedro guk uste duguna baino zaharragoa zela planteatu daiteke, 1418 urtea baino lehenago jaiotzea, alegia. Izen bereko pertsona bat 1498an agertzen zaigu. Orduan 60 urte inguruko adina zuen (1438 inguruan jaiotakoa, beraz)⁵⁸. Datu honi jarraituz, Pedro hau Lizasok aipatutakoaren semea izan zitekeela uste dugu eta, ondorioz, lehenengo Pedro hori XV. mende hasieran edo XIV. mende amaieran jaio zela pentsatzen dugu. Edonola ere, Arnaobidao gutxienez XV. mendeko bigarren hamarkadaren hasieran kokatu behar dugu.

Bi hauez gain, badakigu Anton Arnaobidaokoak 1454 urte inguruan jaiotako Maria Sanz II San Matetekoa emazte izan zuela⁵⁹. Anton aurrekoen anaia eta semea zen ala ez, ez dakigu baina hipotesia asko korapilatzea bada

57. Ikus LIZASO, D. de: *Nobiliario de los palacios, casas solares y linajes nobles de la M. N. y M. L. Provincia de Guipúzcoa (con una introducción de Juan Carlos de Guerra)*. Donostia: Imprenta de la Provincia, 1901. Egile hau kontu handiz hartu behar dela ohartu behar dugu, bereziki genealogiak berreraikitzearako garaian, askotan belaunaldien arteko salto handiak islatzen baititu edo gaur egungo dokumentazioak ematen digun datuekin kontrajariak dauden batzuk eman zituelako.

58. Horrez gain, San Pedron Donostiako udalbatzak ematen zituen lurra neurtzera joan behar zuela badakigu, baino gaixo zegoenez, Altzako beste auzotar batzuk joan ziren: "...algunos de los vezinos et moradores del dicho lugar del Pasaje le enbieron a llamar a este testigo rogándole que llegase fasta el dicho lugar a los partyr a cada vno su parte del dicho suelo que la dicha villa les auia vendido, en que cada vno fisiese su huerta; et por qu'este testigo a la sasón estaua malo, non pudo yr allá e fueron Juan de Estibaos e Miguell de Anchiola, sus vezinos..." (ARChV. Pleitos Civiles. Fernando Alonso, Fenecidos, 1332-1, 29 au. fol.).

59. Jaiotza data, Mariaren lekukotzan oinarrituta. Ikus ARChV. Pleitos Civiles. Lapuerta, Fenecidos, 1597-1.

ere, bikotea inguru horietan kokatutako lehenengo familien ondorengoan arteko lotura zela uste dugu: San Matet eta Arnaobidaoren artekoa, alegia. Izan ere, Maria, dokumentatua dugun lehenengo San Matet etxeko andrea-ren biloba zen. Baliteke ordurako Arnaobida abizenaren adar bat Pasaian ezartzea. Beste Pedro Arnaobidaoko bat, honakoa ontzi maisua, alfabetatua eta 1451 inguruan jaioa, XV. mende amaieran San Pedroko auzotar ageri da⁶⁰. Mende amaierarako nolabaiteko garrantzia zuen pertsona zen, 1496an Llastres senideek beraien artean izan zuten auzian konpromiso-epailetako bat bezala izendatu baitzuten⁶¹.

Alabaina, eta Arnaobida abizenak Mirakruz gainatik badiaranzko bidean kokatutako lehen oinetxeetako bat sortuko badu ere, badiatik gertuago zeuden beste oinetxe batzuk daude. Horien artean San Matet dugu. Gaskoi kutsu argia duen toponimoa da: Samadet Landetako herria da, eta Baionatik 108 kilometrora dago.

Gure inguruetara etorri eta bertan ezarritako lehenengo abizenetako bat dela pentsatzen dugu, badien zehar izan zuen hedapena nahiko goiztiarra baita. XV. mende erdialdean jada, Donibanen dago. 1498an Iohan Sant Mateteko dugu, 40 urteko donibandarra. Berak esandakoez ez digute datu askorik ematen, ez behintzat bere abizen bereko arbasoek Donibane-San Pedro-Trintxer inguruekin izan zezaketen harremanaren inguruan. Gure ustetan, gabezia honek abizen bereko baina komunitate ezberdinetan bizi ziren pertsonen arteko loturak zuzenak ez zirela adierazten du; alegia, ordurako hainbat adarretan banatutako abizena zela.

Hipotesi korapilatsua bada ere, hedakuntza hau XV. mendearen bigarren herenaren hasieran (1430 inguruan) hasitako prozesutzat har dezakegu. Donostiako udalbatzak 1442an egin zuen lursail baten lagapen-eskrituran, Pedro Samateteko Donostiako auzotar bezala ageri zaigu. Pertsona hau, gure ustetan, Maria Perez San Matetekoaren senar Pedro Sanz Ernialdekoa zen, ordurako San Matet abizena bere egin zuena, emaztearen oinetxeak inguruetan zuen garrantzia islatuz⁶². Maria dokumentatua dugun lehenengo etxeko andrea da, alegia, ondasuna bere gurasoengandik jaso zuen. Horri, lehen aipatu dugun bere biloba Maria Santxez 1454 urte inguruan jaio zela gehitzen badiogu, San Matet etxeko lehenengo jaunak (Maria Perezen gurasoak) XIV. mendearen amaieran kokatu beharko genituzke. Ondorioz, 1442rako etxea finkatua zegoen eta Ernialdek etxearen izena bere abizen moduan hartzea

60. 1498ko lekukotzaren arabera (ARChV. Pleitos Civiles. Fernando Alonso, Fenecidos, 1332-1, 29 au. eta hh.) Litekeena, 1524an hilda zegoen Perote Arnaobidaokoa izatea, Mateo Artzak-Arnaobidaokoaren semea eta Anton eta Loperen anaia. Lizasok jasotzen ez duen adar honen inguruan, ald. GAO-AGG, CO MCI 69.

61. ARChV. Pleitos Civiles. Quevedo, Fenecidos, 1349-2.

62. ARChV. Pleitos Civiles. Lapuerta, Fenecidos, 1597-1.

oinetxearen garrantzia islatuko luke. Garrantzia hau nola lortu zuen jakitea ez da zaila: inguruetan kokatu ziren lehenengo biztanleen jabetza izaki, finkapen goiztiar honek hainbat lur eta ondasunez osatutako etxea izatea posible egin zuen⁶³.

XV. mende amaierarako San Matet oinetxea eta bere jabetzek nola-baiteko nortasuna zutela isla dezakeen adibide bat, Donostiak San Pedroko biztanleei 80ko hamarkadan eginiko salmentetan dugu. 1497-98 urteetan eman zen auzian, 60 urte zituen Lope Lexarra eta Lizarragakoa sanpedrotarrak, saldutako lur horiek non zeuden adierazterakoan zera zioen: “*auían fecho comprar el término e suelos que estauan por las espaldas de las casas del dicho lugar desde cerca de la talaya fasta cerca de la casería de Sant Matet, que está en entrando en el dicho lugar*”.

Alegia, etxe horrek lurraldetasunean oinarritutako erreferentzia bat osatzen zuela, eskualdeko lursail eremu zabalak bere jabetzen artean egongo baitziren. Horrek erakutsiko luke San Matet eta Trintxer San Pedro inguruen populatzea baino lehenago kokatu ziren familia batzuek sortutako oinetxeak zirela eta beraien finkapenak beste dinamika bati erantzun ziela. Adibiderik esanguratsuenak San Matet etxeko jaun-andre titulua hainbatetan aipatzen dela da, oraindik ere XVI. mende hasieran⁶⁴. Ez ziren, beraz, salbioan edo itsas-ertzean bizi ziren marinelek zituzten etxe xume eta elkarbanatutakoetan bizi. Dena den, oinetxe sendo eta ikusgarria baino, inguruan zeuden etxeekin alderatuta hainbat lur zituen eta ustiapen unitate garrantzitsua zen azpiegitura batean pentsatu behar dugula, XVI. mende erdialdean Idiazkeztarrek dorretxe bihurtu bazuten ere⁶⁵.

63. San Matet abizena XVI. mende hasieran Erreteriarra pasako da. Juan Samatetekoa, 1492 urte inguruan jaiotako pasaitarra, hiribildu horretako auzotarra izango baita 1526 urtean. Bitxikeria bezala, 1528ko inkestan 1468an jaiotako Pedro de La Carbonerak San Juan judutarrak Mikela San Matetekoaren alabarekin ezkondata zegoela zioen, baina berarekin oraindik ez zuela ondorengorik. ORELLA UNZUÉ, J. L.: *Las raíces de la Hidalguía...*, aip. lan., 92 orr.

64. ARChV. Pleitos Civiles. Lapuerta, Fenecidos, 1597-1 eta AHPZ. Híjar. P/I-147-2-1. Sanpedrotarrek 1457ko abenduan Donostiako eliz-kabilduarekin eliza berriaren eraikuntzaren inguruko akordioak hitzartzeko ematen zuten ahalordean, Juan Sarastikoa zen beraien ordezkari izendatu zutenetako bat, gure ustetan San Matet etxeko jaun zena. IRIXOA CORTÉS, I.: *Documentación medieval de los archivos municipales de Lezo (1470) y Pasaia (1361-1520)* (prentsan), 19. dok.

65. Trintxerekin batera inguruko lurraldetasun-erreferentzia zena. 1492an Amador Cotilloskoari eman zitzaion lurren dohaintzan ikus dezakegu, hauen zati batek, “las tierras de nos, el dicho conçejo e de la casa de Trencher e de Samated e de Graçia Peres de Oquendo e de la madre de Andriv” izenekoeekin muga egiten baitzuen (AHPZ. Híjar. P/I-147-2-41). Alegia, lur batzuek jabeen izena bazuten, Trintxer eta San Mateten kasuetan, etxearen izena jasotzen zuten. Bestalde, eta abeltzaintza eta nekazaritza jardueren adibide berantiarra bada ere, Maria Gomez Olazabalgoak (Migel Otsoaren alaba) 1539an egin zituen ondasunen inbentarioa azpimarratu behar dugu: ordurako Arnaobidao eta San Mateten jabe zen eta hala deskribatzen

Gaskoi kutsuko lehenengo abizen hauekin amaitzeko, XX. mendean berebiziko garrantzia izango duen gunearen aitzindari toponimikoari buruz hitz egin behar dugu, Trintxerri buruz alegia. Abizen hau, San Matetekin batera, San Pedro aldeko oinetxe nagusia bihurtuko da⁶⁶. Horren erakusle Juanes Txipreskoa altzatarren adibidea dugu: 1494 urte inguruan Katalina Trintxerkoarekin ezkonduko da eta honen ondorioz Txipres abizena bere senide politikoenagatik ordezkatzuko du, ordurako Trintxer abizenak nolabaiteko garrantzia zuelaren erakusle⁶⁷.

Alabaina, eta deigarria gerta badaiteke ere, sanpedrotarren zerrendarik zaharrenek, 1457-58 urteetakoek, ez digute abizen honen inguruan datu-rik ematen eta, beraz, elizaren eraikuntza bultzatu zutenen artean ez zaigu ageri. Hamarkada batzuk beranduago, aldiz, 1497an, bi Pedro Trintxerko ditugu San Pedroko auzotarren artean, horietako bat, 1452 urte inguruan jaiotako arrantzalea delarik; bestea, agian, bere aita. Biak Trintxer etxeko ondorengo edo oinordeko diren ala ez ez badakigu ere, abizena San Pedroko komunitatean XV. mendeko lehen herenaren amaiera inguruan koka dezakegula adierazten digute, gune hori eskuratzen ari zen garrantziaren adierazle. Lehenagoko agerpenik topatu ez badugu, agian bere ustiapena nekazaritza eta abeltzaintzara bideratua zegoelako da eta ondorioz, kantauri itsasertzetik iristen ari ziren itsasoari lotutako familiekin ageriko loturatik ez zuelako⁶⁸. Denborak aurrera egin ahala, baina, abizen hau bokalean finkatzen hasiko da eta beste aldera egingo du salto: hala, 1520ean, Sebastiana Trintxerrekoa Donibanen ikusteko aukera izango dugu⁶⁹.

...

zituen: “yten más, ençima, el Pasaje de la parte de la dicha villa de San Sebastián vna torre con sus lagares y dos mill pies de mançanos e con sus castañales e montes e tierras de pacer ganado que por su nonbre son conoçidos e llamados San Matet. (...) Yten, vna casería con sus tierras e mançanales e montes e tierras para ganado entre la dicha villa de San Sebastián e el Pasaje nonbrada e llamada Arnaot Bidao por este nonbre con sus pertenencias” (AHPZ. Híjar, P/2-16-13). Horrez gain, badakigu Arnaobidaon 4 behi eta 30 ardi zituela eta San Mateten aldiz, 40 ardi (AHPZ. Híjar, P/2-16-14).

66. Lope Martínez Isastikoak oso berri esanguratsuak jasotzen ditu San Pedro aldeko oinetxeen inguruan hitz egiterakoan. Ikus, supra 52 oharra.

67. GAO-AGG, CO MCI 68.

68. Trintxer etxeari buruzko XVI. mende hasierako datuek ez dute gai hau asko argitzen. Badakigu 1487-90 urte inguruan Trintxer etxeko banaketa egin zenean, erdia Navarrina Trintxerrekoari egokitu zitzaiola eta beste erdia, berriz, Pedro eta Martin bere anaiei. Ez dakigu, ordea, Pedro hau orain aipatu dugunetako bat zen ala ez. Baliteke San Pedron bizi zen Pedrorik zaharrena lehenengo Trintxer etxeko jaunen seme izatea eta premu ez zenez, bertara bizitzera joatea. Edonola ere, Trintxer etxea XV. mendeko hasierako urteetan finkatua zegoela uste dugu. Trintxer etxearen inguruan, ikus GAO-AGG, CO MCI 68.

69. IRIXOA CORTÉS, I.: *Documentación...*, aip. lan., 103. dok.

Laburbilduz, zera esan dezakegu: Trintxer eta San Matet ez datozela bat 1397tik aurrerako prozesuarekin, hamarkada batzuk lehenago gertatutakoarekin baizik. Hau da, Altzan finkatu ziren gaskoi familia horietako batzuk izan zirela, baina uretatik gertuago kokatu zirenak. Hamarkada gutxiren buruan, inguru horretan eraldaketa etorriko da, Donostiak San Pedro inguruak populatzeko ekimen berri eta sakon bati lekua eman baitzion 1397 inguruan.

3.3. XIV. mende amaiera-XV. mende hasiera: etorkinen garaia

a) San Pedroko populazioa

1498rako, hainbat altzatarren buruan San Pedroko populatzea duela gutxi gertatutako prozesua zen. Harrigarria bada ere, Donostiak egindako frogaketa luze batean beraiek dira oroitzapen hori duten bakarrak; bertan adierazpenak egiten dituzten donibandar edo sanpedrotarrek, berriz, ez dute horren inguruan argitasun askorik ematen. 1438 inguruan jaiotako Migel Errekaldekoa altzatarrak, Donostia eta inguruko adinekoei entzunda zien San Pedro hainbat urte lehenago populatu zela. 1443an jaiotako Juanot Berrakoak aldiz, honakoa zioen:

“ha oydo desyr a algunos viejos e ançianos, vesinos de la dicha tyerra de Alça, deziendo que ellos auían oydo desyr a otros viejos que auían visto *que en el dicho logar del Pasaje non auía synon çinco o seys casas*, seyendo común opinión de todos en sus comarcas que hera logar que se auía poblado de poco tyempo acá”⁷⁰.

Martin Casareskoa da lekukotza hauen guztien artean lorratz edo datu zehatz gehien ematen diguna. 1452 urte inguruan jaioa zen eta honakoa adierazten zuen:

“oyó desir a Miqueo, su abuelo, que hera onbre de fasta ochenta e dos annos quando fallesció, e que puede aver fasta treynta e çinco annos poco más o menos tienpo que fallesció, *qu’él auía visto cómo en el dicho logar del Pasage non auía synon syete casas* e avnque ha visto que de los dichos treynta annos a esta parte que este testigo se acuerda se han fecho e hedyficado en el dicho logar fasta veynte casas, poco más o menos, e la terçia parte de las huertas que ay en él, algunas de las quales podría mostrar...”⁷¹.

Datu horien arabera, bere aitona 1378an jaio eta 1463an hil zen. Lekukotzen dinamikak aintzat hartuz, galderei erantzuten dieten pertsonak 15-20 bat urterekin dituzte lekuekiko lehen oroitzapenak; ondorioz, Martinek esandakoan oinarrituz, 1398 urte inguruan oraindik etxe gutxi batzuk zeu-

70. ARChV. Pleitos Civiles. Fernando Alonso, Fenecidos, 1331-1, CCC LXXII au. fol.

71. Ibidem, CCCC LVIII fol.

den; ditugun datuekin bat datorrena. Beraz, hurrengo hamarkadetan emango zen San Pedron populazio hazkunderik nabarmenena.

Prozesu horretan parte hartu zuten pertsona ugari ez ziren ez gipuzkoarrek eta ezta euskaldunak ere; aitzitik, horietako kopuru nabarmen bat euskal probintzietatik haratago etorritako jendeak osatzen zuen. Hortaz, beste galdera bati erantzun behar diogu: nork populatu zuen San Pedro XIV. mende amaiera eta XV. mende hasieran? Alegia, zein lekutatik etorri zen jende hori?

Horretarako, 1528ko espedientea hartu behar dugu. Lekukotzen artean, Simon Villaviciosakoa donibandarrarenak lehenengo datu bat ematen digu biztanle horien jatorriari buruz. Berak zioenaren arabera, 1468 urte inguruan jaioa zen. Gurasoak eta aiton-amonak pasaitarrak zituen, baina birraitona aldiz, ez. Hau Asturiasko Villaviciosa herrikoa zen. Berau da, XVI. mende hasieran mende luze bat lehenago emandako prozesuaren adibiderik zehatzena. Oso fidagarria den ala ez neurtzeko, frogaketa horren helburua zein den pentsatu behar dugu, eta honek zuzeneko zerikusia du pertsona ezberdinen jatorriarekin. Simonek esandakoek beraz, ez dute zertan gezurra izan behar, bere adierazpenek ondorioen bat izango balute ez lukeelako bere jatorri asturiarraren inguruan ezer esango; aitzitik, hiru belaunaldira atzeratuko zukeen familiaren jatorria (alegia, bere aiton-amonetaraino), eta birraitonak ez lituzke aipatu ere egingo; Martin Gayangosekoak egiten zuen antzera⁷². Martin Ieroakoak, adibidez, gurasoak eta aiton-amonak Ieroa leinutik zetozela zioen, “*que era en Pasaje, de los yjosdalgo d’ellos*”. Hala, eta hipotesi arriskutsua bada ere, belaunaldien urtean 25 urteko epea hartuz, Simonen aita 1443 urte inguruan jaio zela uste dugu; aitona, aldiz, 1418 urte inguruan; azkenik, birraitona, XIV. mende amaieran. Villaviciosa adar hau, ondorioz, 1415 urte inguruan Pasaiara heldu zelakoan gaude.

1528ko inkesta baino ia 50 urte beranduago, 1577ko Villaviciosatarren aitonsemetza frogan, lekukoek beste horrenbeste zioten. Donibandarrek bertan finkatu ziren hasierako biztanleak Asturias aldetik etorriak zirela zioten, inolako beldurrik gabe. 80 urteko Migel Londreskoa kapitain sanpedrotarrak argi adierazten zuen: “*que de los primeros fundadores d’ellos fueron d’ellos [Villaviciosa] y los Llastres, que benyeron de las Asturias e de Rybadeseella*”.

72. Martin 1458 urte inguruan jaio zen eta guraso eta aiton-amonak pasaitarrak zituela zioen. Belaunaldien arteko batz bestekoa hogeita bost urtetan jarriz gero, aitona 1408 inguruan jaioko zen. Hau da, XV. mende hasierarako atzerritarren ondorengoak gurean jaioko zirela. Ondorioz, Donostiak egindako deialdiaren eraginez etorritako kantauri isurialdeko herritako pertsonak, 1397-1410 urte bitartean finkatzen hasiak ziren. Dena den, kontutan hartu behar dugu itsasaldeko euskal probintzietan ez ezik, Asturias eta Kantabrian ere aitonsemeen kopurua altua zela eta beraz, etorri zirenek horren jakitun zirela.

Hori bai, kanpotarrak baina kapareak zirela azpimarratuz; espedientearen helburua kontutan hartuz, beraz.

Kanpotik bazetozen ere, Villaviciosa leinuaren kaparetasuna frogatu nahi zuen prozesu horretan ez zen beraien loria, gizartean zuten pisua eta odol-loturen garrantzia azpimarratzeko aukera galtzen. Lekukoek zioten Martin Villaviciosakoak eta La Grandako jaun Rodrigo de Hevia de la Grandak ahaide gisako harremana zutela, eta “*solían ymbiar otras cossas e tenyan correspondençia los vnos con los otros, como deudos y parientes*”, beraien aurrekoek egiten zuten bezala. Hevia gainera, ez zen nolanhiko leinua: ikerlari batzuen hitzetan Asturiasko maiorazko nagusienetako bat ziren eta, besteak beste, Carlos V.ak beraien etxean osatu hartu zuen 1517an⁷³. La Grandako jaunen adibide bat Domingo Auztegikoak esandakoetan dugu. Azken honek 1537 urte inguruan Martin Villaviciosakoarekin Villaviciosara egin zuen bidaia, azken hau eraikitzen ari zen ontzirako beharrezkoak ziren korbotoi batzuen bila. Bere esanetan, hara iristean:

“vio que el señor de La Granda le hizo a Martín muy grande recibimiento y le abrazó llamándole pariente e le convydó a comer e vio que comyeron juntos llamándose y tratándose de parientes; y el citado señor dijo a los de Villaviciosa que le diesen todo lo que pidiese porque Martín era su pariente y dependiente”⁷⁴.

Villaviciosa abizena Pasai Donibanen horren ugaria izanik, bi hipotesi planteatu ditzakegu: batetik, guztiak familia bereko kideak izatea edo, guretzako askoz fidagarriagoa dena, esparru geografiko berdin batetik etorritako jendeari aipamena egitea⁷⁵. Hala, abizenak ez zuen nahi eta nahi ez zuzeneko odolkidetasuna adieraziko, guztiak herri edo zonalde beretik etorritakoak zirela baizik.

Ondorioz, argi dirudi badiako bokalean kokatuko ziren biztanleetako batzuk Asturias aldetik etorri zirela. 1577ko espedientearen agertutakoaren arabera, lau leku-izen azpimarra ditzakegu: Villaviciosa, Llanes, Llastres eta Ribadesella. Kantauri itsasaldeko herrietatik zetorren jendea izan zelaren lekuko, 1497-98 auziaren ildotik Donostiaren aurkako salaketak egin zituzten artean, horien buru ziren sanpedrotarren abizenak ikusi besterik ez dugu: besteak beste Juan Gayangosekoa, Juan de La Canal, Esteban Hozkoa eta Domingo Ribadeokoa.

73. Maiorazkoa, aldiz, 1521 urtean fundatu zuten. CONCHA GARCÍA-MAURIÑOS, C.: “El mayorazgo de la casa de Hevia”. In: *Boletín de la Academia Asturiana de Heráldica y Genealogía*, 7 (2001), 65-77 orr.

74. HUA, E-8-III-41-2.

75. IRIXOA CORTÉS, I.: *Pasaia: hastapenak...*, aip. lan.

Altzaren kasuan gaskoi jatorriko familien garrantzia azpimarratu den bezala, San Pedroko kasuan ere atzerritarren eragin nabariak hitz egin behar dugu. Donostiar zein gipuzkoar biztanleek hasieran izan zuten garrantzia ezaren arrazoiak ugariak izan daitezke. Lehenengo eta behin, XIV. mendeko krisiaren ondorioak: beherakada demografikoa dela eta, kanpoko jendea beharko zen populatze hori aurrera eramateko, jende gehienak hiribilduetara joko baitzuten. San Pedro inguruetako populatzea lehen bait lehen eraman beharreko prozesua litzateke eta, beraz, jendea leku hartara ahalik eta lasterren joatea funtsezkoa izango zen. Horrez gain, populatze prozesu honetan Errenteriaren papera ere kontutan hartzekoa da, hiribildu titulua baitzuen eta hortaz, inguruko zein Nafarroa iparraldeko biztanleentzako erakargarriagoa zatekeen sastrakaz beteriko San Pedroko gunea baino. Erraztasunak emanaz, Donostiak Errenteriaren garrantziaren handitzea ekiditeko pausoa eman zezakeen eta horretarako, Kantauri Itsasora begira zeuden hiribilduekin zegoen merkatal-harremana aprobetxatuz, edozein lekutatik etorritako jendea erabiliko zuen, kanpotarra izan ala ezari garrantzia handirik eman gabe⁷⁶.

Biztanleak finkatzeko proiektuan ekonomiarekin eta oinarrizko produktuen hornidurarekin lotutako jarduerak ere aintzat hartu ditzakegu. Altzatarekin bideratzen zituzten nekazaritza eta abeltzaintzaz gain, bertako sagardiek ekoiztutako sagardoak berebiziko garrantzia izan zuten, Donostiarekin horren inguruan 1450ean hitzarmen bat egiteraino. Dokumentu honetan ezarritako baldintzen artean, bazegoen oso esanguratsua zen bat: sanpedrotarrei, hauen ontziei eta atzerriko ontziei sagardo hornidura egiteko baimena ematen baitzitzaien. Alegia, honek islatzen du dagoeneko garai horretan itsasoarekin lotutako jarduerak nabarmen areagotu zirela 50 urte lehenago populatzen hasia zen gunean⁷⁷.

Altzako nekazal ustiapienak sagardo ekoizpena bermatzen baldin bazuen, San Pedroko arrantza baliabideak eskaintzen zituen. Hau izango litzateke Donostiak populatze horrekin bideñabar bilatuko lukeena. Hau oso argi gelditzen da urte gutxiren buruan sortuko den elizaren izenpekoan, San Pedro arrantzaleen patroia baita. XV. mende amaierako auzi famatuan ere, arrantzaren garrantzia hau ikusteko aukera izango dugu. Bertan, behin eta berriz sanpedrotarrek beraien arrantzua zuzenean Donostiara eraman behar dutela aipatzen dute, arrantzatutakoa lehenago Pasaian sartzea eta beraien etxeetan lehorreratzea debekatua zutelarik; halaber, ezin zuten bertan

76. Hiribilduen fundazioari lotua badago ere, ald. RUIZ DE LA PEÑA, J. I., aip. lan., 162-163 orr.

77. BANÚS Y AGUIRRE, J. L.: *El Archivo Quemado. Inventarios antiguos del acervo documental de la M. N. y M. L. Ciudad de San Sebastián antes de la destrucción de 1813*. Donostia: Dr. Camino, 1986, 110 orr.

arraina lehortu eta ondu. Hiribilduen jarrera jauntxotiarren eredu bikaina dugu, baliabide ezberdinen ekoizpena kontrolatuz eta hirigunearen beharrak asetzeko neurriak hartuz.

Egile batzuen arabera, arrantzuaren ekoizpen handiagoa bilatzea XIV. mendeko krisiak eragindako ondorio latzei aurre egiteko modua zen; hala, Donostiak bere jurisdikziopean zegoen lurraldea erabiliko zuen oinarrizko beharrak asetzeko, eta behar zituen sagardoa edo arraina bezalako produktuen ekoizpena bermatzeko⁷⁸. XIV. mende erdialdean Izurri Beltzak sortutako populazioaren beherakadak inguruko jendea erabiltzea galaraziko zion. Gainera, San Pedroko populatzea hiribildu guztiak sortu ziren ondorengo garaian eman zen. Donostiaren kasuan hau garrantzitsua da, Oriok eta Usurbilek hiri-gutuna lortzea lur ugariaren galera ekarri baitzion; honek, ordura arte biztanleria eskasa zuen gunehori populatzeko interesa azalduko luke⁷⁹. Baina arrantza gehiago lortzearekin batera, San Pedroko populatze prozesuak badia kontrolatzeko aukera bikaina eskainiko zion Donostiarri; bereziki Errenteriarekin istiluak areagotzen zihozten heinean. Zonalde horren inguruan eskumen handiagoak ematen zizkioten epaiak lortzen ari zenez, garaipen juridiko horri forma fisikoa emateko aukera zen.

Hasitako taktikak arrakasta lortu zuen hamarkada gutxiren buruan. Hala, hainbat kantauriar herritako biztanleak izango ditugu Pasaia aldean beraien bizilekua era finkoan jartzen. Beraiek, inguruan eta euskal geografian jatorria izango dutenekin batera, komunitate sendo bat sortuko dute denbora gutxian. Izan ere, 1457an eliza propioa izateko proposamena eta nahia aurrera ateratzea eraketa prozesu horren mugarri oso adierazgarria da, Altzarekin ia 70 urte lehenenago gertatu bezala. Inguru horretan ez zegoen halako azpiegiturarik eta aurretik bertan bere bizitokia aurkitu zuen jendeak, XIV. mende amaieran sortutako Donibaneko elizara, 1390ean Altzako San Martzialera edo Errenteriara joaten zen. Baina urte gutxiren buruan behar erlijiosoak areagotu egin ziren.

78. LANDA IJURKO, I.; ETXEBESTE GONZALEZ, J. C.: “Altza XIV eta XV. mendeetan”, aip. lan.; IDEM: “Altzako Erdi Aroa izenez izen”, aip. lan.; eta ZAPIRAIN KARRIKA, D.; eta MORA AFÁN, J. C.: “Altza...”, aip. lan., 538-540 orr., bereziki 7 oharra.

79. Susperraldi ekonomikoko garaietan, hiribilduen politika demografikoak inmigrazio korronteak mantentzeko balio izan zuen, eskaintza erakargarriak eginez. Ikus NAVARRO ESPINACH, G.; IGUAL LUIS, D.; eta APARICI MARTÍN, J., aip. lan., 190 orr.

I Taula: San Pedroko biztanleen jatorria (1457 inguru)⁸⁰

Kantauri itsasertza-Burgos		
Callao	1	
Camargo	1	
Cotillos	1	
Escalante	1	
Espinosa	1	
Gil	1	
La Canal	1	
La Grande	1	
Llanes	1	
Llastres	1	
Quexo	1	
Oreña ⁸¹	1	
Ribadesella	1	
Santander ⁸²	2	
Villaviciosa	1	
Guztira	16	%32
Hondarribia-Oarsoaldea		
Altzate	1	
Kornotz	4	
Igeldo	2	
Ieroa	1	
Laborda ⁸³	4	
Lazon	4	

80. Iturriak: IRIXOA CORTÉS, I.: *Documentación...*, aip. lan., 19. dok.; ARChV. Pleitos Civiles- Fernando Alonso, Fenecidos, 1331-1 eta GOÑI GAZTANBIDE, J.: “Fundación de la iglesia de San Pedro de Pasajes (1457-1458)”. In: *BEHSS*, 2 (1968), 2. eta 4. dok. (7-19). Estebania eta Juana izeneko emakumeek ere parte hartzen dute baina ez dira beraien abizenak aipatzen; lehenengoa Domingo Camargokoaren alarguna da eta bigarena berriz, Martin Labordakoa gaztearen alarguna. Bertan ere Martin Labordakoa “zaharra” eta “gaztea” hartu ditugu kontutan, 1458an zenduak bezala aipatzen direnak.

81. Oreña, San Vicente de la Barqueratik gertu dagoen toponimoa da. Ikus SOLÓRZANO TELECHEA, J. A.: “El fenómeno urbano medieval en Cantabria”. In: *Micromegas*, 3 (2002), 253 orr.(241-307). Koldo Mitxelena euskal abizentzat zuen, bere lehenengo irakurketak agerian utz dezakeenez (MICHELENA, L.: *Apellidos Vascos. Tercera edición, aumentada y corregida*. Donostia: Txertoa, 1983, 141 orr.). Alabaina, inguruan goiz xamar errepikatzen den abizena izaki, Kantabriako herriarekin lotu behar dugula uste dugu.

82. Ald. GOÑI GAZTANBIDE, J., aip. lan., zeinak Pedro Santanderkoa, “de la Fuente” ezizenaz ezagutua, “Pedro de Lander” bezala irakurtzen duen.

83. Hauetatik bi, Martin izeneko aita-semeak, 1457 ahalordean zenduak bezala aipatzen dira.

Kantauri itsasertza-Burgos		
Lizardi	1	
Lizarraga	1	
Guztira	17	%34
Gaskoinia-Donostia-Altza		
Fautes	1	
Igurrola	1	
Pollón	3	
Umiguer ⁸⁴	1	
Guztira	7	%14
Euskaldunak		
Almortza	1	
Andoain	1	
Hernani	1	
Lekeitio	1	
Sarasti	1	
Guztira	5	%10
Atzerritarrak		
Allen	4	%8
Ezezagunak		
Armero ⁸⁵	1	%2

Altzan bezala, San Pedroren izenpeko eliza eraikitzeke eskaera egiten duten pertsonen izen-abizenak ikusi baino ez dugu, jatorri aniztetako komunitate baten aurrean gaudela konturatzeko. Elizaren eraikuntzarekin zerikusia duen dokumentazioak San Pedroko biztanleriaren lehen datu zehatzak eta esanguratsuak eskainiko dizkigu. Jaso ditugun 50 pertsonetatik, jatorri toponimiko baten araberrako behin-behineko sailkapena **I taulan** ikus dezakegu.

Parte hartzen dutenen heren bat baino gehiagori Kantauri itsasaldeko kutsu argia darie, eta Allen abizena batzen badiegu, “atzerritar” itxurako abizenen portzentaia %40ra iristen da. Jatorri honetako horrenbeste biztanleren etorrira, euskaldunek XIII. mendetik garatu zituzten itsasoarekiko jardueren ondorio izango litzateke, arrantzua eta bale ehizarekin lotutakoak eta den-

84. J. Goñi Gaztanbidek “Dubnuguer” bezala irakurtzen du. “Amiguer” abizena XVI. mende erdialdean dokumentatua dugu, Martin Sanz “Amiguer”-koa izeneko auzotarra Donibaneko koperoen artean baitugu 1546ko irailaren 5ean (ikus IRIXOA CORTÉS, I.: *Pasaia...*, aip. lan., 126 orr.). Dena den, baliteke bi kasuetan eskribauaren akatsa izatea eta horren ordez “Landriquer” irakurri behar izatea.

85. Ald. GOÑI GAZTANBIDE, J., aip. lan. Hasieran “Camero” bezala irakurtzen du eta ondoren, “Armero”.

borarekin garatutako merkataritza eta garraioaren inguruak. Bi jarduera hauek euskaldunak hainbat lekutara bidaliko dituzte eta ondorioz, hor zeuden biztanleekin nolabaiteko harremanak izateko aukera emango die.

XV. mende erdirako arrantza sanpedrotarrren jarduera nagusia bazen, bertako biztanle ugari elizaren inguruko kudeaketak egin zirenean hortik kanpo zeudela pentsa daiteke. Hori dela eta, 1456-58 urteetako dokumentuez gain, informazio gehiago ematen diguten beste iturri dokumental batzuk erabili behar ditugu. Hasteko, urte horietara arte sortutako idatziak.

XV. mendearen lehen erdialdeko hiru eskritura ditugu. 1423an, on Juan Villabonakoak Pedro Idiazabalgoari eta Joaneta Mirasungoari Pasaian zituen etxe eta lursail batzuk saldu zizkien; ez dakigu, ordea, zein Pasaiari buruz ari den eta ezta eskrituran parte hartzen dutenak nongoak diren. Joanetaren abizenari erreparatuz, Altzan jarri dezakegu begirada. Horrez gain, eskritura mota dohaintza bat da, San Pedroko lurrekin behin eta berriz lotutako tipologia XV. mendean; horrek Donostiaren jurisdikziopeko gunean kokatutako lursaila dela pentsatu arazi dezake. Eskritura hau, ordea, Maria Martin Granadakoaren 1570eko testamentuan aipatzen da eta badakigu Granada-Idiazabal abizenak Erreterian jatorria zuela⁸⁶. Halaber, pertsona batek bereak diren lurren dohaintza egiten du eta ez Donostiako udalbatzak, zeinak San Pedro inguruetako lurren jabetza zuen. Halaber, 1455ean Juanes Idiazabalgoaren etxeak Donibanen zeudela badakigu eta beraz, abizenaren euskal kutsua ikusita, Donibanen kokatutako lurren dohaintzaren aurrean gaudela uste dugu⁸⁷.

1429an aldiz, San Pedro inguruei buruz dugun lehenengo eskritura dugu. Donostiako udalbatzak Pedro Cotilloskoa gaztearen alde egindako dohaintza-gutuna, hain zuzen ere. Beraz gain, bere izen bereko aita eta Sanzol Binagakoa aipatzen dira⁸⁸. Udalbatza eta lekukoen artean Hernani, Burbu edo Pollon bezalakoak ditugu, eta dokumentuan Donostiako auzotar bezala aipamena egiten bazaie ere, badakigu gerora abizen bereko hainbat pertsona gurean finkatuko direla⁸⁹. Horregatik San Pedroko biztanleak zirela uste dugu.

86. Ald. GPAG-AHPG, 3/2013, 37 au.-38 au. (2. foliazioa). Testamentuan aipatzen diren eskrituren inguruan, IRIJOA CORTÉS, I.; eta MARTÍN SÁNCHEZ, D.: *Erreteria XVI. mende hasieran...*, aip. lan.

87. Martin Gartzia Likonakoak etxe hauetan bere epaia eman zuen. Ikus IRIXOA CORTÉS, I.: *Documentación...*, aip. lan., 17 dok.

88. IRIXOA CORTÉS, I.: *Pasaia...*, aip. lan., 95 orr. Dokumentazioak Binaga, Abinaga eta Aginaga jasotzen ditu eta agian, 1497ko auzian Binaga eta Aginaga nahastu daitezke. Hiruek baina, toponimikoki jatorri ezberdina dute: Biñaga Burgosen dago eta Ibinaga, berriz, Bizkaian.

89. Burbu abizena, ustez etimologia euskaldunekoa da, baina bere esan nahi zehatza ezezaguna da. Badirudi Astigarraga inguruekin zerikusia duela. Gure artean XV. mende

II Taula: 1497. urtea jasotzen diren sanpedrotarren abizenak

Abizena	Pertsona kopurua	Abizena	Pertsona kopurua	Abizena	Pertsona kopurua
Aginaga (?)	1	Cotillos	5	Lizardi	2
Agirre,	1	Darieta	1	Lizarraga	4
Aindoain,	1	Eraso	1	Maduc	2
Alen ⁹⁰	1	Escalante	2	Muru	1
Altzate	2	Etxezarreta	1	Noguer	1
Andoain	1	Galbai	1	Olaiz	2
Aranburu	1	Gayangos	4	Olarain	1
Arantxipi	1	Goiatz	1	Olazabal	2
Arizabalo	4	Hernani	1	Hoz	5
Arizmendi	1	Huyas	1	Quexo	1
Arsu	5	Ieroa	1	Ribadeo	1
Ayet	1	Igeldo	2	Ribadesella	1
Baiona	1	Irria	1	Río	1
Baro	1	Isasa	2	San Matet	1
Baztan	1	Itsaso	2	San Vicente	1
Berrasoeta	1	Izagirre	2	Santander	2
Binaga	1	Laba	1	Sarasti	1
Burbu	2	Labao	1	Segura	1
Callaberro	1	Laborda	1	Talaia	1
Callao	2	Landriger	3	Trencher	2
La Canal	2	Larrea	1	Vergay	1
Carbonera	2	Larritain	1	Villaviciosa	1
Colardao	1	Leitza	1	Yerro	1
Colongas	1	Lerin	2	Yheo ⁹¹	1
Cornoz	1	Lesaka	1		

...

hasieratik ikus dezakegu: 1429an Anton Burbukoa dugu; 1497an, Esteban eta Juan Martin Burbukoak ditugu; Juanin Burbukoa 1502an; 1514an, berriz, Maria Perez Burbukoa eta Estebanen arreba Maria Bona. Ikus ARChV. Pleitos Civiles. Fernando Alonso, Fencidos, 1331-1 eta ARChV. Pleitos Civiles. Lapuerta, 1597-1.

90. 1497 baino lehenago zendua.

91. Ziurrenik Yeroa, Yerro, Yheo eta Yrria abizenetan “Ieroa” irakurri behar da, baina zalantzak ditugunez, nahiago dugu era bananduan jartzea.

Azkenik, Donostiako udalbatzak Juan de la Canal eta Elbira Barre-netxeakoa senar-emazteei egindako lur lagapena dugu, 1442koa. Hango biztanle bezala Marticot de Nogueer aipatzen da eta lekuko gisa Domingo de Camargo, Nikolas Kornozkoa eta Pedro San Matetekoa ageri zaizkigu. Hauen artean, 1457an ageri diren izen batzuk izango ditugu: Juan, Domingo eta Nikolas.

Hurbiltze hau amaitzeko, 1458an azaltzen zaizkigun sanpedrotar batzuen goitizenaz hitz egin behar dugu. Tomas Alengoa “*Samatel*” eta Mikeleto Lazongoa “*Pes*”-koak, gaskoi jatorrizkoetara bidaltzen gaituzte. Pedro Santanderkoak, aldiz, “*de la Fuente*” izango du ezizena, baina bere abizenak Kantabriarekiko loturaren adibide litzateke⁹².

XV. mende amaierako dokumentazioak populazioaren garapen hone-tan informazio zehatzagoa ematen digu. **II Taulak** populazio edo bertako biztanleen handitze nabarmena erakusten du, 40 urte lehenago emandakoaren aldean. Hazkunde honetan inguruetako biztanleek garrantzia nabarmen bat izango lukete, baita euskal kutsukoek ere. Hala Agirre, Aranburu, Arantxipi, Berrasoeta, Etxezarreta, Ieroa, Izagirre, Larrea edo Sarasti ditugu; tartean nafar jatorrikoak ikus daitezke, Altzate, Baztan, Leitza, Lesaka edo Lerin, besteak beste. Bestalde, Hondarribia-Oarsoaldeatik hainbat auzotar edo biztanle komunitate horietan finkatzea guztiz logikoa litzateke, eta badian zehar barreiatutako komunitateen arteko harreman estuak baieztatuko litzuzke.

Baina horiez gain, XV. mende amaierarako oso nabarmena da euskal eremutik haratagoko abizenen eragina. Batetik kantauri aldekoak: Callao, Escalante, La Canal, Camargo, Cotillos, Gayangos, Quexo, Ribadeo, Ribadesella, Santander, Hoz eta, nola ez, Villaviciosa bezalakoak⁹³. Haeuz gain, atzerritar kutsua dutenak ditugu, Alen, Galbai, Huyas eta Maduc, besteak beste⁹⁴.

Pentsa daitekeenez, gurean topatuko ditugun atzerritarrek logika bati erantzuten diote: Pasaiaiko portuak eta badiak eskuratu zuten garrantziaren eta europar merkataritzan zuten geldialdi edo iritsiera puntuaren isla dira. Atlantikotik eta Mediterraneotik hainbat merkatar, garraiolari zein mari-

92. Ezizenen inguruan, baina, datu gehiago izan beharko genituzke. Martin Asteasukoa donibandarrak, adibidez, “Camargo” ezizena du (GPAH-AHPG, 3/298, 13 au.-15 at. folk.; 1528ko urria).

93. San Vicente ere, hauen artean sartu beharko genukeela uste dugu, nahiz eta 1560ean, Pasaiaiko auzotar Martin San Bizentekoa, “ires” (irlandar) bezala aipatua izan. Ald. ARChV. Reales Ejecutorias, 974-22. “Colongas” abizenarekin ordea, zalantzak ditugu “Colunga” asturiarrari ala “Collongues” frantziarrari dagokion. Ziurrenik azken hau litzateke.

94. Galbairi dagokionez, eta 1566ko Donostiako erroldak ematen dituen datuak estrapolatuz, Galwaytik etorriko litzateke: “Genis de Galbai, irés”. GARCÍA DE VICUÑA OLAIZOLA, I., aip. lan., 103 orr. Halaber, 1574ko azaroaren 12, Anton Galbaykoari aitonsetmetza aurkeztu zezan eskatzen zitzaion. Ikus, MURUGARREN, L.: “Cuaderno de extractos de los acuerdos del Ayuntamiento de San Sebastián”. In: *BEHSS*, 30 (1996), 333-334 orr (291-504).

nel gure artean izango ziren; batzuk denbora luzez; gehienak, berriz, tarte laburrean. Egoera honek XVI. mende hasieran ere izango du bere eragina, aurreko mendetik zetorren dinamika eta testuinguru ekonomiko positiboaren olatuaren txanpa hartu baitzuen.

XIII. mendean zehar oso ongi ikus dezakegu kantauriar kostaldeko hiribildu ezberdinek izan zuten harremana. Lapurdi, Kantabria, Asturias zein Galizia aldean XII eta XIII. mendeetan zehar fundatu ziren hiribilduek, euskaldunekin batera, arrantza eta merkataritza jardueren bultzada ekarri zuten, beraien arteko hitzarmenek ondo islatzen duten bezala. XIII. mende hasieratik merkataritza zein arrantza loturak izaten hasi ziren atlantiar isurialdeko hainbat eta hainbat porturekin. 1237 urtean, Donostiako merkatariek Ingalaterra hegoaldeko Bost Portuekin merkataritzan aritzeko ibiltzeko baimena lortu zuten⁹⁵, eta mende horretan zehar izandako akordio eta errege-ekzkontzek harreman hori areagotuko dute.

Jerezko 1268ko Gorteetako ordenamenduak merkatalgaien garraioa egiteko baimenduak zeuden portuen artean Donostia eta Hondarribia aipatzeaz gain, gurean agertuko diren abizen toponimikoak jasoko ditu, hala nola, Santander, Ribadeo eta Noia. Ordurako batzuk hiribildu bezala hainbat hamarkadataro bititza zeramaten: Noiak berak 1168an ikusi zuen bere hiri gutuna, eta urte gutxi batzuen buruan, 1182an, Ribadeok; Llanesek, aldiz, 1225 urte inguruan; Villaviciosaren aitzindari Maliayo gunea, 1270 inguruan; eta azkenik, zehazki noiz ez badakigu ere, Ribadesella Alfontso X.ak fundatu zuen⁹⁶.

Halaber, nahiz eta bititza laburra izan, 1296ko Ermandadeak Kantabria eta Gipuzkoako hainbat porturen arteko lotura estutu zuelakoan gaude; izan ere, akordioan, Bermeo eta Gasteizez gain, Santander, Laredo eta Castro Urdialesek parte hartu zuten⁹⁷. 1297an, aldiz, Portugalgo merkatariei harrapatutako salgaiak eta ontziak bueltatzeko akordioan Santander, Laredo, Castro Urdiales, Hondarribia, Donostia eta A Coruña-ko hiribilduek parte hartu zuten⁹⁸. Era berean, 1404 eta 1407 urteetan, Kantauri isurialdeko hainbat hiri-

95. SOLÓRZANO TELECHEA, J. A.: “«Las Nereidas del Norte». Puertos e identidad urbana en la fachada cantábrica entre los siglos XII-XV”. In: *Anales de la Universidad de Alicante. Historia Medieval*, 16 (2009-2010), 47 orr. (39-61). Ikus baita RUIZ DE LA PEÑA SOLAR, J. I., aip. lan.

96. SOLÓRZANO TELECHEA, J. A.: “«Las Nereidas del Norte...””, aip. lan., 41-44 eta 46 orr.

97. MARTÍNEZ DÍEZ, G.; GONZÁLEZ DÍEZ, E.; eta MARTÍNEZ LLORENTE, F. J., aip. lan., 71 dok.

98. SOLÓRZANO TELECHEA, J. I.: “Santander, puerto atlántico medieval”. In: *Santander: Puerto, Historia, Territorio*. Bilbo: Autoridad Portuaria de Santander-Ediciones de la Universidad de Cantabria, 2011, 100-101 orr. (93-125) eta IDEM: “Santander y la construcción de Europa: Comercio y mercaderes en la Edad Media”. In: *Santander como ciudad europea: una larga historia*. Santander: Universidad de Cantabria, 2010, 47 orr. (38-66).

bilduk Gaskoiniako portu ingelesekin hitzarmenak sinatu zituzten merkatal harremanak arintzeko asmoz, tartean Mutriku, Deba, Zumaia, Getaria eta Donostiak⁹⁹.

Horrez gain, Santanderrek XV. mendean pairatutako garai txarrek eragina izan zezaketen inguruetakoa hainbat biztanleek Pasaiarako bidea egiteko. Badakigu, behintzat, hiribildu horrek XV. mende hasieran kanpo zein barne faktoreek eragindako krisia bizi izan zuela eta XV. mende amaieran, 1497 eta 1510 artean, kaporanzko bizitza ekonomikoak geldialdia izan zuela¹⁰⁰.

Era berean, ingeles, frantziar zein gaskoien presentzia nabaria da XIII. mendetik kantauri aldeko hainbat lekutan. Santanderko aduanan jasotzen zen hamarren zaharraren 1293-94ko erregistroak Frantzia, Ingalaterra eta Flandriako hainbat eta hainbat herri aipatzen ditu eta halaber, Kantabriako hiribilduetan atzerritarren aipamena argia da¹⁰¹.

Harreman hauen sakontasunak, komunitate ezberdinen artean elkar ulertzeko hizkuntza edo hiztegi propio bat sortu zuen. “Kai” hitza edo istinkarientzako “calafate” hitzei, XV. mende amaieran aipatzen den “trechar” aditza gehituko genioke guk¹⁰². Egia da gaztenaliaz azken honen berririk ez dugula (aztarna “trincar” hitzean izango genuke), baina asturieraz, galizieraz eta kantaurieraz halako hitza egon badago: galizieraz “zatitan txikitu” esan nahi badu, eta asturieraz gaztelaniazko “rajar” hitzaren sinonimoa da. Kantabria aldean, berriz, gure dokumentazioan ematen zaion esanahiarekin zerikusi zuzena du: alegia, arrainak ireki eta gatzitu, airetan lehortzeko, bereziki negu garaian kontsumitzeko helburuarekin¹⁰³.

Horrek ez du esan nahi San Pedroko prozesuan eskualdeko biztanleek nahiz beste lekutako euskaldunek parte hartu ez zutenik. Agerikoak dira

99. SOLÓRZANO TELECHEA, J. A.: “«Las Nereidas del Norte»...”, aip. lan., 48-49 orr.

100. IDEM: “Santander, puerto atlántico medieval”, aip. lan., 105-109 orr.

101. SOLÓRZANO, TELECHEA, J. A.: “Santander y la construcción de Europa...”, aip. lan., 47-49 orr. eta IDEM: “Santander, puerto atlántico medieval”, aip. lan., 101-102 orr. Garai honetarako oraindik, Kostaldeko Lau Hiribilduek monarkia gaztelarrentzako gipuzkoarrek baino garrantzia handiagoa zutela ikus daiteke; izan ere, hamarren zaharraren kopuruak ia bikoitzak dira horietan gure hiribilduetan baino. Ikus IDEM: “Santander, puerto atlántico medieval”, aip. lan., 104-105 orr.; IDEM: “«Las Nereidas del Norte»...”, aip. lan., 50-51 orr.; eta IDEM: “Santander y la construcción...”, aip. lan., 60-63 orr.

102. “asy mismo llieuan el pescado [sanpedrotarrek] a lo trechar e secar allá [Donostiara] porque tanpoco gelo han consentydo ni consienten traher ni adobar en el dicho lugar, de que asy mismo se les ha seguido e sygue asas trabajo e fatyga”. ARChV. Pleitos Civiles. Fernando Alonso, Fenecidos, 1332-1, 33 at. fol.

103. “Trehón” hitzarekin gatzitutako bisiguak garraiatzeko otarrari deitzen zaio. Guztirako, <http://www.palabrahabitada.com/toponimos/06/05/>. Frantsesez ere, “trancher” hitzak “ebaki” edo “xerratu” esan nahi du. Hiztegiaren inguruan eta atzerriko eraginaren inguruan, SOLÓRZANO, J. A.: “Santander, puerto atlántico medieval”, aip. lan., 121-125 orr.

Hondarribia eta Oarsoaldekoak. Halaber, XV. mendean zehar euskal eremuetako abizenak dituzten biztanleak ageriko zaizkigu, bereziki Nafarroatik datozenak eta, hein txikiago batean, bizkaitarrak. Horren adibide, tauletan azaltzen diren Altzate, Baztan, Bizkaia, Hernani, Leitza, Lekeitio, Lesaka edo Lerin bezalakoak¹⁰⁴.

b) Pasaí Donibaneko kasua: beste dinamika bat?

Garai honetan atzerritarren mugimendua Donostiak bere jurisdikzioko lurretan sustatutako ekimen bati erantzun zionez, San Pedro izango zen prozesuaren esparru nagusia. Baina Donibaneri buruz hitz egitea funtsezkoa iruditzen zaigu, parean dagoen beste komunitate bat baita, eta historian zehar bien arteko harremana agerikoa izan delako. Horregatik, Donibanen San Pedron gertatutako prozesuaren eragina zein izan zen, egon bazen, jakitea interesgarria deritzogu. Halaber, ez dugu ahaztu behar badiako bestaldean XII. mende amaieratik hainbat biztanle kokatu zirela, nahiz eta barrukalderago zegoen gunean izan, Lezon alegia.

Ikusiko dugunez, XV. mende amaierarako bi komunitateetako biztanleek uztartze prozesu bat ezagutuko dute, batetik bestera baitabilta. Erakunde politiko ezberdinen pean egonda ere, hurbiltasunak beraien arteko harremanak bultzatuko ditu. Gainera, Donostiak XV. mende amaieran San Pedrokekiko izan zuen jarrera gogorraren ondorioz, bertan kokatutako hainbat pertsona edo familia Donibanerako bidea egitea ez genuke baztertu behar; hemengo garapen ekonomikoaren eta Hondarribiak bertan ezartzen zituen baldintzak horren gogorrak ez zirelaren inguruan esaten zirenak aintzat hartzen badiugu, behintzat.

Zoritzarrez, garai honetan Donibaneri aipamena egiten dioten datu gutxi ditugu; San Pedron baino gutxiago. Bertan azaltzen diren abizenen artean Villaviciosatarrena da nabarmena. Baina zalantzak daude abizen honen jatorri zehatzari buruz. Dokumentatua dugun lehenengo pertsonetako bat Rodrigo Villaviciosakoa sanpedrotarra dugu, 1457an San Pedroko biztanle eta Donostiako auzotar dena. Hamarkada batzuk beranduago, 1478an, Fortuño Villaviciosakoa Donostiako errejidore karguan aritu zen. Ez dakigu, ordea, Pasaíako bi komunitateetan kokatutako leinu/familia bakar bati ala abizen bereko baina senidetan argirik gabeko pertsonen aurrean gauden. Dena den, abizena XV. mendearen azken laurdenean bi lekuetan aurkitzea nahiko adierazgarria da eta San Pedrotik haratagoko hedatze bat izan zuela

104. Nafarren kasua bereziki azpimarragarria da Erreterian. IRIJOA CORTÉS, I.; eta MARTIN SÁNCHEZ, D.: *Erretería a inicios...*, aip. lan. eta IDEM: *Erretería XVI. mende hasieran...*, aip. lan. Batzuetan ere, XVI. mendean dugun Iturain abizena Iturendik eratorria dela dirudi. Ald. NAO. Procesos 144306.

isla dezake. Villaviciosatarren kasua ez-ohiko adibidea baino, zabaldua zegoen prozesu bat delakoan gaude; hau da, beste hainbat abizenek lekualdatze edo hedatze mugimenduak izan zituztela.

Harrigarria bada ere, bildu ditugun datuekin kantauriarrek Donibanen izan zuten eragina horren nabaria izan zenik ez dirudi. Honen oinarrian prozesuaren nondik norakoa zegoen, izan ere XIV. mende amaierakoa San Pedrorra bideratutako populatze mugimendua zen. Halaber, 1457an oso argi ikusten da Donibane-Lezorekin lotura estua duten hainbat abizen Donostiako jurisdikziopean zeuden lur horietara joan zirela. Hau da, beraiek ere San Pedro inguruetarako bidea egin zutela. Honek adierazten du garai hartarako Hondarribiarenak ziren eremuetan San Pedron baino biztanle gehiago zudelako. Ondorioz, Pasai Donibanen beste prozesu batez hitz egin behar dugu, hamarkadak joan ahala kantauriar jatorriko hamaika abizen bertan kokatuko badira ere. Beraz, bokaleko bi komunitateen populatze prozesuak dinamika ezberdinei erantzun zien.

XVI. mende hasieran, Lezo abizena (besteak beste) oso ugaria da Donibanen. Horregatik, hemengo populazioaren finkatzea San Pedron baino lehenago hasi zela uste dugu. Oinarrian, itsas-jardueretan oinarritutako joera natural bati jarraitu zion, eta ez Hondarribiak sustatutako ekimen bati. XIV. mende erdialdean San Pedro inguruetan biztanle oso gutxi zeuden bitartean, Donibaneko egoera ezberdina zen. Ordurako hainbat familia kokatuak zeuden eta, ustez, 1366 urte inguruan Erriberako Donibane eliza fundatu zuten. Halaber, XV. mendearen erdialdean Kornotz, Eskiotz, Asteasu, Lizarraga, Isasti, Laborda, Lezo, Nabejas edota Gabiria bezalako abizenak dira nagusiak. Hauek Oarsoaldean kokatuta dauden oinetxe, etxe edo hainbat familia gogora ekartzen dizkigute, San Pedroko populatzearekin zerikusi gutxi dutenak. Donibanen erakutsiko duten nagusitasunak beste joera bat adieraziko luke: Lezoko komunitateaz gain, Oarsoaldean eta Bidasoan zehar kokatuta zeuden hainbat etxetako senideek bertarako bidea egin zutela, alegia. Noiz? Ziurrenik XIV. mende hasieratik aurrera.

Horrez gain, Donibaneren eraketari buruz oharkabea pasa diren datu batzuk daude. Tentuz hartu behar ditugu, 1623-1627 urte bitartean herri horrek Donostiarekin eliz-arloan izandako auziaren parte diren galdeketetan ageri baitira¹⁰⁵. Orain arte adierazitakoaren arabera, ohikoa da Donibaneko

105. Bere hustuketa eta transkribaketarako, ikus AZCONA, T. de: "Un pleito perdido por San Sebastián (1623-1627). Fundación de la Parroquia de Pasajes de San Juan y jurisdicción espiritual sobre la había". In: *BEHSS*, 11 (1977), 151-291 orr. Orain landuko dugunari buruz ikus, bereziki, 193 eta 249 orr. Guk geuk ere, datu hauek ez genituen Pasaiari buruzko lanean sartu. Ald. IRIXOA CORTÉS, I.: *Pasaia...*, aip. lan. XVI. mende erdira arte elizkabilo bateratua osatu bazuten ere, Donibaneko elizaren eraikuntza bi komunitateen arteko bereizte prozesu baten hasiera litzateke. Honen beste adibide bat 1512 urtea baino lehenago donibandarek, kofradia batean bilduta, urteroko herri-bazkariaren ospakizuna litzateke.

Erriberako eliza XIV. mende erdialdean eraiki zela esatea. Aipatutako auziak baina, informazio bitxia ematen digu. Izan ere, Erriberako eliza sortu baino lehenago, lekukotzek San Andresen zaindaritzapean zegoen bat zegoela adierazten dute:

“que por lo dicho tubo el dicho Pasaje en aquellos antiquísimos tiempos [San Leonek predikatzen zuenean] en que recibió la santa fee, su yglesia y parrochial (...) en la qual y en sus çimiterios enterraban los cuerpos de los difuntos en la primera parrochia suya de que ay fama en el dicho lugar, fue de la vocación del apóstol San Andrés, cuyas ruynas se ven el día de oy en un barrio alto, que es de los más antiguos del dicho lugar, llamado Churdin, subiendo a la borda de Cocolot, que fue uno de los primeros pobladores del dicho Pasaje, y según su nombre poco después del Dilubio unibersal...”¹⁰⁶.

Horrez gain, San Andresekoaren ondoren, Donibanek Errukitasun Guztiz Santuaren pean zegoen beste eliza izan zuen, orduan basilika txikia zena. Azkenik, zera adierazten zen, San Andresekoaren kokapenaren ondorioz eliza Lezora lekualdatu zutela, San Joan Batailatzailearen zaindaritzapean zegoen bat fundatuz¹⁰⁷.

Hitzez hitz hartu baino, honek guztiak adieraz diezagukeena zera da: XIV. mende erdialdean, San Pedron (eta Altzan?) populazio finkapena eman

106. AZCONA, T. de, aip. lan., 249 orr. Egia esan, auzi honetan egiten diren aipamenak salbu, ez dugu San Andres elizaren inguruan inolako berririk. “Cocolot” ezizena, baina, badugu dokumentatua XVI. mende hasierarako, izan ere Migel Asteasukoaren ezizena zen, 1523 urtean aipatzen den bezala (ARChV. Pleitos Civiles. Zarandona y Balboa, Fenecidos, 1510-2). Asteasu XV. mende erdialdean eta XVI. mende hasieran bitzitako donibandarra dugu, 1442 inguruan jaioa eta 1534an bizi zena (ald. EUA, C-5-I-1-7, 211 au. fol.). Donostiak bere eta beste hainbat donibandarren aurka auzia jarri zuen 1503 urte inguruan, gari kargamentu baten inguruko lurreratzea dela eta. Ikus ARChV. Reales Ejecutorias, 222-27.

1623-1627ko prozesuaren hitz bertsuak aipatzen dira Antonio Villaviciosakoa zenaren 1667ko ondasunen inbentarioan (GAO-AGG, CO MCI 2065): “dentro de la qual dicha mi tierra llamada ‘La borda de Cocolot’ y entre los robles que ay en ella, están sitios los çimientos y ruinas de la antiquísima casa solar llamada La Borda de Cocolot, la qual dio su nombre a las dichas tierras y es fama que la primera población del dicho lugar del Pasaje echa después del diluvio general, fue en aquella parte y que tubo su principio en la dicha casa solar de Cocolot y en otras que tubo cerca de ella, cuyas ruynas se ben el día de oy y parte de sus paredes en lo que es al presente la dicha huerta del piloto Esteuan de Ezpeleta; y en otras que al presente son huertas de particulares veçinos del dicho lugar, que dejaron de ser casas y hauitarse por hauerse trasladado la población del dicho Passaje junto a la mar del dicho puerto del dicho Passaje donde tiene su asiento y población de muchos años a esta parte”. San Andres elizari baina, ez zaio inolako aipamenik egiten. Ziurrenik, aipamen hauek Txurdin eta Txurrutaila inguruetan 1450ean eraiki ziren errotekin zerikusia izango dute, azpiegitura hauek berebiziko garrantzia izan baitzuten herriaren ekonomian.

107. “que por estar fundada la dicha parrochial de San Andrés en sitio alto muy bentoso y por ello desacomodado, los vezinos del dicho Pasaje trasladaron la dicha su parrochia al lugar de Lezo y con los vezinos d’él, fundaron la parrochia de San Juan Bautista en el dicho lugar de Leço...”. AZCONA, T. de, aip. lan., 249 orr.

baino lehen, Lezotik bokalera bidea egin zuten hainbat familiek Bizkaia eta Bonantzan bizileku berria topatu eta bertan finkatzen hasi zirela. Honen ondorioz, eta beraien kopuruak gora egitean sortutako behar berriak direla eta, XIV. mende amaieran eliza eraiki zuten¹⁰⁸. Komunitate honen garapena areagotu egin zen XV. mende erdialdean, San Pedron bezala. 1450 inguruan Txurrutailan errotak eraiki ziren eta horrez gain, 1455an Martin Gartzia Likonakoak eman zuen epaiak argi erakusten du bertako biztanleek izan zuten arrakasta, dokumentua bertan eraikiak zeuden hainbat etxeen handitzearen inguruan sortu ziren tirabiren ondorio baita. Ez litzateke baztertu behar San Pedroko komunitatearen arrakastak bokalearen bestaldean eragina izatea. Hau oso argia da XV. mende amaierarako, bi populazio-guneetan abizen berdinak ikusteko aukera baitugu. Baina donibandar horiek nortzuk ziren kontutan hartzen badugu, beste dinamika bat islatzen dela dirudi.

III Taula: Pasai Donibaneko hainbat biztanleen izen-abizenak (1450-1477)¹⁰⁹

Urtea	Pertsonak
1450	Olaizola, Pedro
1455	Berastegi, Miqueo
1455	Idiazabal, Juanes
	Estiron, Marota
	Igeldo, Martin Idiazabal, Marota
1460	Akorda, Migel
1471 i.	Arizabalo, Pedro
	Etxabe, Mingot
1477	Igeldo, Martin
	Alkiza, Pedro
	Villaviciosa, Migel
	Igeldo, Pedro (Martinen anaia)

108. Egile batzuen ustetan 1366koa. Lekukotzek, Altzako zein San Pedroko elizak eraiki baino lehen, hildakoak Lezon ehortzen zituztela zioten: “antes que se fundaran las dichas yglesias de San Marçal de Alça y San Pedro del Pasaje de la parte de San Sebastián, los vezinos de los dichos dos lugares, no solamente los muertos *ab intestato* y los aogados en el dicho puerto, sino tamuién los demás, se solían enterrar en la dicha parrochial de mis partes que entonçes estaba en Leço, y allá llebauan sus ofrendas y lo demás que se acostumbra por los difuntos” (AZCONA, T. de, aip. lan., 259 orr.).

109. Iturria: IRIXOA CORTÉS, I.: *Documentación...*, aip. lan., 16, 17, 22.dok. Olaizolaren emazteak “Maria Perez” izena zuela eta Migel Akordakoa bigarren senar izango duela badakigu ere, ez dugu bere abizenari buruzko daturik.

Dena den, ohartu behar dugu Donibaneko biztanle hauek nondik zetozen edo, hobe esanda, nongoak ziren jakiteko zailtasunak nabariak direla, datu gabezia dela eta. Lazon izenaren inguruan esandakoez gain, zoritxarrez, momentuz Donibaneri buruz 1300 eta 1460 artean ditugun eskriturek gure helburuetarako baliogarriak diren datu gutxi dituzte. **III taulan** ikus dezakegunez, biztanle gehienak euskaldunak dira eta Akorda, Arizabalo eta Idiazabal bezalakoek Oiartzun-Errenteriara eramaten gaituzte. Hala ere, salbuespenak badaude, hala nola, donostiar gaskoi jatorriko Estiron abizena edo Igeldo donostiar-hondarribiarra. Hauez gain, 1477an Migel Villaviciosakoa dugu, gure ustetan “*Pendón de Oro*” famatua.

Donibaneko komunitateak sortutako eta guregana iritsi den lehen dokumentuak hainbat lorratz eskaintzen dizkigu. Idatzia 1482koa da, herriak Martin Arteagakoa zumaiarraren alde sinatu zuen obligazio-gutun bat, hain zuzen ere¹¹⁰. Bertan honako auzotarrak azaltzen zaizkigu: Martin de la Lana, Migel Asteasukoa, Peruxe Gabiriakoa, Erramus Lizartzakoa, Juanot Arizabalokoa, Martin Altamirakoa eta on Santxo Sarastikoa; Donibaneko biztanle bezala, berriz, Juan Perez Gabiriakoa gaztea, Migel Nabejaskoa, Saubat Gabiriakoa eta Juanot Lizartzakoa. Alegia, La Lana, Altamira eta Nabejas ezik, beste guztiak euskal kutsuko abizenak dira, horietako batzuk, Arizabalo eta Akorda kasu, Oiartzunekin zerikusi zuzena dutenak¹¹¹.

Lope Martinez Isastikoak ematen dituen Donibaneko oinetxeen artean izen esanguratsuak daude, bai euskal edo Oarsoaldeko jatorriari dagokionez, baita kondairan txertatutako gaskoi kutsua dutenak: Arizabalo, Ubilla, Etxabe, Asteasu, Igeldo, Baro, Urgarte., Zabalaga, Zornotza, Santazelai, Arrieta eta abarrei, Platain, Nabejas, Callas (Callao?), Cocol, Cocolota, Txurdir, Talabota, Talaia, Pineda, Estiron, Escalante, Amadin edo Vincuda gehitzen zaizkie. Beste batzuk, aldiz, izen bera izan ala ez, inguruko hiribilduetan aurkituko dira, hala nola Hondarribiko Kornutz, Arsu, Alkiza, Laborda, Errenteriako Igeldo edo Akorda, Oiartzungo Arizabalo eta beste hainbat. Hauetako “etxe” batzuk Isastiren garaietan izango zuten sorrera, baina lerro hauetan ikusiko dugunez, beste hainbatek aurreko mendeetako biztanleetan dute jatorria¹¹².

110. Ibidem, 30 dok.

111. Gabiriak harreman hau badu ere, 1455ean Lezon Gabiria etxea dagoela dakigu. Lope Martinez Isastikoak bertan eta Donibanen kokatzen ditu izen bereko bi oinetxe. Halaber, egile honek Altamira oinetxea Oiartzunen dagoela dio. Horrez gain, ohartu behar dugu Arizabalo abizena San Pedron nahiko hedatua ikus dezakegula 1497rako. Nabejasi buruz, ald. MICHELENA, L., aip. lan., 132-133 orr.

112. Ikus, MARTÍNEZ DE ISASTI, L., aip. lan., 91 eta hh.

Donibaneren inguruko lehenengo aztarnak San Pedron Donostiak burututakoaren garaikideak dira¹¹³. Aipamen oso orokorrak badira ere, 1399an Gonzalo Morok emandako epaian ikus ditzakegu, Hondarribiako lurrak honakoak direla aipatzean: “*comenzava en la mar e viene a las casas de el Pasage que estava de la parte de Fuenterravía e dende, por el río arriva a la yglesia de Lezo e dende, por el río a la tierra e dende, a la casa de Gaviria e dende, a la de Darieta...*”¹¹⁴.

1450-1460 urte bitartera arte itxaron beharko dugu mugimendu sako-nagoak ikusteko, agian San Pedron eman zenaren eraginez. Urte horietan gainera, beste hainbat lekutako jendea aurkitzen dugu Donibanen, mutrikuar-rrak tartean. Eta ez da doakoa, izan ere, mutrikuarrek Pasaian ardo merkataritzaren inguruan egiten zituzten negozioak dokumentatuak ditugu¹¹⁵.

1453-1455ean Hondarribiaren eta Donostiaren artean eman ziren tira-biretan, Donibanen 7 etxe zeudela aipatzen da: Juanes Idiazabalgoa-Marota Estirongoa eta Martin Igeldokoa-Marota Idiazabalgoa bikoteek zituztenez gain, beste bost bat, gutxi gorabehera. Azken hauek besteak baino gorago zeuden, lehorrean eta itsasoa bustitzera iristen ez zen lurretan, Hondarribiko jurisdikzioa zen gunean, alegia. Dokumentuak beste hainbat datu ematen dizkigu, besteak beste etxeek 90 m² inguruko orubea betetzen zutela (18m luzeran x 4’95m zabaleran).

Horrez gain, eta Idiazabal abizenaren ildotik, baliteke Juanes eta Marota Pedro Idiazabalgoaren seme-alabak izatea. Azken hau Pasaian (Donibanen, ziurrenik) finkatu zela uste dugu, bertan erosi zituen lurren bitartez. Badakigu, lehen aipatu dugunez, on Juan Villabonakoak Pedro eta bere emazte Joaneta Mirasungoari Pasaian zeuden hainbat etxe eta lursail saldu zizkiela 1423an.

113. Are gehiago, 1453 urte inguruan jaiotako Martin Arrietakoa donibandarrak, “oyó desir a muchos de los viejos y añçianos del dicho lugar del Pasaje [bere aita Migel artean] que dezian que los que tenían las casas antiguas dende la plaça hasta Vizcaya, los avían avido de la villa de San Savastián e conpradas de algunos de los veçinos d’ella e que dende la dicha plaça avaxo, azia el bocal, las casas que al presente están fechas e los suelos que están entre ellos (...) save que los vbieron de la villa de Fuenterravía, del conçejo y regimiento”. ARChV. Pleitos Civiles. Zarandona y Balboa, Fenecidos, 1510-2, 56 au.-at. folk. Dakigunez, 1399ko epaiak ur gainean eraikitako etxeak Donostiaren jurisdikzioan eginda zeudela zioen eta ezagunak dira Donostiak eta Donibanek Aro Berri guztian zehar horien inguruan izan zituzten hamaika tirabirak.

114. LARRAÑAGA ZULUETA, M.; eta TAPIA RUBIO, I.: *Colección Documental del Archivo Municipal de Hondarribia. Tomo I (1186-1479)*. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1993, XXVI dok.

115. IRIXOA CORTÉS, I.: *Documentación...*, aip. lan., 16. dok. eta IRIJOA CORTÉS, I.; eta MARTÍN SÁNCHEZ, D.: *Errenteria a inicios...*, aip. lan.

IV Taula: 1400-1463 artean jaiotako hainbat donibandar¹¹⁶

Abuztegi, Martin	1447
Arbide, Martin Sanz	1453
Arizabalo, Juan	1454
Arizabalo, Juanin	1441
Arrieta, Migel	1425
Arrieta, Martin	1453
Asteasu, Martin	1438
Asteasu, Migel; “Cocolot”	1442
Escalante, Martin	1463
Gabiria, Fernando	1437
Igeldo, Martin Juan	1437
Igeldo, Roman	1448
La Lana, I. (Martinen aita)	1407
La Lana, Martin	1430
Lezo, Juango	1456
Muru, Juan Perez	1453
Nabejas, Juan	1473
Nabejas, Sebastian	1453
Olaitz, Juan Saez	Juan Martinez Lastolakoa erreteriararen osaba. Hau berarekin bizi da 20 urtez Pasaian.
Pikardia, Juan	Juan Sanz Pikardiaren aita (azken hau, 1491 inguru jaioa).
Pineda, Juanes	1463
Santiago, Esteban	1463
Texo, Alfonso	1433
Zelaeta, Estebania	1443
Zelaieta, Martin	1447-1451

116. Iturriak: ARChV. Pleitos Civiles. Zarandona y Balboa, Fenecidos, 1510-2; ARChV. Pleitos Civiles. Fernando Alonso, Fenecidos, 1330-1 eta 1331-1; OUA, C-4-3-2, 139 au.-206 at. folk. Datak gutxi gorabeherakoak dira. Badakigu 1497an Anton eta Marota Escalantekoek eta Mingot Landriggerkoak Molinaon sagardiak dituztela baina ez ditugu taulan jarri beraien jaiotza data ez dakigulako.

Lezori dagokionez berriz, 1470an Isue, Gabiria, Darieta eta Agirre bezalako toponimo eta pertsona abizenak ditugu eta ziurrenik, bertan ere Juan Mateo Eizagirrekoaren eta Bernardo Legarrakoa zenduaren etxeak zeuden. Horrez gain, Lezo, Araneder edo Sarasti bezalako abizenak XV. mendearen erdialdean ditugu¹¹⁷. Hainbat hamarkada lehenago, 1441ean, Isue etxeko jaun bezala Santxo eta Juana Ieroakoak agertzen zaizkigu eta gogoratu behar dugu abizen horrek (Ieroak, alegia), 1528an inguruko kapare nagusienetako bat edo Pasaiako lehenengoetako bat bezala aipatzen dela¹¹⁸. Datu urri hauen arabera, XV. mende erdialdean Donibane eta Lezo euskaldun kutsua duten abizenak gehiago direla edo, hobe esanda, San Pedron ikus ditzakegun eta horren adierazgarriak diren abizen atzerritarrak topatzen ez ditugula ondoriozta dezakegu, gerora egoerak aldaketa izango badu ere.

Donibane eta Lezoko egoera hau gaskoiek edo gaskoierak bertan izan duen (edo ikertzaile ezberdinek eman dioten) indarrarekin kontrajarria dago, onomastika aldetik, behintzat. Orain aurkeztu ditugun datu eskasen arabera, gaskoi kutsua duten abizenak urriagoak dira euskal jatorrikoak baino. Egoera hau nahiko zalantzarria da toponimiarekin alderatuta, “Legurça”, “Churrutalla”, “Port de Lazon”, “Port de la Borda” edo San Pedroko “cod de mastel” (Herrerako “Port de Plat”ekin batera) izenek adierazten duten bezala. Baina ohartu behar dugu lekuek izena hartzerako garaian prozesu ezberdinak gerta daitezkeela. Hasteko, horietako hainbat Hondarribia eta Donostiako gaskoien eraginez sortzea; hau da, bokalean bi komunitate finkatu baino lehenagoko toponimia batekin lotura izatea. Gaskoiek hiribilduak sortu aurretiko garaian zuten garrantzia aintzat hartuta, litekeena da badiako hainbat toponimo bokalean populazioa kokatu baino lehen sortzea. Beste era batera esanda, izen guztiak ez ziren garai berean sortuko. Gerta daiteke gaskoi kutsuko toponimo bat, Donostia fundatu zenean sortu ordez, handik hainbat mendera sortzea; hor dugu, adibidez, Gomistegi oinetxea.

Honek ez du esan nahi, eta nahi ez aurreko mendeetan bertan gaskoi edo atzerritarrik kokatu ez zenik. Lezo beraren izenak jatorri kanpotar hori islatzen duela ideia jakina da. Halaber, Hondarribia-Donostia-Getaria bide garrantzitsuan, badiak ainguraleku lehenetsiaren funtzioa beteko luke.

117. Ikus 1497-1498 auzian aurkeztutako auzotarrak (ARChV. Pleitos Civiles. Fernando Alonso, Fenecidos, 1330-1, 1331-1 eta 1332-1).

118. LARRAÑAGA ZULUETA, M.; eta TAPIA RUBIO, I., aip. lan., XXXIV eta XXXV. Lehenengo eskrituran Juan Migelez Lizarragakoari eta Apaiz-lartza otadiari aipamena egiten zaie. Gogoratu behar dugu azken leku izen hau Lope Martinez Isastikoak Lezoko oinetxeen artean kokatzen duela Lezoandia, Borda, Sarasti, Darieta, Juanmartindegui, Gabiria, Abendaño eta Isue berarekin batera. Ieroa oinetxea, aldiz, Oiartzunen aipatzen du Altamira, Arizabato eta Seinekin batera.

Gillermo de Lazon eta bere “bazkideen” kokatzea horren adierazle izan zitekeen. Finkapen honen bidez hiribildu garrantzitsuetako gaskoiak eta Oarsoaldeko euskaldunak harremanetan jarriko ziren, jarduera ezberdinak bultzatuz¹¹⁹. Datu faltak, ordea, baieztapen gehiago egitea zailtzen du.

Dena den, XV. mendean zehar Donibanen atzerritar kutsua duten abizenak ikusiko ditugu: Escalante, La Lana¹²⁰, Landriger, Pikardia, Nabejas, Texo eta Pineda. Horien artean Landriger izan daiteke finkapen goiztiarrena adieraz dezakeena, dagoeneko mende erdialdean dokumentatua baitugu. 1448an Donostiako San Bartolome komentuari Molinaoko errotaren erdia saldu ziona Esteban Landrigerkoa zen, Bizente Landrigerkoaren semea. Eskritura honetan Hondarribiko auzotar bezala ageri da, baina horrek ez du esan nahi Donibaneko biztanle ez zenik; aitzitik, sanpedrotarrak eta donibandarrak beraien hiribilduetako auzotar eta Pasaiako biztanle moduan azaltzen zaizkigu adibideak ohikoak dira¹²¹.

Ondorioz, hasiera batean Donibane inguruetan kokatu ziren biztanleak Lezotik eta inguruetatik bazetozen ere, San Pedroko populatzeak arrakasta eskuratu ahala, bi komunitateetako biztanleak harreman oso estuak izan zituzten eta batzuk zein besteek bi lekuetan izan zuten beraien bizilekua. Bokaleko komunitateen arrakasta 1585 inguruan dugu. Hondarribiko Artzapezak urte hartan egindako auzotar kopuruaren inguruko informazioa oso adierazgarria da Lezoren eta Pasai Donibaneraren arteko ezberdintasunean, eta halaber, azken honen arrakasta islatzen du: Lezok 80 auzotar dituen bitartean,

119. TENA GARCÍA, M.^a S., aip. lan., 276-277 orr. Egile honek, adibidez, Gillermo Lazongoari normandiar jatorria ematen dio. Bestalde, badago Gillermo Lazongoaren kokapena Uranzun (Irunen) kokatzen duenik. Hala balitz, populatze prozesua XII. mende amaieran edo XIII. mende hasieran kokatu ordez, XIV. mendearen lehen hamarkadetan kokatu beharko genuke. Honek, baina, ez du baztertzen Lezoko hainbat biztanlek Donibanera (eta planteatu dugun garaian) egingo zuten bidea. Aldaketarik nabarmenena, baina, populatze honen jatorrian emango litzateke: XII. mende amaieko gaskoiak izan ordez, Hondarribiatik etorritako hainbat auzotar izango lirateke. Populatze prozesu hau uste baino beranduago emateak ere azalduko luke inguruetakoko euskal abizenen presentzia nabarmena. Hipotesirako, ikus BARANDIARAN, J. A.: “Lezo herriaren sorrera. Errealitatea alaa zientzia-fikzioa?”. In: *Lezo*, 19 (1999), 14-16 orr. Beste hainbat egilek egindako ausnarketan inguruan, ikus ALBIZU, N.: “Los orígenes de Lezo”. In: *Lezo*, 6 (1991), 15-22 orr.; ZURUTUZA, L.: “Lezo eta Santiagoko Bidea”. In: *Lezo* 12 (1994), 11-13 orr.

120. Nahiz eta 1528an lekuko izan zen Migel La Lanakoa donibandarrak, 1477 urte inguruan jaioa, “es vezino y natural del Pasaje (de) padre e madre e de aguelo e visaguelo” bezala aitortu bere burua. ORELLA UNZUÉ, J. L.: *Las raíces de la Hidalguía...*, aip. lan.

121. Ald. LARRAÑAGA ZULUETA, M.; eta LEMA PUEYO, J. Á.: *Colección de Documentos Medievales del Convento de San Bartolomé (1250-1515)*. Donostia: Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1995, 55 dok., non “Landaguibel” bezala transkribatzen den. Litekeena da Donibaneko biztanleak izatea eta hauen ondorengo, 1497an aipatzen den Mingot Landrigerkoa donibandarra izatea.

Donibanek kopurua ia bikoiztu egiten du, 150 agertzen baitira (750 biztanle). San Pedrorako, aldiz, 100 aipatzen dira¹²².

c) XV. mende amaiera: mugikortasuna badian zehar

XV. mendearen azken laurdenerako, Donibane eta San Pedroren garapen ekonomiko eta demografikoa nabaria da, Errenteriarena berarena ahaztu gabe. Badiako biztanleen mugikortasuna nabarmen handitu da eta horren lekuko San Pedro eta Donostiaren artean eman zen auzi famatua dugu, 1497-1503 bitartekoa. Hau iturri dokumental garrantzitsua da eta zonalde horri buruzko datu ugari ematen ditu. Zoritxarrez, ordurako zailago zaigu Pasaiara duela gutxi gerturatu edo finkatutako atzerritarren inguruan hitz egitea; halaber, badiako komunitateen arteko harreman estuak agerian geratzen dira. Garai honetan, jada, bertan jaiotako atzerritarren bigarren edo hirugarren belaunaldien aurrean gaude. Milaka folioetan zehar ageri diren lekukoek San Pedro edo Donibaneko herritartzat dute beraien burua, dela biztanle moduan, dela auzotar moduan.

Badakigu leku batekoek zein bestekoek inbertsioak badiako beste puntu batzuetan egiten zituztela. 1498an Molinaotik gertu hainbat donibandarrak sagardiak zituztelaren datua oso aipagarria da. Eta halaber, 1470an zera aipatzen da:

“Otrosí, por quanto havemos seido certificados que algunas personas de la dicha villa de Fuenterrabía y su jurisdicción tienen algunas tierras y heredades y seles en los términos que son declarados por término e jurisdicción por las dichas Villanueva y tierra de Oyarzun e así vien, algunos vecinos e singulares personas de las dichas Villanueva y tierra de Oyarzun en los términos que son declarados por término e jurisdicción de la dicha villa de Fuenterrabía”¹²³.

Dokumentazioak adibide ugari ematen ditu bokaleko komunitateen ondoan kokatutako lurretan egindako inbertsioei buruz. Hau bereziki adierazgarria da Donibaneren kasuan, bertako biztanleak ez baitziren Lezo edo Errenteria inguruetan lurak eskuratzera mugatu, Altza edo Molinaora ere zabaldu ziren. Jabetzak barreiatuta izanda, ez da harritzekoa biztanleriak ere mugikortasun nabarmena erakustea. Batzuetan lekukoek beste batzuen adibideak ematen dituzte: Juan Isasakoa oreretarrak, adibidez, San Pedrotik Donibanera bidea egin zuen Amadin San Matetekoa aipatzen du¹²⁴. Baina

122. AZCONA, T. de, aip. lan., 164-165 orr. Hondarribiko jurisdikziorako datuak fidagarriak badira ere, Donostiaren kasuan ematen den informazioa nahiko zalantzarria da. Hiribilduak 50 auzotar dituela aipatzen da, Antiguak 25, Altzak 24 eta Igeldok, berriz, 30.

123. IRIXOA CORTÉS, I.: *Documentación...*, aip. lan., 87. dok. (PUA, 1665-4, 128 at.-129 au. folk).

124. OUA, C-4-3-2, 153 au., 176 at.

zeharkakoak diren datuez gain, 1497-1503ko auziak lekukoek beraiek ematen duten lehen mailako informazioa dugu. Izan ere, horietako asko lekualdatze horien protagonistak dira.

Hala, 1427 inguruan jaiotako Juan Hernanikoa oreretarrak 1461an San Pedrorra joan zela aitortzen zuen; bertan Pedro Alenekin bizi izan zen, 7 urtez¹²⁵. Pedro Etxezarretakoa (1453an jaioa), aldiz, 1484 urtean Erreterian dugu eta hemengo auzotar bezala ageri da 1498an. Hainbat urtetan San Pedron bizi izan zela dio, bertako auzotar batekin eta soldata baten truke; hau amaitu ondoren, ordea, beste hainbat denbora egin zuen San Pedron bizitzen. Antzeko kasua dugu Pedro Arriagakoarena: 1498an Erreteriariko auzotartzat du bere burua baina jatorriz pasaitarra dela dio (ziurrenik, sanpedrotarra), eta 1465 inguruan jaioa¹²⁶.

Esteban Arsukoa 1465 inguruan jaio zen San Pedron, eta bertakoak ziren bere guraso eta aiton-amonak. Han bizi izan zen 1505 urtera arte. Azken data honetan bere lehenengo emaztea hil egin zen eta Estebanek Donibanera bizitzera joatea erabaki zuen. Han jarraitzen zuen 1525 urtean, bertan bigarren aldiz ezkondu zelarik¹²⁷. Antzeko kasua dugu Alfonso del Texorekin; 1428 inguruan jaioa, 1498an Donibaneko auzotar bezala agertzen zaigu, baina bere hitzek bi komunitateen arteko mugikortasuna primeran islatzen dute, izan ere, duela 40 urtetik, 1458 urte ingurutik, alegia: *“ha biuido e biue en el dicho logar del Pasaje, asy por parte d’esta dicho tiempo en el dicho Pasaje de hacia Sant Sebastián como parte d’ello en el otro Pasaje de Fuenterrauía, a donde agora biue e es vezino”*.

Beste hainbat kasutan badiatik hiribilduetara egindako bidearen adibi-deak ditugu. Juanot Quexokoa 1452an San Pedron jaio zen baina 1496tik Donostiako auzotar da. Ildo beretik, Esteban Santiagokoa donostiarraren kasua aipa dezakegu. 1523an zera zioen:

“qu’es de hedad de sesenta años poco más o menos, (...) es natural del dicho lugar del Pasaje e naçió e vibió en él por tiempo y espacio de veynte y ocho años, e que puede aver treynta y dos anos poco más o menos que este testigo saleyo

125. Gogoratu behar dugu Juan Hernanikoa izeneko bat 1457an ageri zaigula San Pedroko auzotarren artean eta litekeena da orain aipatzen duguna izatea.

126. ARChV. Pleitos Civiles. Fernando Alonso, Fenecidos, 1330-1, CLXXX au.-CLXXXII au.; ARChV. Pleitos Civiles. Fernando Alonso, Fenecidos, 1332-1, 276 au. eta 127 at.-135 at.

127. “e en el dicho lugar vibió hasta agora veynte años, que se le fallestió la muger e pasó por casamiento al lugar del Pasaje de Fuenterrabía, donde al presente vive y mora con su muger...” (ARChV. Pleitos Civiles. Quevedo. Fenecidos, 1349-2, 217 at. fol.). Baditugu beste bi Esteban Arsukoak, bata 1410ean jaioa (ziurrenik Estebanen aita) eta beste bat, 1488an jaioa eta San Pedroko bikario dena (ARChV. Pleitos Civiles. Lapuerta, Fenecidos, 1597-1).

(sic) del lugar del Pasaje e se casó en la villa de San Sabastián, donde al presente dize que vive...¹²⁸.

1463 jaioa, 1491 inguruan joan zen Donostiara bizitzera, eta hemen ezkondu zen. Pasaitar bat baino gehiago hiribilduan auzotartua ikusteko parada izango dugu, Pedro Villaviciosakoa kasu, 1492an erregidore izendatu zena eta portuzain 1512an. Egoera berdinean dago Juan Santanderrekoa: 1425-28 inguruan San Pedron jaio, 1484-85ean Donostiara joan eta 1497an hemengo biztanle eta errejidore bezala ikusteko aukera dugu¹²⁹.

Hamarkadak igaro ahala, eta biztanleria finkatzen zihoan heinean, bi komunitateen arteko kontaktuak argiagoak izango dira. Hau dela eta, bi lekuetan abizen berdinak izango ditugu: Arizabalo, Lezo, Muru, San Matet eta Trintxer, besteak beste¹³⁰. Hori islatzen duen beste adibide bat Villavicioso da. Lehen aipatu bezala, lehenengo kideak San Pedron ikusiko ditugu, Migel “Pendón de Oro” famatua Donibanen agertu baino lehen.

Mugikortasun honek guztiak zailagoa egingo du hamarkada gutxi batzuk lehenago ikusten genituenen nondik norakoak jarraitzea edo nondik etorri eta non finkatu ziren jakitea. Eta halaber, zailtasun hau ondorengo urteetan azalduko zaizkigun abizen berrien jarraipena egiterako orduan izango dugu. Arazo hauek, ordea, ez dira beti agertzen. Hainbatetan atzerritarren nondik norakoak jakingo ditugu, bereziki Europatik datozenenak.

128. ARChV. Pleitos Civiles. Zarandona y Balboa, Fenecidos, 1510-2, 72 au-at. folk.

129. ARChV. Pleitos Civiles. Fernando Alonso, Fenecidos, 1330-1 eta IRIXOA CORTÉS, I.: *Pasaia...*, aip. lan., 99 orr.

130. Trintxerrerako aipamen gutxi baditugu ere, badakigu 1520an Donibaneko tabernari bat Sebastiana Trintxerrekoa zela, Maria izeneko alaba zuena. IRIXOA CORTÉS, I.: *Documentación...*, aip. lan., 103. dok. San Mateterako berriz, 1497an aipatzen da Amadin Samatetekoak San Pedrotik Donibanerako bidea egin zuela. ARChV. Pleitos Civiles. Alonso Rodríguez, Fenecidos, 1330-1, CXXXII at. fol.: “que después de çesó la guerra que tubo he dicho conçejo de San Sabastián sobre el dicho puerto del Pasaje con la dicha vylla de La Rentería e tyrra de Oyarçun, le tomaron a Amadin de Samatet, vesyno del Pasaje, vna tierra e mançanal que tenía en la juridiçión de la dicha vylla de San Sabastyán a cabsa que non dio çierta cuenta que avya de dar de çierto cargo que tubo del dicho puerto del Pasaje e *porque se pasó a la parte del Pasaje de Fuenterrabia...*”. 1545ean, abizena Donibanen eta Lezon ikusteko aukera izango dugu. LANDA IJURKO, I., aip. lan., 3 eranskin dokumentala. Horrez gain, badakigu Tomas Barcot II.aren emaztea Katalina San Matetekoak izan zela, 1549ko alargun zena. Ikus IRIJOA CORTÉS, I.; eta MARTÍN SÁNCHEZ, D.: *Errenteria a inicios...*; eta IRIJOA CORTÉS, I.; eta MARTÍN SÁNCHEZ, D.: *Errenteria XVI. mende hasieran...*, aip. lan. Pasai Donibaneko populazioak XVI. mendean zehar izan dezakeen konposaketa honen inguruan beste bi iturri bikain ditugu. Bata 1559an Donostiarekin egindako mugarritzea. Beste, 1589ko Donibaneko etxeen zerrenda. Ikus GAO-AGG, CO, MCI 374 eta IRIXOA CORTÉS, I.: *Pasaia...*, aip. lan., 38-40 orr.

3.4. *Merkatal dinamika eta europarren agerpena XVI. mende hasieran*

Orain arte Pasaiaiko bi komunitate horien sorrera eta finkapenean kanpotarrek izan zuten eragina eman dugu aditzera. Hau azaltzeko, Donostiak San Pedron bideratutako ekimena genuen arrazoi nagusi. Ondorengo paragrafoek beste esparru edo, hobe esanda, kronologia bat hartuko dute hizpide.

Agerikoa da Pasaiaiko badiaren historian atzerritarrek joan-etorrian egon badira, mugimendu hauek portuak itsas-jarduerak garatzeko izan duen garrantziari esker eman direla. Hau ez da XX. mendeko kontua, lehenagokoa baizik. Badiak nazioarteko itsas-merkataritzan zuen garrantziaren adibide moduan, behin baino gehiagotan jarri da 1475eko epaia gauzatu zuen gertakaria: donostiarrek, 1474an Pasaiaera garia eraman zuen eta bertatik burdinaz kargatuta atera zen itsasontzi ingeles bat harrapatu zutenekoa, hain zuzen ere¹³¹. Bestalde, San Pedrok 1497-1498 artean adierazi zituen kexuetan harategi propio baten gabezia azpimarratzen zuen. Egoera honek okel hornidura egokia galarazten zuen, bai sanpedrotarrentzat baina baita bertaratzen ziren atzerritarrentzat ere¹³². Halaber, Errenterriak eta Donostiak 1501ean izan zuten auzi bateko lekukotzek behin eta berriz halako baieztapenak egiten zituzten:

“a visto muchas vezes, en todo el dicho tiempo, *venir al dicho puerto del Pasaje muchos mercaderes yngleses e franceses e otros extrangeros de la Provincia de Guipúzcoa con trigo e ava e otras çeberas*, que trayan en naos e vaxeles”¹³³.

XV. mendearen azken laurdenetik, agerikoa da atzerritarrek badiara etengabe iristen zirela. Hala, hamarkada hauetan zehar kanpoko hainbat pertsona azalduko zaizkigu. Testuinguru honetan, agerikoa da hamaika lekutako pertsonak gurean egonaldiak egin zituztela. Orokorrean hauek denbora tarte txikikoak ziren, baina batzuetan luzatu egin ziren eta hainbat atzerritar gure artean bizitzen eta gizarteko esparruetan parte hartzen ikusteko aukera izango dugu.

131. IRIXOA CORTÉS, I.: *Pasaia...*, aip. lan., 47-48 orr. eta CRESPO RICO, M. Á.; CRUZ MUNDET, J. R.; eta GÓMEZ LAGO, J. M.: *Colección documental del Archivo Municipal de Rentería. Tomo II (1470-1500)*. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1997, 64. dok., 42 orr.: “por mandado del dicho conçejo de San Sebastián contra razón e justicia, fue tomada una nao ynglesa y llebada a la dicha villa, la qual abía benido cargada de trigo al dicho puerto, lo qual abían conprado çiertos vezinos de la dicha Villa Nueva e se abía cargado de fierro de la dicha villa”.

132. “e porque es público et notorio que teniendo la dicha liuertad [haragi hornidurari buruzkoa] se syguiriá mayor prouecho e vtilidad *asy a los veçinos e moradores del dicho logar como a los estranjeros qu'están te pasan por él*”. ARChV. Pleitos Civiles. Fernando Alonso, Fenecidos, 1332-1, 33 au.-at. folk.

133. OUA, C-4-3-2, 151 au.-at. folk.

Hau guztia harrigarria gerta dakiguke, batez ere euskaldunen aitonsemetza eta odol-garbitasuna mantentzeko saiakeretan pentsatzen badugu. Egia da XVI. mendeak aurrera egin ahala, eta Probintziaren egituraketa kapare, katoliko eta pribilegiatua bultzatzeko ekimenen ildotik, kanpotarren presentzia murriztuko dela; edo behintzat maila politikoetatik aldentuta mantentzeko nahia agerikoa izango dela, salbuespenak egon baziren ere. Baina merkataritzak eta testuinguru ekonomiko positiboak joan-etorri hori bultzatu zutela argi dago. 1527ko errege probisioak argi uzten zuen: “*la yspiriencia a mostrado por el concurso de las gentes estrannas que a esta Provincia han venido los tiempos pasados, entre los quales (...) ay muchos que no son hijosdalgo*”.

Ez ziren, beraz, judu eta mairuak bakarrik, kapare ez zen pertsona oro zen arau horren helburu. Eta adierazpen honek logika handia du, bereziki eliteen eta hiribilduko gobernu-organoetan areagotzen ari zen itxiera prozesuagatik. Pixkanaka udal hauteskundeetan hautesle edo hautetsi bezala parte hartzeko jartzen ari ziren baldintzak gogortzen ari ziren: ondasunak marai kopuru jakin batetik gorakoak izatez, hiribilduko harresiz barne bititzea, (gaztelaniaz) irakurtzen eta idazten jakitea eta, jakina, odol garbikoa izatea. Donostian, esaterako, 1511ko ordenantzek debekatu egiten zuten atzerritarrek udal-karguetan aritzea. Horregatik, ulergarria da 1528ko inkestan donostiarrek harresi barneko eremuan atzerritarrik ez zegoela adieraztea; gezurra bazen ere¹³⁴.

Gipuzkoar jatorri argia ez duten pertsonen aurkako erreakzioak mailakatuak izango dira. Lourdes Soriak pertsona horien aurrean bi garai ezberdintzen ditu: 1492-1531 urte bitartean kristau berrien, agoteen, mairuen eta judutarren inguruan neurriak hartu ziren¹³⁵. Egile gehienak ados daude lehengo neurri hauek izan zuten erlatibotasunaz; alegia, era eskasean aplikatu zirela. Egoera ekonomiko positiboak zerikusi handia izan zuen honetan. Nazioarteko merkataritza jarduera garrantzitsua zen, eta aberastasun iturri. Horregatik, atzerritarrek bertako gizarterako zerbitzu onak edota garapena

134. AZCONA, T. de: “El País Vasco durante la Guerra de las Comunidades. Aspectos referentes a la historia de Guipúzcoa”. In: *Historia del Pueblo Vasco*, 2. Donostia: Erein, 1979, 59-110 orr.

135. SORIA SESÉ, L., aip. lan.; ORELLA UNZUÉ, J. L.: *Las raíces de la Hidalguía...*, aip. lan., 376 orr. Jose Angel Achónek 1566. urtean Arrasatek egindako galdeketa eta errolda aipatzen ditu egituraketa kaparearen mugarri batzuk bezala; izan ere, jasotako informazioa urte hartako Batzar Nagusietek xedatutakoa betetzen zuten. Urte hartan ere, Donostiak beste horrenbeste egin zelako eta itxiera prozesuaren isla adierazgarria delako. ACHÓN INSAUSTI, J. A., aip. lan., 299 orr. Interesgarria litzateke 1530-60 hamarkada horietan jazotzen den prozesua aztertzea, Trentoko Kontzilioaren eta beste hainbat neurriren arteko loturak Gipuzkoako egituraketan garrantzia izango baitu: ezkontza ospakizunetan, umeei jarritako izenetan, emakumeen paperean, eta abar.

bermatzen zuten heinean, argi dago bertakoekin ez zutela arazo handiegirik izango¹³⁶.

Ezberdintasun bat topatuko dugu 1527ko dokumentuaren eta 1528ko inkestaren artean. Lehenengoan kapare ez zen atzerritar oro jo-puntua zen bitartean, bigarrenean mairu, judu eta kristaututakoen inguruko gaiak izango du garrantzia¹³⁷. Horiez gain, beste atzerritar asko zeudela aipatzen zen: agotak, beneziarrak, frantziarrak, galziarrak, gaztelarrak, irlandarrak edota lapurtarrak. Baina ez dirudi hauen guztien inguruan neurri esanguratsurik hartu zenik. Badian ez, behintzat. 1528ko gaiak judutarren ondorengo jakin batzuekin harreman zuzena du eta, beraz, aipatzen diren besteek beren horretan jarraitu zuten.

Izan ere, badiaren kasuan ongi frogatua dago inkestan judu edo mairuen ondorengo bezala agertzen zirenek, ez zutela arazo handirik izan ondorengo urteetan bizitza politiko zein ekonomikoan jarduera azpimarragarria izateko. Hor dugu Errenteriaren adibidea. Inkestan aipatzen diren judutarren ondorengo hiruzpalau pertsonak ia berdin-berdin jarraituko dute beraien bizitza egiten: hiribilduko bizitzan guztiz txertatuak zeuden eta horietako batzuk gainera, maila politikoan jarduten ziren. Hori da, besteak beste, Juan San Vitoreskoa errenteriarraren kasua, inkestaren arabera juduen ondorengo bezala aipatzen dena. Bere egoeraren berri bi datuk ematen digute: batetik, 1526an Probintziako errepartimendu-sutenaren biltzaileetako bat izan zela. Bestetik, adierazgarriagoa dena, 1539ko Hondarribiko Batzar Nagusietan hiribilduko ordezkari bezala parte hartu zuela¹³⁸. Alegia, Probintziako kargu politikoetan jardun zela, bai lehen eta baita ondoren ere.

Guretzako 1528ko inkesta iturri bikaina da, Donostiatik Hondarribira arteko esparruari buruzko datu ugari ematen dituelako. XV. mendetik aurrera,

136. “No obstante, las familias acusadas [1528an] no alcanzan el número de quince, lo que expresa con claridad los términos en que todo ello ha de ser comprendido”. GARCÍA FERNÁNDEZ, E., aip. lan., 164 orr. Are gehiago, maisu Juan mediku judutarrari geratzeko baimena eman zioten (ORELLA UNZUÉ, J. L.: “Una encuesta guipuzcoana de 1528...”, aip. lan., 379 orr.).

137. Ez da doakoa Arrasatek, urte horretan bertan egin zituen ordenantzetan adostutakoak. Odol garbikoak ez diren (mairu, judu eta kristautuei) debekua zuzena bada, kapare ez diren beste inguruan neurriak bestelakoak dira. Auzotartzea galarazten bazaie ere, bertan bizitzeko baimena dute, gobernu politikoan parte ez hartzeko baldintzarekin; alegia, “kaparetasunaren kontua, kontrol politikoaren baitan dago”. ACHÓN INSAUSTI, J. A., aip. lan., 298 orr. Alvaro Aragonen ustetan, XVI. mende erdialdetik aurrera agintari probintzialek atzerritarrekin zuten benetako arazoa kargu politikoaren jardunaren ingurukoa zen, udal gobernuak hori ekiditeko eman ziren probintzia-xedapenak zorrotasunez betetzen ez zituztelako. 1571tik aurrera, berriz, arazoa negozio kontuekin lotura zuen; zehazki, merkatal-oligarkia gipuzkoarrak bere negozioak mantentzearekin. Ikus ARAGÓN RUANO, A., aip. lan, 162, 164, 165, 167-171 eta 175 orr., besteak beste.

138. IRIJOA CORTÉS; eta MARTÍN SÁNCHEZ, D.: *Errenteria a inicios...*, aip. lan.; eta IDEM: *Errenteria XVI. mende hasieran...*, aip. lan. Zerga-biltzaile moduan, ikus Asteasuko Udal Artxiboa, E-6-III-203-1, 25 au. fol.

badiako komunitateen garapenaren baitan, beste hainbat lekutako pertsonak ikusteko aukera emango digu. Hauek ez dute aurreko mendean jazo zen prozesua islatuko, baina gurean atzerriko jendea joan-etorrian zebilela argi adierazten du; zalantzarik ez dugu hau guztia Pasaiako badiaren garapen ekonomikoaren zein dinamikaren isla izan zela. Halako jendea eskualdean ikustea baina, ez du zergatik gurean finkatuta dauden pertsonak direla esan nahi. Mugikortasun horrek ogibideetan du oinarri eta hauek batetik bestera ibiltzea behartuko die. Gure artean agertzeko arrazoia beste bat da eta, hasiera batean, ez dute auzotartze hori bilatuko. Ordurako, gainera, Donostiak ez du populazioaren finkapena bultzatuko.

Gainera, presioa oraindik ez zen oso larria. Lekukoen artean Thomas Barcot merkataria bristoldarra egoteaz gain, Donibane Garazin 1493 urte inguruan jaiotako Katalina Magdalenakoaren kasua horren adibide argia da. Katalina, lekukotzek agota bezala identifikatzen duten ehulea zen. Horrez gain, Katalina beraren hitzak oso esanguratsuak dira:

“Fue preguntada que dónde nació: dixo que en Navarra, en San Juan de Pie del Puerto.

Fue preguntada que cómo le lleavavan [sic] a su padre, e dixo que al padre le llamavan Sabaot e la madre, Marquesa.

Fue preguntada de qué generación los sus antepasados e su padre e madre venían: dixo que sus padre e madre de ella e sus antepasados venían de la casta e linaje de los agote, e por tales agotes fueron avidos e tenidos; y ella misma de los tales venida e procedida se tenía. Y ella confesava que en Sant Juan del Pie del Puerto fue preguntada dó fue nacida, dixo chispiana. Dixo que como fue nacida segund sus padres le dixieron y ella era chispiana y avía de ser mediante nuestro Sennor. (...)

Fue preguntada que sy su marido venía e procedía de los de la casta e linaje de los de agote: dixo que el dicho su marido venía e procedía de la dicha casa de los de agote porque el padre del dicho su marido, llamado Juanon, era de los del dicho agote”¹³⁹.

Alegia, agote izatearen beldur ez zela. Harrigarria gerta daiteke adierazpen hau etorkizunean hartuko diren erabakiekin: izan ere, hiru urte geroago Mutrikun bildutako Batzar Nagusiek, horiek kanporatzea adostu zuten. Argi dago, beraz, oraindik XVI. mendeko lehen herenaren amaieran, odolgarbitasuna frogatzeko ekimenak hiribilduetako alkateen esku zeuden bitartean eta Probintziak hartutako erabakiak zirenak zirela, atzerritarrek (eta kapare ez zirenek) nolabaiteko egoera positiboa bizi zutela¹⁴⁰.

139. ORELLA UNZUÉ, J. L.: *Las raíces de la Hidalguía...*, aip. lan., 89 orr.

140. “Las provisiones reales dirigidas a la Provincia de Guipúzcoa en 1510 y 1527 relacionadas con el control de los conversos son una muestra más del asentamiento de algunas

V Taula: Badiako populazioetan dauden atzerritarrak (1528)¹⁴¹

Izena	Jatorria	Datu osagarriak	Nongo biztanle
Gonzalo	Asturias ¹⁴²		Pasai San Pedro
Domingo	Frantzia	Harakina	Lezo
Capa (?)	Frantzia	Harakina	Lezo
Perotun	Frantzia	Harakina	Pasai Donibane
Joanes	Frantzia	Harakina	Pasai Donibane
Munjun	Frantzia	Harakina	Pasai Donibane
X	Frantzia	Harakina	Pasai Donibane
Martin Saez	Frantzia	Hargina	Pasai Donibane
Juanes	Frantzia	Ezpatagilea	Pasai Donibane
Rodrigo	Frantzia		Pasai San Pedro
Pascual / Pazko	Frantzia		Pasai San Pedro
Juanes San Martingoa	Frantzia		Pasai San Pedro
Juan	Frantzia		Pasai San Pedro
Pes	Frantzia		Pasai San Pedro
Ojer	Frantzia		Pasai San Pedro
Male	Frantzia		Pasai San Pedro
Pedro	Frantzia	Zapataria ¹⁴³	Pasai San Pedro
Frantzisko	Galizia		Pasai Donibane
Gonzalo	Galizia	Ezkonduta eta seme-alabekin	Pasai San Pedro
Gonzalo	Galizia		Pasai San Pedro
Jakue	Galizia		Pasai San Pedro
Pedro	Galizia		Pasai San Pedro

...

familias en el territorio” (GARCÍA FERNÁNDEZ, E., aip. lan., 163 orr.). Agoteen aurkako xedapenerako, ikus ORELLA UNZUÉ, J. L.: “Una encuesta guipuzcoana de 1528...”, aip. lan. 376 orr. Bestalde, espediente horretan esklabu izandakoak ere aipatzen dira. Zehazki, Sebastian Santanderkoak zuen Katalinota edota Maria Berlartekin bizi zena.

141. Iturrietarako, supra 2 oharra. Ohartu behar dugu bertan ez ditugula judu, mairu edo kristautu berri bezala aipatzen direnak. Halaber, litekeena da frantsesak bezala identifikatzen diren asko Iparraldekoak izatea.

142. Baliteke galiziarretako batekin nahastea. Izen bera izatea eta asturiar bezala behin bakarrik aipatua izatea hori adierazi lezake.

143. San Pedron bizi den beste frantziar batek harakin ogibidea du.

Izena	Jatorria	Datu osagarriak	Nongo biztanle
Juan ¹⁴⁴	Galizia	Talaian bizi da	Pasai San Pedro
Alonso	Galizia		Pasai San Pedro
Esteban ¹⁴⁵	Grezia		Pasai Donibane
Martin Corcamgoa	Irlanda ¹⁴⁶		Errenteria
Tomas	Irlanda		Pasai Donibane
Juan Corcamgoa	Irlanda		Pasai Donibane
Albino	Irlanda		Pasai Donibane
Simon	Irlanda		Pasai Donibane
Germin	Irlanda		Pasai Donibane
Taique	Irlanda		Pasai Donibane
Conogori	Irlanda		Pasai Donibane
Juan	Irlanda ¹⁴⁷		Pasai Donibane
Juan Corcamgoa	Irlanda	Ezkonduta	Pasai San Pedro
Juan	Irlanda	Ezkonduta	Pasai San Pedro
	Nafarroa	“asko”	Pasai Donibane
X	Portugal		Pasai Donibane
Luca	Venezia	Bi alaba ezkontuta	Pasai Donibane

Badiako komunitateei dagokienez, inkestak hainbat jatorri ezberdinetako jendea dagoela erakusten du. Baina harrigarria bada ere, XV. mende hasierako Kantauri itsasertzeko komunitateak gutxiengo dira. Hala, Asturiasetik ordezkari bakarra dugu; Kantabriatik bat bera ere ez. Galizia da jende gehienaren sorrera leku. Aipatzen diren zortzietatik, zazpi San Pedro dute bizitoki. Donostiaren ekimenak ez zituen bertako biztanle asko erakarri; oraingoan aldiz, badirudi joera hori alderantzikatu egin dela. Horietako bat talaiaria izanik, galiziarren etorrera bale ehizarekin lotu daiteke edo, behintzat, euskaldunek Asturias eta Galizia aldean egiten zuten arrantza jarduerarekin. Aipatzen

144. 1498an jaiotako Luisa Marieluskoz Juan Gallegoren emaztea da (ARChV. Pleitos Civiles. Lapuerta, Fenecidos. 1597-1, 145 au. fol.).

145. Juan Asteasuangoak greziararen izena ez du aipatzen, baina bai itsasoan dabilela (ORELLA UNZUÉ, J. L.: *Las raíces de la Hidalguía...*, aip. lan., 90 orr.).

146. Irlandako izen-abizenen inguruan, ikus HUXLEY, S.: “Los vascos y las pesquerías transatlánticas (1517-1713)”. In: *Itsasoa 3. El Mar de Euskalerría: La Naturaleza, el Hombre y su Historia*, 3: *Los vascos en el marco Atlántico Norte. Siglos XVI y XVII*. Donostia: Etor, 1987, 74 eta 76 orr. (27-164).

147. Lekuotzek 6 daudela diote eta horietatik 4, ezkontuta.

diren herrialdeen inguruan azalpen luzeagoak egingo baditugu ere, orain azpimarratu behar dugu Europako hainbat Koro edo Errepublikak ezberdinen menekoak azaltzen zaizkigula: frantziarrak (Iparraldekoak barne), irlandarrak, portugesak eta veneziarrak.

Inkestan aipatzen direnez gain, San Pedroko kasuan aurreko mendearekin egon zitezkeen abizen berrien agerpena garaiko hainbat auzietan ere ikus dezakegu. Horien artean, 1517-1525 artean Juana Gaztelu/Llastres eta Migel Arriaga arotzaren arteko auzia dugu, bertan San Pedroko hainbat etxetan bizi ziren pertsonak aipatzen baitira¹⁴⁸. Aurretik ditugun Arnaobidao, Arriaga, Ieroa, La Canal, La Carboera, Lizarraga, Llastres eta Texoz gain beste batzuk azalduko zaizkigu. Bertan aipatzen diren Auntzibai, Oiartzun, Oliver edo Urtubia, badiak eskuratu zuen garrantzia eta erakargarritasunaren adibide dira, beste behin ere. Martin Anuntzibai, adibidez, 1490 urte inguruan iritsi zen Pasaia.

Galiziar eta irlandarren ugaritasuna da ondorioz aipagarrienetako bat. Hauen gorakada arrantza jardueran oinarritu daiteke. Halakoak burutzeko kanpora joaten ziren pasaitarrek Irlanda, Ingalaterra, Britainia eta Frantzia kostaldeko hainbat punturekin harremana islatuko dute, eta ageriko zaizkigun abizen batzuk horren erakusle izango dira¹⁴⁹. Hainbatek egonaldiak egingo dituzte; beste batzuk, aldiz, gure artean auzotartuko dira. Hortaz, batetik bestera ibili ziren hainbat pertsona ageriko zaizkigu.

Halakoetan, dokumentazioak pertsona horien kokapen edo bizilekuaren inguruko informazioa ematen du. Guztiz finkatutakoak daudelaren adierazlerik garbiena eskualdeko guneren bateko “auzotar” direla da. Maila juridiko hori eskuratzea, edozein pertsonak populazio horretan finkatzeko asmoa erakusten du, komunitate horren zati izan nahi duela, eta hainbat eskubidez gozatzeaz gain, eskatzen zaizkion betebeharrak beteko dituela. Behin-behingo daudenetarako, aldiz, beste hainbat kontzeptu edo hitz erabiliko dira, hala nola “estante”, “residente” edo “morador”. Hauentzako ez da “auzo/auzotar” hitza erabiliko edo, ez behintzat, San Pedro, Donibane, Lezo, Donostia edo Hondarribiako auzotar. Halaber, askotan auzotartzearen ekintza, aurretik leku berean urte luzetan bizi izatearen ondorioa da. Hau da, pertsona horrek ez zuela iritsi eta berehala maila juridiko hori lortu; asmorik; are gehiago, hainbatetan, auzotartzeak urte batzutan leku edo eskualde berean bizitzearen ondorio dira, maila juridiko hori lortzeko baldintzen artean hori ezartzen zelako.

148. IRIXOA CORTÉS, I.: *Pasaia...*, aip. lan., 33 orr. eta, bereziki, ARChV. Pleitos Civiles. Quevedo. Fenecidos, 1349-2.

149. Honen inguruan, BARKHAM HUXLEY, M.: “La industria pesquera en el País Vasco peninsular al principio de la Edad Moderna: ¿una edad de oro?”. In: *Itsas Memoria*, 3 (2000), 29-75 orr. eta HUXLEY, S., aip. lan.

3.5. *Atzerritarren jatorria*

Lerro hauek garatzerako orduan pertsonen abizenetan jarri dugu begirada, horretarako nolabaiteko fidagarritasuna duen dokumentazioa dugulako. Hau agerikoa da urrunago dauden herrialdeekin. Baina beste behin ere ohartu behar dugu lantzen dugun kronologiak bi prozesu erakusten dituela: bata XIV-XV. mendeetan jasotakoa; bestea, aldiz, XV. mende amaieratik aurrera biziko dena eta aurreko fasean ikusten genituen ezaugarriak erakutsiko ez dituen.

XV. mende erdialdetik Europako egoera ekonomikoak hobera egitearekin batera, merkataritzaren hedapen garrantzitsua eman zen¹⁵⁰. Badiako biztanleak kontinentean zehar barreiatuta ikusiko ditugun bezala, gure artean hainbat lekutatik etorritako jendea ageriko da. Pasaiako badia ainguratze puntu garrantzitsua izango da horietako askorentzat, bai ohiko egoera batean, baita itsasoa bare ez zegoenean eta ekaitzek eta enbatak nabigatzeko arazoak aurkezten dituztenean ere. Halakoetan, sanpedrotar eta donibandarek gidatutako txalupa zein traineruek ontzien badiarako sarreran oinarrizko laguntza eskaintzen zuten eta hala, babes eta atsedean leku aproposa hartzeko aukera zuten.

Beste leku batzuetan egindako ikerketek oinarri bat ematen digute, gurean topatuko ditugun atzerritarrak horietan azaltzen direnak bezalakoak diren ala ez jakin dezakegarik. Hala, atzerritarren abizen edo ezizenei dagokienez, egileek “Bretón”, “Borgoña”, “Framengo”, “Alemán”, “Inglés”, “Franco”, “Corso” eta “Genovés” bezalakoak aipatu dituzte¹⁵¹. Bestalde, XIII-XIV. mende artean Asturiasen bizi zen egoerak euskarri bat ematen du, bereziki Kantauri itsasertzeko populazioen arteko merkatal harremanen ildotik bizitako mugimenduak ikusteko. Hala, Avilés-en, 1247an, Alemaniatik zetorren jendea ikusteko aukera izango dugu¹⁵².

150. Datozen lerroetan ez gara monarkia ezberdinen arteko harreman politiko-diplomatikoetan eta hauek itsas-merkataritzan izan zituzten ondorioetan sartuko. Euskaldunek XV. mendean zehar helmuga izan zituzten lekuetarako eta beraietan bideratu zituzten jarduetarako, ikus INCLÁN GIL, E.: “‘El dinero de la mar’: el comercio de la costa vasca con Europa en los siglos XIV al XVI”. In: GARCÍA FERNÁNDEZ, E. (arg.): *Bilbao, Vitoria y San Sebastián: Espacios para mercaderes, clérigos y gobernantes en la Edad Media y en la Modernidad*. Bilbo: EHU-UPV, 2005, 17-78 orr. eta berezki, José Luis Orellak *Lurralde* aldizkarian argitaratutako artikulua. Galiziarren kasua ikertzen badu ere, FERREIRA PRIEGUE, E.: *Galicia en el comercio marítimo medieval*. A Coruña: Fundación Pedro Barrie de la Maza-Universidad de Santiago, 1988 ikerketa sakonak aipamen batzuk jasotzen ditu.

151. SOLORZANO TELECHEA, J. A.: “Santander y la construcción...”, aip. lan., 47-48 orr. Ikus baita SOLÓRZANO TELECHEA, J. I.; eta ARIZAGA BOLUMBURU, B., aip. lan., 4 orr.

152. RUIZ DE LA PEÑA SOLAR, J. I., aip., lan, 166 orr., 8 oharra.

a) Ingalaterra

Ingalaterra eta Gipuzkoaren arteko harremanak hein batean ezagunak badira ere, oraindik ez dira bere osotasunean ezagutzen¹⁵³. Simancaseko “Registro General del Sello” atalean bilaketa txiki bat eginez gero, baina, segituan ohartuko gara britainiar irlaren eta Gipuzkoaren artean merkataritza lotua estuak izan zirela, bereziki Errege Katolikoek Frantziarekiko etsaitasun politika sustatu zuten zerotik eta Ingalaterrako Tudor monarkiarara hurbildu zirenetik¹⁵⁴. 1499ko lekukotza batek argi uzten digu ingelesek Donostian zuten garrantzia. Londres hiriko auzotar zen Roger Londalek (Rogil Londal), horren inguruan zera zioen:

“puede aver seys meses que viue en la villa de San Sebastián, e a estado en ella como otros muchos mercaderes de Ynglatierra e de otros reynos es público e notorio que han venido con mercadurias e bienen e cada dya a la dicha villa de San Sebastián e en los otros puertos e lugares de la dicha Probinçia”¹⁵⁵.

Ingelesek XVI. mende erdialdean berebiziko garrantzia izaten jarraituko dute. 1539an Erretereriako udalbatzak aurrera eramanez nahi zuen ekimena horren adibide garbia da. Izan ere, kai eta kanale berrien lanak ordaintzeko asmoz, alkabala berezia ezarri zuten ingelesek hiribildura ekartzen zituzten produktuei¹⁵⁶.

Pasaiako komunitateetan, mugimendu honen guztiaren aitzindariak XV. mendearen lehen erdialdean ditugu. Orduan Irletako bi abizen ageriko dira: Allen eta Madock (Alen eta Maduc dokumentuetan). Esan beharra dago, Euskal Herri mailan Alen ez dela Pasaian bakarrik ageriko. Bere garaian Iñigo Landak gurean ikusten ditugunak Sopuertatik etor zitezkeela planteatzen zuten, herri bizkaitar horretako auzo batek izen bera duelako. Meatzaritzare-

153. Badiaren inguruko ekarpenetarako, IRIJOA CORTÉS, I.; eta MARTÍN SÁNCHEZ, D.: *Erretereria a inicios...*; IDEM: *Erretereria XVI. mende hasieran...*, aip. lan.; IRIXOA CORTÉS, I.: *Pasaia...*, aip. lan. eta, orokorrean, CHILDS, W. R., aip. lan. eta Eleonora M. Carus-Wilsonen honako lanak: “The Overseas Trade of Bristol in the Fifteenth Century”. In: CARUS-WILSON, E.: *Medieval Merchant Venturers. Collected Studies*. London: Methuen & Co., 1954, 1-98 orr.; “The Overseas Trade of Bristol”. In: POWER, E.; eta POSTAN, M. M.: *Studies in English trade in the Fifteenth Century*. London: Routledge & Kegan Paul, 1966, 183-246 orr.; eta *The Overseas Trade of Bristol in the later Middle Ages*. New York: Barnes & Noble, 1967².

154. CHILDS, W. R., aip. lan.; CAUNEDO DEL POTRO, B.: *La actividad de los mercaderes ingleses en Castilla (1475-1492)*. Madril: Universidad Autónoma de Madrid, 1984. Legediak ere, hainbatetan horretan lagunduko du. Ikus SOLORZANO TELECHEA, J. I.; eta ARIZAGA BOLUMBURU, B., aip. lan.

155. AGS. RGS., 1499-XI, fol. 30, 1 au. fol. (Valladolid, azaroak 18).

156. Azkenean atzera egin behar izan zuten, sortutako kexuen ondorioz. Ikus IRIJOA CORTÉS, I.; eta MARTÍN SÁNCHEZ, D.: *Erretereria a inicios...*, aip. lan. Bilbok ere antzeko ekimena izan zuten 1480ean. SOLORZANO TELECHEA, J. I.; eta ARIZAGA BOLUMBURU, B., aip. lan., 8 orr. Ikus baita, ibidem, 10 orr.

kin lotua eta kostatik ez oso urruti kokatua dagoen lekua izaki, burdinarekin lotutako jardueren ondorioz Pasaiara iritsi zirela pentsa genezake. Gure ustetan baina, Pasaian Bizkaiako toponimoen inguruan ditugun erreferentzia eskasek eta badiak Ingalaterrarekin izango duen lotura jakina da, Allen hauek zuzeneko jatorri britainiar edo galestarra izango lukete¹⁵⁷.

Abizen honi buruzko daturik zaharrena 1448 Molinao errotaren erdiaren salmantan dugu; lekuko gisa aritu zirenen artean “Peru d’Alen” maisua azaltzen da. Handik hamar urtera, San Pedroko elizaren eraikuntzarekin zerikusia duten idatzietan, abizen bereko lau pertsona azalduko zaizkigu. Bi Juan Perez, “Samatet” ezizenez ezaguna den Tomas Alengoa eta Jaumot Alengoa. Hauxe gain, Pedro Landriggerkoaren ezizena “Pero de Alen” zela badakigu. Pedro Alengoa izeneko bat 1462 urte inguruan ikus dezakegu, Martin Lanakoarekin eta azken honen ontzi batean arrantza egiten¹⁵⁸. Era berean, Otsoa Martinez Ibarbiakoak 1498an egindako adierazpenean, Katalina Alengoa izeneko emakume bat aipatzen zuen. Alen horietako batzuen ezizenek, aurretik ezarritako eta atzerritik etorritako beste bi familiekin izandako harremanak islatzen dituzte: britainiar jatorriko Landrigger eta gaskoi jatorriko San Matet.

Ondorengo hamarkadetan abizena hainbatetan ikusi ahalko dugu. Hala, XVI. mende hasieran, 1509. urtea baino lehenago, Esteban Alengoa sanpedrotarra John Brown Bristolgo merkatariaarekin negoziotan zegoela badakigu¹⁵⁹. Dena den, eta arrazoiak arrazoi, ez dirudi abizen honek etorkizun handirik izan zuenik. Tomasen ezizenak San Matet oinetxera eraman gaitzakeela aintzat hartzen badugu, hor egon daiteke San Pedron gutxi agertzearen arrazoa; hau da, familia horretako kideek lehentasuna eman ziotela gaskoi jatorriko abizenari Aleni baino.

Ondorengotza falta hau ogibidean oinarritu daiteke, itsas jardueretan hain zuzen ere. Juan Perez Alengoak Esteban Arriagakoa altzatarraren aldeko ahalordea eman zuen 1467an Iparragirre lursaila Migel Martinez Engomezkoa donostiarrari saltzeko. Idatziaren bidez, Juan Perezek Estebani negozioa bere izenean kudeatzeko ahalmena ematen zion. Alenek kanpoan egon behar zuelako ematen zuen ordezkapen eskritura hori, bere negozioek Pasaiatik urrun egotea zekartelako. Tratu horiek merkataritzara nahitz eramaten ez bagaituzte ere, kanpora joateko arrazoa itsasoarekin zerikusia zutela uste dugu; gure ustetan, garraio lanekin edota arrantzarekin.

157. Badakigu, adibidez, Richard Allen bat XV. mende amaierako merkataria ingeles bat zela. Ikus AGS. RGS, 1489-VIII, fol. 81 (Jaen, 1489ko abuztuak 13).

158. ARChV. Pleitos Civiles. Fernando Alonso, Fenecidos, 1330-1, CXC au.

159. ARChV. Reales Ejecutorias, 234-43.

Era berean, Esteban Alengoak igaroaldi luzeak emango ditu. 1500ean bere emazte Juana Truxillgoak adierazten zutena aintzat hartuta, bederen¹⁶⁰. Bikote honek, gainera, beste ikerkuntza bat ahal bidatzen du; izan ere, Juana, Arnaodet Truxillgoa merkatariaren eta Katalina Mumbrun andrearen alaba zen. Hauek baiondarrak ziren, Donostiara 70eko hamarkadan iritsitakoak. Lehen, gainera, Ingalaterrako erregearen enbaxadore izan zen eta erre- suma honekin merkataritza harreman sakonak izan zituen. 1471-1480 artean Plymouth, Exeter eta, hein txikiago batean, Bristol izan zituen bere merkatal jarduerak burutzeko leku¹⁶¹. Besteak beste, 1480an Hondarribiko Esteban La Lanaren ontziak Bristoletik Irlandarako bidaian oihalak esportatuko ditu¹⁶².

Maduc abizenari dagokionez, galestar jatorriko Maddock abizenarekin lotu behar dugu. Herrialde keltiar horretako mitologian errotua dago “Madoc ab Owain Gwynedd” Cymruko printzerari buruzko kondaria, non 1170 urtean Ozeano Atlantikoa gurutzatu zuela eta Ipar Amerikan lurreratu zela aipatzen den. Kondaira hauek alde batera utzita, gurean azaltzen den lehenengoetarikoa Mari Otsoa Maduc-ekoa dugu. 1514 urtea baino lehenago Juanot San Matetekoarekin ezkondu zen¹⁶³. Lotura noiz ospatu zen ez dakigu, baina Juanot 1460-1470 urte bitartean jaio zen eta, beraz, 1497ean sanpedrotarren artean azaltzen zaizkigun Sanbat eta Miguel de Maduc, bere garaikideak izango ziren¹⁶⁴. Galestar jatorri hau oso ezohikoa bada ere, ez da guztiz baztergarria. Azken aurkikuntzek ontzi euskaldunak Cymruko Newport herrian XV. mendean izan zirela adieraz dezakete, oraindik oso behin-behineko emaitzak badira ere. Gainera, ez genuke ahaztu behar Bristol herrialde horretako hegoaldeko hiriekin zuen harreman estua¹⁶⁵.

Maduc-en arrastoa XVI. mendean zehar jarrai daiteke. Alenek baino iraupen luzeagoa izan zuen, beraz. Adibide bat 1538ko abuztuaren 23an dugu, Juan Perez Igeldokoa Maria Perez Trintxerkoaren arteko ezkontza hitzarmenean. Bertan, on Kristobal Trintxerkoa apaizak ezkonsari gisa emandako ondasunen

160. “Juana de Trusyl, abitante en el lugar del Pasage, vesindad e jurisdicción de la dicha villa [Donostia] (...) por ausencia del dicho Esteban de Alen, su marido, al qual de presente e ha grandes días es absente vltamar (...) dixo al dicho señor alcalde (...) que a ella por ser el dicho su marido abstene, le diese liçençia e abtoridad e le proveyese de curador...” (ARChV. Pleitos Civiles. Zarandona y Wals, Olvidados, 1138-2, 27 au.-at. fol.; 1500eko urriak 20).

161. CHILDS, W. R., aip. lan., 60 eta 62 orr. Enbaxadore bezala, ikus ARChV. Pleitos Civiles. Zarandona y Wals, Olvidados, 232-5.

162. CARUS-WILSON, E. M.: *The Overseas trade of Bristol in the Later Middle Ages*, aip. lan., 218 orr. Irlandar moduan egiten zaio aipamena, baina badakigu baiondarra zela eta Donostiarako bidea egin zuela. Ald. ARChV. Pleitos Civiles. Zarandona y Wals, Olvidados, 1138-2 eta CHILDS, W. R., aip. lan, aip. lan., 56 eta 73 orr.

163. Mariari hala egiten zaio aipamena urte horretako maiatzaren 5ean. Ikus ARChV. Pleitos Civiles. Lapuerta, Fenecidos, 1597-1.

164. ARCh. Pleitos Civiles. Fernando Alonso, Fenecidos, 1330-1, XXVIan.-XXVIIan. folk.

165. Ald. GOIENETXE PATRÓN, R., aip.lan.

artean, San Pedro elizaren gaineko sagasti txiki bat zegoen. Berarekin muga egiten zuten lursailen artean, Katalina Maduc-ekoaren baratze bat aurkitzen zen¹⁶⁶. Urte batzuk beranduago abizena Donibanen ikusteko aukera izango dugu, 1557ko abenduaren 2an, Juana Arriagakoak Peirona Maduc-ekoaren aurkako salaketa jarri baitzuen. Bertan, gainera, beste Katalina Maduc-ekoa bat aipatzen da, Munjun Navejaskoaren emazte zena¹⁶⁷.

Ingalaterra eta euskal kostaldearen arteko harremanak (adeitsuak edo etsaitasunezkoak) Behe Erdi Aro osoan zehar ikus ditzakegu. Donostiarrak, adibidez, XIII. mendetik Ingalaterran ikus ditzakegu. Egia da, ordea, XV. mende erdialdetik loturak areagotu egin zirela. Ingalaterrako koroak, Ehun Urteko Gerraren baitan Baiona eta Akitaniako konterria galdu zituenean, Gaztela eta Kantauriko portuetan begirada jarri zuen, Frantziarekiko etsaitasunak produktuen hornidura beste lurralde batzuetan egitera bultzatuz¹⁶⁸. Egile batzuk azpimarratu dute Gipuzkoako hainbat hiribildutako ontziak Bristolgo merkatarientatik erabiliak izan zirela beraien negozioiak burutzeko¹⁶⁹. Eta gogora dezagun Pasaiako badiarentzat hiribildu hau oso garrantzitsua izango dela, baita XVI. mendean zehar ere¹⁷⁰.

Lotura estuago hauen erakusle, XV. mendeko bigarren erdialdean bi Monarkien arteko merkatal harremanak finkatzen zituzten akordioak ditugu. Westminstergoak (1467) merkataritza askea eta bi koroetako marinelek aurretik pairatu zituzten eraso eta lapurreten kalte-ordaina ekarri zuen. Beranduago are esanguratsiagoak direnak izango ditugu, batez ere Gipuzkoaren eta Ingalaterrako erregearen artean eman zena (1481). Bertan, bi lurraldeen arteko merkataritza bermatzen zen, 10 urteko epeaz. 1504an aldiz, Errege Katolikoek ingelesei edozein produktu gaztelarren esportazioa askatasunez egitea bermatzen zieten, galerazitakoena ezik. Esportazio hau ontzi ingelesetan baina baita, aurreko hamarkadetan gertatu bezala, gaztelarretan (euskaldunenak bereziki) burutuko zen¹⁷¹.

166. GAO-AGG, CO MEJ 24.

167. GPAH-AHPG, 3/366, 118 au.-121 at. folk.

168. CHILDS, W. R., aip. lan.; SOLORZANO TELECHEA, J. I.; eta ARIZAGA BOLUMBURU, B., aip. lan., 2 orr.

169. "Their ships and their seamen were frequently used by Bristol merchants": CARUS-WILSON, E. M.: "The Overseas Trade of Bristol", aip. lan., 216 orr.

170. Beste hiribildu batzuek parte hartu bazuten ere, badirudi Donostia eta Hondarribia arteko gunea dela Bristolekin lotura gehien duena. Jean Vanes-ek zera zioen: "It seems that for much of the century Bristol's main links were with the northern towns, such as San Sebastian, Renteria, Fuenterrabia, Bilbao and Pasajes" (VANES, J. (arg.): *Documents illustrating the overseas trade of Bristol in the Sixteenth Century*. Bristol: Bristol Record Society, 1979, 21 orr.).

171. CHILDS, W. R.: "Commercial relations between the Basque Provinces and England in the Later Middle Ages, c. 1200-c. 1500". In: *Itsas Memoria*, 4 (2003), 58 orr. (55-64); eta BAZÁN DÍAZ, I.: "“Degollaron a todos los dichos treynta e tres yngleses e asy degollados dis

Londres eta Plymouth badiako biztanleen iritsiera ikusiko badute ere, zalantzarik gabe Bristol izango da Ingalaterrarekiko harreman estuaren adibide nagusia¹⁷². Bertara euskaldun ugari iritsiko dira eta, halaber, bertako auzotarrak ikusiko ditugu beraiekin negozioetan edo gure artean. Zoritxarrez, gure auzotarrek han izan zituzten bizipenak ez ditugu ondo ezagutzen, baina batzuen kasuan bertako bizitzara eginda zeudela adieraz diezaguke. Domingo Fuenterrabiakoa merkatariak adibidez, hainbat pribilegioz gozatzeko aukera izan zuen¹⁷³.

Garai honetan Pasaia aldean ezagunak diren abizenak ikus ditzakegu Bristolen. Horien artean “Lana” edo “La Lana” abizena dago. Esteban eta Martin La Lanakoak, adibidez, XV. mendeko azken laurdenean hainbat alditan azalduko zaizkigu, bai ontzietako maisu moduan, bai merkatari bezala, burdinarekin negozioak egiten¹⁷⁴. Dokumentazioak ez du zehatz-mehatz La Lana hauek nongoak diren esaten, baina Bristolera Martin La Lanakoa maisu zen ontzia Pasaia “John” zela badakigu, ziurrenik donibandarra; horrek Martin badiako komunitate pasaitar bateko kide zela pentsatzera garamatza¹⁷⁵. Era berean, abizen argiago bat dugu: Kornotz. Dokumentazioak Hondarribiatik datorrela adierazten du eta hemen jatorria duen toponimo argia bada ere, abizen hau XV. mende Erdialdeko San Pedron ikus dezakegu¹⁷⁶.

Errenteriarrei dagokienez, 60ko hamarkadan lehen berri zehatzak izango ditugu. 1463an Martin Igeldokoa, Juan Migelez Arranomendikoa, eta “James” Lizartzakoa ditugu Errenteriako *Maria* ontzian¹⁷⁷. Ondorengo hamarkadetan datuak areagotuko dira eta badiako hainbat ontzi azalduko

...

que los lançaron en la mar’. Las hermandades vascas y la lucha contra la piratería en la Baja Edad Media”. In: *Itsas Memoria*, 5 (2006), 69-93 orr.

172. Ald. CHILDS, W. R.: *Anglo-Castilian trade...*, aip. lan., 61. 1526an, aldiz, Errenterian zeudela, Bilboko merkatari ziren Pedro Erkinigo eta Pedro Salzedok, Convetryko merkatari batzuei urdin-belar pastela erosi zieten. VANES, J. (arg.), aip. lan., 115-116 orr.

173. CARUS-WILSON, E. M.: “The Overseas trade of Bristol”, aip. lan., 216 orr.

174. CARUS-WILSON, E. M.: *The Overseas trade of Bristol in the Later Middle Ages*, aip. lan., 218, 240, 249. Beraiez gain, Sabat (Solvat) eta Pedro ere ageri zaizkigu. Eleonora Carus-Wilsonen zioenez, Bristolgo merkatua edo, hobe esanda, Gaztelako Koroaren menekoen eta bristolarren arteko negozioak, beste esku batzuetatik salbu zeuden, London eta Southampton ez bezala (ibidem, 217-218 orr.). Arranomendiri buruz, IRIJOA CORTÉS, I. eta MARTÍN SÁNCHEZ, D.: *Errenteria a inicios...*, aip. lan. Euskaldunen nagusitasunari buruz, ikus, CHILDS, W. R.: *Anglo-Castilian trade...*, aip. lan., 152 orr.

175. CARUS-WILSON, E. M.: *The Overseas trade of Bristol in the Later Middle Ages*, aip. lan, 276 orr. Ald., ibidem, 283. 1528ko lekukotzan, Migel La Lanakoak 51 urte zituela adierazten zuen eta bere arbasoei buruz zera zioen: “es vezino y natrual del Pasaje de padre e madre e de aguelo e visaguelo”.

176. Ibidem, 276 eta 284 orr.: (John Cornodu, John Cornod eta John Cornotes bezala).

177. VANES, J. (arg.), aip. lan., 132 orr., 162 erregistroa.

dira inguru horietan. Garai honetan Pedro Idiazabalgoa eta Juanto Perez Goizuetakoa agertuko zaizkigu eta horrez gain, Arranomendik garraiolari eta merkataria lanetan sartuko da buru-belarri¹⁷⁸. 1480ko ekainaren 29an, adibidez, Bristoldik Gaztelara zihoan Hondarribiko “Espiritu Santua” ontziak, bereak ziren merkatalgaiak zeramatzan, William Thomas, John Poke, John Bailly, Robert Straung eta John Esterfield merkatarien produktuekin batera¹⁷⁹.

Azkenik, 1485eko testamentuan, Juanto Perez Goizuetakoa ontzi-maisua Thomar Harper (Arpuer) eta Edmund Westcote (Aymont Estoc) merkataria bristolarrekin zituen negozioak agerian geratzen ziren, burdinaren ingurukoak¹⁸⁰. Goizuetak aurreko urteetatik mantentzen zuen harreman estua Bristolekin. Izan ere, berak eta bere emazteak eraikitako ontzi baten laurdena John Esterfield-ek erosi zuen. 1503 urtean, berriz, Lope Gartzia Isastikoa dugu Bristolgo merkataria Edmund Minot-ekin negoziotan, Laurence Aultonek lehenengoarekin zuen obligazioa dela eta.

Dagoeneko hainbat merkataria ingeles aipatu dira, Pasaian XV. mendean azken hamarkadetan areagotzen den merkataritza loturekin erlazionaturik. Orain aipatutakoen artean bi azpimarratu nahi genituzke: Edmund Westcote eta John Esterfield. Azken honek oso jarduera nabarmena erakutsiko du 1479-1480 artean, eta aitzindariak gutxienez 1465ean jarri ditzakegu¹⁸¹. Arroxela, Bordele, Baiona eta Lisboatik ardoa izango da Bristolera inportatuko duen produkturik nagusia; Gaztelara, aldiz, oihalak bidaliko ditu. Esterfield garai horretako merkataria bristolarririk garrantzitsuenetako bat zen, bertako alguazil eta alkatea izan zen, eta baita Koroaren ordezkaria ere. 1485-87 urteetan bere oihal esportazioaren %74-a penintsulara bidali zuen. Beste merkataria batzuek portzentaia handiagoa izan zuten, baina bolumenean bera izan zen oihal esportatzaileen artean bigarrena eta Penintsulako produktuak inportatu zituztenen artean hirugarrena¹⁸². Horretarako, Bristolgo ontziak erabiltzeaz gain, Hondarribi eta Baionakoak profitutako ditu.

178. E. M. Carus-Wilsonen hitzetan, “frequently, even when a Spanish ship carried mainly goods of English merchants, the Spanish captain himself took a share in the venture, as did John Renamond of the *James* of Guipuscoa” (“The Overseas trade of Bristol”, aip. lan., 217 orr.). CHILDS, W. R.: “Commercial relations...”, aip. lan., 59 orr. IRIJOA CORTÉS, I.; eta MARTÍN SÁNCHEZ, D.: *Errenteria a inicios...*, aip. lan.

179. CARUS-WILSON, E. M.: *The Overseas trade of Bristol...*, aip. lan., 242 orr.

180. ARChV. Pleitos Civiles. Quevedo, Fenecidos, 2732-1, 7 at. fol.

181. Hau guztirako, CARUS-WILSON, E. M.: *The Overseas in the Later Middle Ages*, aip. lan., bereziki 222 eta hh. Badugu izen bereko merkataria bat 1437an, oihalak eta alunbrea Bilboko ontzi batean garraitzen. Ibidem, 204 eta 208-209 orr.

182. CHILDS, W. R.: *Anglo-Castilian trade...*, aip. lan., 96 eta 207-208 orr. Egile honek azpimarratzen du Bristolen halako karguak bete zituzten gehienek penintsularekin merkatal harremanak zituztela. Ald. ibidem, 208, zeinak Esterfield 1471tik aurera merkataritzan ari zela dio.

Wescott ere antzeko kasua dugu¹⁸³. 1465ean lizentzia lortzen du beste hainbat merkatarari ingelesekin batera Frantzia, Normandia, Britainia, Akitania eta Gaztelarekin merkataritzan aritzeko. Harreman estua izango du Bordelerekin, eta bertara oihalak eta Irlandako sardin zaharra esportatuko ditu. Inportazioei dagokienez, Bordeletik eta Sevillatik ardoa eta urdin-belar pastela eramango ditu.

Hainbatetan bi merkatarari hauen salgaiak ontzi berean doaz: 1479ko azaroaren 19an Baionatik iritsi zen “*James*” ontzi baiondarrean, Lisboatik 1479ko abenduaren 29an heldu zen “*Mari Grace*” ontzian eta 1480ko martxoaren 4an ailegatutako “*Trinity*” ontzian, besteak beste¹⁸⁴. Ez da harritzekoa, beraz, esparru geografiko zabala eta jarduera nabarmenak zituzten merkatariek gure auzotarrekin negoziotan aritzea.

Hamarkada batzuk beranduago John Shipman izango dugu. Bordele izan zuen negozioak burutzeko leku lehenetsia eta 1499tik dugu bertatik Bristolera ardoa esportatzen. Kargamentua Berkeleyko “*Catherin*” ontziak zeraman eta barruan beste merkatarari batzuen ardoa zegoen, tartean ondoren aipatuko dugun William Wosleyrentzako zena. Errenteriarekin zerikusia duten datuak hainbat hamarkada geroago ditugu: 1537an, Domingo Zubietakoa merkataria 20 tona burdin eraman zituen Bristolera, Johnentzat zirenak¹⁸⁵.

Errenteriarrekin negozioak egin bazituzten ere, ez dirudi zurrekoetako inor gure artean izan zenik. Esterfielden garrantzia ikusita, faktoreak erabili zituztela pentsa dezakegu. Izan ere, behin-betiko egoeran azaltzen zaigun lehen ingelesa, Thomas Barcot edo Batcock, hala jardun zen¹⁸⁶. Hau ere bristoladarra zen eta Hondarribia-Donostia inguruetan 1490 urtetik aritu zen. Beste leku batean aipatu dira bere inguruko berriak eta, ondorioz, ez ditugu errepikatuko. Baina azpimarratu nahi dugu Errenteriako eta Hondarribiko auzotar izan zela, bertan ezkondu zela eta bere seme-alabek gure artean bizitza egingo dutela¹⁸⁷.

1496 urte inguruan William Brown Donostian dago. Baina merkataritza-negozioak bideratu ordez, beste hainbat merkatariren prokuradore moduan iritsiko da. Zehazki, donostiarrek beraien aurka egin zuten lapurreta eta piratakeritza ekintza salatzeke asmoz. Ez dakigu ordurako gure artean izana zen ala ez; ez dirudi halakorik. Baina auzien eraginez eman zuen denbora

183. Izen bereko pertsona, 1437an Bristol eta inguruko portuetan iristen ziren produktuen zerga biltzaile azaltzen zaigu. CARUS-WILSON, E. M.: *The Overseas in the Later Middle Ages*, aip. lan., 203 orr. Ald. 132 nota.

184. Ibidem, 134, 224, 235, 245, 258 eta 261-267 orr.

185. VANES, J. (arg.), aip. lan., 41, 77, 97 eta 101-102 orr.

186. Normalean, 1517tik aurrera Thomas Howell londrestarrarentzako lan egin zuela aipatzen da, baina badakigu 1503an Nicholas Brown-en faktore gisa aritu zela. Ibidem, 97 orr.

187. Bere abizena oraindik 1576an ikusteko aukera izango dugu.

luzeak negozioak egiteko aukera eman ziola uste dugu. XVI. mende hasieran, behintzat, Donostia eta bertako hainbat biztanle garrantzitsurekin harreman estua izan zuen¹⁸⁸. Gorago aipatu dugun Roger Londalek, berriz, Pasaiako ontziak erabili zituela badakigu; 1501ean, A Coruña-ko kargamentua eramateko adibidez. Ezin dugu ziurtatu, baina gure ustetan, Donostian izan zen bitartean, Rogerek Pasaia ezagutu zuen¹⁸⁹.

Beste hainbat lekutan gertatu bezala, badiari buruzko adibideak XVI. mendearen lehen erdialdean ugaritzen dira, ordurako lortua zuen erakargarritasunaren seinale¹⁹⁰. 1525eko abuztuan “*Juan Vhar, mercadero ynglés*” dugu San Pedron eta ia bi urte geroago, 1527ko otsailean, John Wynter (Juan Vnter, Oynter) ingelesa Erreterian dago egonaldia egiten (“*estante*”)¹⁹¹. Bertatik, 1537ko abuztuan Hugh Tipton faktoreak William Sprat bere merkatariari idatzi zion. Tiptoni buruz dugun datua hori bakarrik bada ere, badakigu bere jarduna aurreko urteetan garatu zuela¹⁹². Bestalde, William Woseley izeneko Erreteriarako udalbatzarekin negoziotan aritu zen. Merkatari honen eta John Drew izenekoaren garraiolari moduan Martin Santxez Darietakoa oreretarra aritu zen, ardoa Bristolera eramateko¹⁹³.

Wynter eta Woseley dira, Barcot-ekin batera, Probintzia ekialdean negozioak bideratzearen eta bertan ezartzearen adibide¹⁹⁴. Aurretik hainbat berri jasota bagenituen ere, datu berri batzuek nondik norakoak osatzen laguntzen digute. Wynter 1511-12 urteetan Hondarribia eta Erreteria artean dugu, Giles Shipman merkatariaren faktore edo ordezkari moduan ari delarik. Orduan

188. Eta hainbat auzi abian jarri zituena Bizente Arizabalokoaren, Alonso de la Torreren eta Bizente Elduaiengoaren aurka. Ikus, adibidez, AGS. RGS. 1497-IV, fol. 24 (Burgos, apirilak 8). Horien aurka hainbat auzi mantendu zituen, eta Valladoliden eta Donostian hainbat kudeaketa egin zituen. Sanzol Ekogorkoarekin ere hainbatetan hitz egin omen zuen, beste hainbat auzotarrekin egin bezala. Honek agerian uzten du William-ek gaztelaniaz, frantsesez edo gaskoieraz zekiela.

189. FERREIRA PRIEGUE, E. M.^a, aip. lan., 525 orr.

190. Ezta, jakina, Gipuzkoako bakarra izango. Debako auzotar zen “Oatre” Thompon merkatari ingelesak, adibidez, Buztiñaga etxeko alaba batekin ezkondu zen 1515 urte inguruan. MARTÍNEZ MONTES, M.; HERRERO, V. J.; MONTECELO FUENTEFRÍA, L.: *Fuentes medievales del Archivo Municipal de Mutriku (1237-1520)*. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 2007, 366 orr.

191. Hurrenez hurren, ARChV. Pleitos Civiles. Quevedo, Fenecidos, 1349-2, 203 at. fol. eta GPAH-AHPG, 3/297, 12 au.-17 at. folk.

192. VANES, J. (arg.), aip. lan., 128 orr. Spratek Cromwell-i gutu hori jakinarazi zioean, zera zioen: “This is the true copy of a letter my servant sent me, *who has been in Spain this seven or eight years*”. Ikus GAIRDNER, J. (arg.): *Letters and Papers, Foreign and Domestic, Henry VIII. Volume 12, Part 2: June-December 1537*. Londres: Institute of Historical Research, 1891, 169-181 orr. (British History On-line bidez kontsultatua: www.british-history.ac.uk).

193. Ald. VANES, J. (arg.), aip. lan., 137 orr.

194. Oraingo datuetarako, ARChV. Pleitos Civiles. Moreno, Fenecidos, 1004-3, 9 au.-at eta 45 au.

Alonso Torreskoa eta Pinana Truxillgoa senar-emazteekin negoziotan ari da, azken honek 1511ko martxoan Wynterri idatzi zion eskutitzak ondo adierazi bezala¹⁹⁵. Ez litzateke harritzekoa izango merkataria garai honetan etorri izana, Barcot-en laguntzaile izan baitzen espioi eta informatzaile lanetan¹⁹⁶. Ziurrenik, lan hauek gurean denbora gehiagoz aritzeko aukera eman zioten, bere merkatal jarduerak garatuz. Izan ere, urte gutxiren buruan Wynterren egoera finkatuta dago: 1517an Hondarribiko auzotar bezala ageri da eta handik gutxira laguntzaileak kontratatu beharrean izan zen. 1519an William Wosley bera da Wynterren otsein azaltzen dena. Otsailaren 23an Txantzielleriak Wynterri luzatutako errege-probisioa jakinarazten zitzaionean, Foxley-k zera zioen: “*dixo que el dicho su amo era en Ynglatierra e en su nonbre él se tenía por enplasadado*”¹⁹⁷; 1526an bertan jarraitzen zuen¹⁹⁸. Badakigu, gainera, John Shipmanek berarekin harreman estua izan zuela, azken honek bere testamentuan esandakoaren arabera¹⁹⁹. Horregatik, lehen aipatu dugun Domingo Zubietakoaren datuan, Wynter-ek Shipmanentzako Errenterian egin zituen faktore lanak atzean izango zirela uste dugu.

Wynterrek Errenteriarekin uztartuko duen harremanaren adibiderik garrantzitsuena hainbat hamarkada beranduago dugu. 1540ean, Errenteria eta Bristol arteko merkatal-lotura “anaitasun” gisa deskribatzen zenean, Wynter zen ingeles ordezkarria:

“Platicado el regimiento con el señor Juan Oynter, mercader inglés, *de cómo el conçejo de esta villa e los d’ella hasta agora han tenido mucha amistad e hermandad con los señores de la villa de Bristol*, e cómo el año proximo pasado (...) avían puesto que pagasen ciertos maravedís de alcabala e que porque no poner cosa nueva el dicho conçejo ha quitado aquello (...) e qu’el dicho Juan Oynter les hiziese relación d’ello a los dichos señores de Bristol e a los que más quisiere (...) E el dicho Juan Oynter dixo qu’él les haría relación e pidió la dicha carta para lo que dicho es e los dichos señores mandaron dar”²⁰⁰.

195. ARChV. Pleitos Civiles. Moreno, Fenecidos, 1004-3, 10 au.-at. fol.

196. SANTOYO, J. C.: “De crónicas y tiempos británicos. Historia de una expedición militar inglesa en Guipúzcoa (Junio-Octubre de 1512)”. In: *BEHSS*, 8 (1974), 59 orr. (3-71).

197. Errenteriako eskribau zen Domingo Lizartzakoak egiten zion jakinarazpen horretan, ez dirudi itzultzailearik egon zenik; honek Wosleyk gaskoi, frantsesez edo gaztelaniaz zekiela adieraziko liguke. Hauxe gain, 1497. urtean San Pedron dugun “Vergay” abizena Ingalaterrarekin zerikusia izan dezakeela uste dugu. Ahoskera antzekoa duen Berkwey, Erdi Aroko abizena zen.

198. VANES, J. (arg.), aip. lan., 115 orr.

199. *Ibidem*, 108 orr.

200. EUA, A-1-5, 35 au.-36 at. folk. Horrez gain, 1550ean Bristolek garrantzia izango duela argi dago. Migel Arizabalokoaren bidaiez gain (GOIENETXE PATRON, R., aip. lan.), 1552ko Errenteriako udal aktek hiri hartan zegoen izurritea adierazten dute, bertatik Martin Berrobikoa, Juan Zuri Zubietakoa eta beraien kideek “baztertutak” zituzten hori dela eta. EUA, A-1-7, 63 au. fol. (1552ko ekainak 28). 1558an berriz, Londresko John Martinez Errenteriako “Salbatzaile” ontzia pleitatu zuen Hungroadera (Bristolera). VANES, J. (arg.), aip. lan., 117 orr.

Wosley Wynterren otsein izan bazen ere, hala aritu baino lehenagoko datuak ditugu. Antza denez, XV. mende amaieran Bordeleko ardoarekin negoziotan zen. 1503an, berriz, Hondarribian dugu, oihalak bertara eramaten²⁰¹. 1527an baino lehenago hila, ordura arte Errenteriarekin negoziotan aritu zela ematen du, burdin eta ardoaren inguruan²⁰².

Ingalaterra eta Pasaiaren arteko harremanen erakusgarri beste datu bat dugu. Bere garaian Borja Aguinagaldek Inglesa izenaren inguruan esandakoetan oinarrituz, bi lekuen arteko loturek pertsonen ezizenetan islatzeko aukera zuten²⁰³. Hori da, gure ustetan, Londres abizenaren kasua. Jatorriz San Pedroko familia bati egiten dio aipamena eta bere lehen kidea XV. mende amaieran jaiotako Gillen Londreskoa dugu; 1519an, aldiz, abizena Pasai Donibaneko auzotarren artean agertzen zaigu. Beste leku batean esan bezala, ez dakigu zehazki zein den Ingalaterrarekiko harremana, hau da, zein den abizenaren arrazoa: jatorrian Londrestik etorritako pertsona bat izatea edo bestela, Ingalaterrako hiri horrekiko harreman estuaren ondorioz, ezizen moduan “Londres” toponimoa erabiltzea eta hurrengo belaunaldiek ezizena abizen bihurtzea²⁰⁴.

b) Irlanda

Orain arte bi herrialdeen arteko lotura arrantza jardueratan oinarrituta zegoela aipatu izan da, euskaldunek bertarako bidea egin baitzuten sardin-zahar edo bakailu bila. Izan ere, Galizia eta Asturias aldean burutzen zen bale ehizarekin batera, Irlandak Euskal Herritik haratago zegoen arrantzua- ren beste esparru nagusia osatzen zuen. Baina sardin-zaharra, sardina edo legatza harrapatzeaz gain, Irlandak larru eta larruazal merkatu nabarmena zuen; Gaztelak adibidez, bertako larru gehiena inportatzen zuen²⁰⁵. Halaber,

201. VANES, J. (arg.), aip. lan., 77 eta 89 orr.; eta GPAH-AHPG, 3/285, 14 au. fol.

202. Ikus EUA, A-1-1, 43 at.-44 at. folk. eta EUA A-1-2, 3. pieza, 12 at.-13 au., 20 au.-23 au. folk.

203. AGUINAGALDE, Fco. B. de: “La importancia de llamarse Inglesa (alternativas para la reconstrucción de familias con fuentes documentales no sistemáticas)”. In: *BEHSS*, 25 (1991), 91-129 orr.

204. Ikus 1.go eranskina; IRIXOA CORTÉS, I.: *Documentación...*, aip. lan., 102. dok. eta bereziki, GAO-AGG, CO MCI 305. Zarautzen, aldiz, “Lançarote de Londres” dugu bertako auzotar bezala 1532an. Kasu honetan, baina, ingeles baten aurrean gaude, “Lançarote ynglés” bezala aipatzen baitzaio. Ikus IRIJOA CORTÉS, I.: “Documentación relativa al conflicto guipuzcoano suscitado durante las Comunidades de Castilla (1520-1542)”. In: *BRBAP*, LXV (2009), 496 orr. (487-598).

205. “Spain was the principal importer of Irish hides which also found ready markets in France, Flanders and Italy. Around 1503 two merchants from Bilbao and one from inland Vitoria loaded a ship with wine, saffron, sword blades and other goods which they took to

Bristolek bertako hainbat herrirekin lotura zuzena zuen eta gipuzkoarrek hauetan garraiolari gisa ikustea ez litzateke harritzekoa izango²⁰⁶. Horregatik, badiako biztanleak merkatal zein arrantzale funtzioetan aritzea ez da ezohiko kontua izango, azkenak pisurik handiena izango badu ere²⁰⁷.

Badiako biztanleen eta Irlandaren arteko harremanen inguruko datu zehatzak XVI. mende hasieran hasten dira; hor ditugu, besteak beste, Amador Cotilloskoa ontzi maisu sanpedrotarra edo Martin Zuri Zubietakoa errenteriarra²⁰⁸. Halaber, 1501ean egindako galdeketa batean, Juanes Ibargoiengo irundarrak hara egindako bidaien berri ematen zuen. 1486tik hiruzpalau aldiz Pasaian porturatu zen, Irlanda eta Galiziatik ardoa, argizaria, kongrioa, sardina eta beste hainbat arrain ekarriz; halaber, 1500. urtean, Irlandatik zekarren arraina Erreterian lurreratzeko asmoa agertu zuen²⁰⁹. Hainbat hamarkada geroago Irlak bere garrantzia izaten jarraituko du: Martin Santxez Villaviciosakoa hara egin zuen bidaia 1536an²¹⁰; 1556an, aldiz, hainbat sanpedrotarrek Galwayko badian dagoen Ara irlara sardin zaharraren arrantzura joateko asmoa agertu zuten²¹¹. Martin Arizabalokoa sanpedrotarrak adibidez, XVI. mendeko 20ko hamarkadaren amaieran, Esteban Burgoren naoko pilotu zela, Arako portuan James Wallace (Jaymes Hualys) izeneko bati bere ondasunak lapurtu omen zizkion²¹².

Baina Irlandara zuzenean joateaz gain, Bristolekiko harremanak ematen du irlandarrak gurean ikusteko aukera. Honezkero aipatu dugu hiri ingeles horrekin zegoen lotura. XVI. mende hasierarako Bristolgo portu-mugimen-

...

‘St Michael’ [Ballinskelligs, County Kerry] bringing back to Bilbao mainly fish and hides (...) The considerable Basque and northern Spanish trade in general with Ireland even in the mid 1500s is no doubt encapsulated in an English report from 1543 which made known that ‘from Limerick to Cork, the Spaniards and Bretons have the trade, as well as the fishing there, as buying their hides, which is the greatest merchandise of this land’. At Bordeaux pre-1550 notarial records document French Basques, but more Bretons and Normans, trading in Irish ports in the late 1400s and early 1500s, almost always carrying in their ships wine for Bordeaux merchants and returning with fish, hides and other goods”. BARKHAM HUXLEY, M.: “The Spanish Basque Irish Fishery & Trade in the Sixteenth-Century” (<http://www.historyireland.com/volumes/volume9/issue3/features/?id=248>).

206. Santanderrek adibidez, XIV. mende hasierarako kontaktuak zituen Irlandarekin. SOLÓRZANO TELECHEA, J. I.: “Santander y la construcción...”, aip. lan., 50 orr. Horrez gain, Zelandara ere joaten ziren.

207. BARKHAM HUXLEY, M.: “La industria pesquera...”, aip. lan., 49-53 orr.

208. ARChV. Reales Ejecutorias, 243-12 eta 235-49.

209. OUA, C-4-3-2, 160 at. fol.

210. GPAH-AHPG, 3/306, 3 au.-7 at. folk.

211. ARChV. Pleitos Civiles. Fernando Alonso, Fenecidos, 1330-1. Araren kokapenaren inguruan, BARKHAM HUXLEY, M.: “La industria pesquera...”, aip. lan., 53 orr.

212. GPAH-AHPG, 3/298, 112 au. fol.

duari buruzko datuek, Irlanda norabiderik nabarmenena zela aipatzen digute; 1503-04 artean, Bristolen porturatu ziren ontzien %72'9-a Irlandatik zetorren; epe berean hiri ingelesetik itsasoratu ziren ontzien %61'2-a Irlanda zuten jo-muga²¹³. Gauzak horrela, Bristoldik Hondarribiko Maria ontzia 1479ko irailaren 30ean itsasoratu zen Irlandara bidean. Ontzi-maisu Esteban La Lanakoa zen eta merkatalgaien artean, Sabat de La Lana eta Esteban beraren kargamentua zeramatzan²¹⁴.

Orain arte, datuak itsasoarekin lotutako jardueren ildotik eman dira; hau da, euskaldunek Irlandan burututako bidaia eta negozioen ikuspegitik. Baina guri interesatzen zaigunez, oso gutxitan landu da gure artean irlandarrek izan zuten presentzia. Azken ikerkuntza batzuk, baina, bertatik etorritako eta gure inguruetan ezarritako hainbat pertsonen adibideak eman dituzte argitara²¹⁵.

Aztarnak topatzeko, gure kronologia esparrutik baino beranduago dagoen beste dokumentu batean has gaitezke, 1566ko Donostiako auzotarren erroldan hain zuzen ere. Bertan “yres” (irish) hitzarekin hainbat pertsona ageri zaizkigu²¹⁶. Honek 1528ko erroldan ageri diren datuetara garamatza, izan ere, hemen har dezakeen erlijio kutsua baztertu egiten du Donostiako datuak, benetako esanahi jentilizioa emanez²¹⁷.

Azken dokumentu honetan azaleratzen diren datuek normalean 4 irlandar aipatzen dituzte: horietatik hiruren izena badakigu: Juan, Tomas eta Juan de Corcam. Juanot Landriggerkoak, aldiz, 6 irlandar aipatzen ditu, horietatik lau ezkondata zeudenak. Seien izenak ematen ditu, gainera: Juan, Germin, Comogori, Tayque²¹⁸, Juan de Corcam eta Simon. Ikusten dugunez, beraien inguruko berriak topatzeko aukerak ez dira asko, gehienetan izenari bakarrik aipamena egiten baitzaio. Baina badugu lehenengo lorratz bat, Corcam abizena hain zuzen ere. Eta zorteko gara.

Pasaiarekin zerikusia duen dokumentazioak abizen honen inguruan hainbat datu jasotzen ditu. Hala, 1525 eta 1541eko Donibaneko batzarree-

213. VANES, J. (arg.), aip. lan., 169-170 orr.

214. CARUS-WILSON, E.: *The Overseas Trade of Bristol in the later Middle Age*, aip. lan., 218 orr.

215. IRIXOA CORTÉS, I.: *Pasaia...*, aip. lan.; IRIJOA CORTÉS, I. eta MARTÍN SÁNCHEZ, D.: *Errenteria a inicios de la Edad Moderna...*, aip. lan.

216. Bi irlandar ditugu “Yres” abizenarekin: Nikolas eta Martin Yres. Beste biri “yrés” lekutasun adjetiboa gehitzen zaie: “Joan de España, yres” eta “Genis de Galbai, yrés”. Ikus GARCÍA DE VICUÑA OLAIZOLA, I., aip. lan., 103 eta 105 orr.

217. Inkestan behin eta berriz “yreses” aipamena egiten da eta hasiera batean, heresekin nahastu zitekeen.

218. Baliteke 1550ean Migel Arizabalakoa errenteriarrak aipatzen duen “Tanquin” izeneko harakina izatea. Ikus GAO-AGG, CO MEJ 44.

tan, Juan Corcamgoa auzotarren artean agertuko da²¹⁹. Hurrengo urteetan Corcam abizena Donibanen mantenduko da, gutxienez XVI. mende amaiera arte²²⁰. San Pedrokoen inguruan datu gutxiago ditugu. Katalina Idiazabalgoa errenteriarak egindako lehen testamentuan, 1540. urtean, “*Lopeiça, hija de Corcam*” izeneko aipatzen du eta, momentuz, hau da, populazio horri dago-kionez, topatu dugun datu bakarra²²¹.

Bestalde, badugu beste iturri dokumental garrantzitsu bat, zuzenean badiarekin harremana duena: Errenteriari buruzko idatziak, hain zuzen ere²²². Hauek, gainera, daturik gehien ematen dizkigutenak dira. Martin Corcamgoa dugu 1527 abenduaren 15eko batzar ireki batean²²³, eta Oreretako Corcamdarrek izango ditugu irlandarren adibiderik nabarmenena. 1528an, Irlandan jaiotako Martin de Corcam Maria Sarastirekin ezkondua zegoen, hiru seme-alaba zituztelarik, eta 1547an hautesle bezala hautatua izango da.

Bestalde, Errenteriako udal aktek islatzen dituzten erabakietan oso adierazgarria den bat agertzen da: Tomas Corcam-en auzotartzea, hain zuzen ere. Bertan azaltzen diren baldintzak interesgarriak izateaz gain, gehien interesatzen zaiguna zera da, pertsona horri Tomas Brotan bezala ere aipamena egiten zaiola. Azken honi buruzko datuak urriak dira. 1528ko inkestak aipatutakoaren arabera, bere abizenak irlandar jatorria du. Halaber, 1531. urteko urtarrilaren 23an Pasai Donibaneko batzar bateko partaideen artean “Tomas de Brotan” dugu, baina ez dakigu Errenteriako bera den ala ez.

Informazio honen arabera, bai Brotan eta baita Corcam ere irlandar kutsuko abizenak dira. Lorratz hau kontutan izanda eta abizenek toponimia-rekin askotan duten lotura estua aintzat hartuz, biak lekuizenak direla pentsa dezakegu; zorionez, hala da²²⁴. Gaur egungo toponimian Corcam herria dugu Irlandako ipar mendebaldean, barnekaldean eta Ipar Irlandatik gertu. Leku urruna dela pentsa dezakegu, baina ez dugu ahaztu behar XVI. mende hasieran Amador Cotilloskoa bezalako sanpedrotarrek ipar kostaldean dagoen

219. Ikus eranskina eta PUA 1626-2, 256 au.-258 au. folk.

220. Badugu 1527 urte inguruan jaiotako Domingo Corcamgoa (“Dominic de Gorcam”) izeneko (APPLEBY, J. C.: *A calendar of material relating to Ireland from The High Court of Admiralty Examinations 1536-1641*. Dublin: Irish Manuscripts Commission, 1992, 8 orr.). 1597 errege-ontzietan joan zirenen artean Martin Corcamgoa zegoen (PUA, 1637-1). Bestetik, 1598ko urtarrilaren 3In Miguel Corcam Itxeberri bataiatu zuten, Pedro Corcam eta Margarita Itxeberriren semea.

221. GPAH-AHPG, 3/310, 8 au. fol.

222. Beste erreferentzia zehatzik eman ezean, oraingo datuak IRIJOA CORTÉS, I; eta MARTÍN SÁNCHEZ, D.: *Errentería a inicios...*, lanetik atera dira.

223. Baina zehazki aipatzen diren auzotarren artean. Ikus NEA, Ollacarizqueta, 75 kutxa, 20 zbk.

224. Eskerrak eman nahi dizkiogu Michael Barkham-i, bi toponimo hauen inguruan emandako azalpen eta argibideengatik.

Killibegs herrira joan zirela eta beraz, Corcam abizenak dinamika horrekin nolabaiteko lotura izan dezake.

Baina egiari zor, guri azaltzen zaigun Corcam horri gaur egungo koka-pena ematea zalantzan jarri behar dugu. Izan ere, Erdi Aro eta Aro Berrian dugun Corcam ez dirudi gaur egungoaren berdina denik. XVI. mendeko mapei esker beste informazio batzuk ditugu eskura. Diego de Homannek Maria Tudor eta Felipe II.ari aurkeztu behar zien Atlasa iturri geografiko bezala hartuz gero, Irlanda hegoaldean, Waterfordtik ez oso urruti, Cork-ekin nahastu behar ez dugun *Corcala* izeneko lekua ageri zaigu. Populazio hau Baltimore (*Beltemor*) eta Bere irla artean azaltzen da eta uste dugu gaur egungo “Cill Crochain” edo “Church of Crochan”-ekin bat datorrela²²⁵.

Brotan toponimoari buruz, berriz, euskaldunek Irlanda iparraldeko herriekin izan zuten harremanean jarri behar dugu begirada. Antzinako mapetan, besteak beste, 1543 inguruan Alonso de Santa Cruz-ek egindako “Islario General” delakoan eta Diego de Homannen Atlasean²²⁶, Brotam agertzen zaigu mendebal kostaldean. Gaur egun duen baliokidea ezin izan dugu topatu.

Brotan eta Corcamez gain, badaude irlandar kutsua darien beste abizen batzuk. Erreterian, 1521 urtean Juanes Deriangoa izeneko pertsona ageri zaigu; abizenak orain lantzen ari garen geografia esparruarekin lotura duela uste dugu, baina Thomas Corcamekin gertatu bezala, berari buruzko aipamen bakarra maiatzaren 20ko ahalorde batean aurkitu dugu²²⁷.

Baina, gure ustetan, badugu irlandarrak gurean egon zirelaren datu goiztiarrago bat. Hain zuzen ere, Donostiarekin auzitan aritzeko sanpedrotarrek 1497an ematen duten ahalordean. Bertan azaltzen diren 100 izen baino gehiagoen artean, Juan Galbaikoa ageri zaigu. Hasiera batean, “Galbai” hitza ikusi orduko, abizen eta hitz euskaldun baten aurrean gaudela pentsa dezakegu. Koldo Mitxelenak, adibidez, hori uste zuen. Baina 1566ko Donostiako errolda hartuz gero, argi dago halako hitza Galway herri irlandarri aipamena egiten diola²²⁸.

225. Hala “Corcam” “Crochain”-dik etorriko litzateke. Mapa honetarako, HUXLEY, S., aip. lan., 29 orr.

226. Bien irudietarako, ikus HUXLEY, S., aip. lan., 29 eta 31 orr.

227. NAO. Documentos, 179 kaxa, 16 zbkia. Bestalde, 1498 urte amaieran, San Pedro eta Donostiaren arteko auziko lekukoak aurkezten direnean, lekukoaren artean, San Pedroko auzotar moduan “Juanes Botaryn” agertzen zaigu. Abizenagatik, agian irlandarra litzateke zehazki ez badakigu ere (Brotan? Otelin?). Ikus ARChV. Pleitos Civiles. Fernando Alonso, Fenecidos, 1332-1, 7 at. fol.

228. Lehen argi ikusi dugun bezala. Mitxelenak berak 1566ko errolda zuen iturri moduan, baina kontutan hartu gabe Galbai hitzaren ondoren “yrés” hitza agertzen zela. Ald. MICHELENA, L., aip. lan., 91 orr. eta supra, 93 oharra. Orotariko Euskal Hiztegia,

c) Atlantiar isurialdea eta Frantzia

XVI. mendean, eta testuinguru belikoa zena zela, aurreko mendeetatik Frantziako Koroa osatzen edo osatuko zuten lurralde ezberdinekin izandako harremanak argiak dira. Hasteko, lerro hauetatik kanpo geratzen den Iparraldea. Baina Baiona eta Gaskoinia bezalako guneez gain, Cabreton, Bordele inguruak, Arroxela eta beste hainbat ditugu²²⁹. Britainia ere ezin ahaztu, gatz, gari eta ale hornidura leku garrantzitsua baitzen. Guretik hara egiten zuten ontzi eta marinela asko izango dira. Baina Ingalaterrak Akitania galdu ondoren eta, bereziki Errege Katolikoek Frantziarekiko etsaitasun politika sustatu ondoren, harremanak zaildu egin ziren. Horrek ez du esan nahi, inolaz ere, loturak etenik izan zutenik. Populazioaren egituraketaren aldetik, Iparraldeko gascoi zein euskal izenak alde batera utzita, Pasaialdean topatzen ditugunak hiru gunetara eramaten gaituzte: Britainia, Pikardia eta Borgoñara, hain zuzen ere.

Britainiar jatorria duen jendeari buruzko aipamen zehatz bat 1499an dugu; orduan Juan Esteban Bretainiako jostuna agertzen da Pasai Donibaneko biztanle bezala, “Petri Juan” ezizenez ezaguna dena²³⁰. Badago baina, herrialde zeltiar honekin izandako harremana islatzen duen abizen esanguratsua, Landrigger hain zuzen ere. Landrigger (frantsesez Tréguier) Britainia iparraldeko kostaldean dagoen herria dugu, pasaitarrek ezaguna zutena. Kontsultatu dugun dokumentazioak aditzera ematen duenez, inguru horretan itsaslapur edo kortsario ekintzak pairatu zituzten 1524an: “*los dichos franceses, de vn lugar que se dize La Andriggera, que es en el ducado de Bretaña, (...) despojaron a Tomás de la nao*”²³¹.

Abizen honen inguruko daturik zaharrenak XV. mendeko erdialdean ditugu. Batetik, 1448an, Donostiako San Bartolome komentuari Molino erroren erdiaren saltzailea Esteban Landriggerkoa zen, Bizente Landriggerkoaren semea. Biak Hondarribiko auzotar moduan ageri zaizkigu baina ordurako Donibanen finkatutako familia zelakoan gaude abizena, Hondarribira pasa

...

“galbahe” hitza “nagi” esanahiarekin ere jasotzen da (http://www.euskaltzaindia.net/index.php?option=com_content&Itemid=413&catid=228&id=276&lang=eu&view=article).

229. TRANCHANT, M.: *Le commerce maritime de La Rochelle à la fin du Moyen Âge*. Rennes: Presses Universitaires de Rennes, 2003; FERREIRA PRIEGUE, E. M.^a, aip. lan.; INCLÁN GIL, E., aip. lan.; IRIXOA CORTÉS, I.: *Pasaia...*, aip. lan.

230. ARChV. Reales Ejecutorias, 154-38 eta 155-62.

231. ARChV. Pleitos Civiles. Zarandona y Balboa, Fenecidos, 673-1, 284 at.-285 au. Halako erasoak ez ziren berriak, inondik ere. XV. mendean behin eta berriz aipatzen dira. 1462ko gertakari batek, adibidez, Juan Amasakoa eta Juan Migelez Arranomendikoa errenteriarrek ditu protagonistak. Antza denez, beraiek eskuratutako Bristolgo oihalak zeramatzan ontzia antzeman zuten bretoiek. Ald. FERREIRA PRIEGUE, aip. lan., 534 orr. eta honen 194 oharra. Ikertzaile honek “Johanot d’Amasa” eta “Johan d’Anomanda” izenak ezin zituen geografikoki topatu baina gure ustetan, argi dago errenteriarrek direla eta bigarrenak, zalantzarik gabe, Arranomendiri egiten diola aipamena.

zenik ez dirudi eta. Baliteke Bizente hau, 1456 urtean Ingalaterrako erre-garen aldetik 2 urterako ibiltzeko baimena lortu zuen pertsona bera izatea, Bristolgo merkatari zen John Shipwardek eskatuta²³².

Urte gutxiren buruan, San Pedroko elizaren eraikuntzarekin lotuta, bertako biztanleen artean Pedro Landriggerkoa, goitizenez “Pedro de Alen” duena, agertzen zaigu eta litekeena da 1448ko dokumentuan lekukoaren artean aipatzen den “Peru d’Alen” izatea²³³. Ondorioz, Landrigger abizena XV. mendearen lehen erdialdean finkatua ikusten dugu badiako bokalean, XVI. mende-
dean ugarituko da eta XVII. mende hasieran jarraipena izango du²³⁴.

Abizena San Pedrorra hedatuko da, XV. mendean bertako hainbat biztanle izango baitira abizen hori dutenak. Pedro Villaviciosakoaren emazte Katalina Landriggergoa sanpedrotarra, bere lekukotzaren arabera, 1468 urte inguruan jaio zen²³⁵. Halaber, Juan Martin Landriggerkoa Katalina Markotegiren senarra zen eta Diego Arias de Anayaren garaietan (1487-88 urte inguruan) arrantzale sanpedrotarrek sortutako istiluetan parte hartu zuen²³⁶. Bestalde, 1490ko urriaren 17an Oiartzungo lurra emandako ahalorde batean, Errenteriarekin arazoak konpontzeko, Vicent de Landrigger dago²³⁷. 1497an aldiz, abizen bereko hiru sanpedrotar dokumentatuak izango ditugu: bi Pedro eta Juan Perez bat, agian aita-semeak.

Beste informazioek abizenak badian zehar izandako hedapenaren inguru-
an hitz egiten digute. XVI. mende hasieran hainbat adibide aurki daitezke²³⁸. San Matetek bezala²³⁹, Errenteria-Orereta jo mugan izango du ordurako.

232. Urte horretako apirilaren 23an, Landriggerren, Juan Sanz Benesakoaren eta “Peter Gretege”-en aldekoa. Ikus CARUS-WILSON, E. M.: *The Overseas trade of Bristol in the later Middle Ages*, aip. lan., 109-110 orr.

233. IRIXOA CORTÉS, I.: *Documentacion...*, aip. lan., 21. dok. Bestalde, 1448ko lekukoaren artean ere, Juan de Aragon Donostiako auzotarra aipatzen da.

234. 1602ko Santiagoko Kofradiaren matrikulan azaltzen den lehen izena, Landrigger batxillerrarena da (PUA, 1725-1).

235. ARChV. Pleitos Civiles. Lapuerta, Fenecidos, 1597-1.

236. AGS. RGS. 1489-VII, fol. 299 (Jaén, uztailak 12).

237. OUA, C-4-6-1, 11 au.-13 at. folk. eta OUA, C-4-1-10, 19 au.-21 at. folk.

238. Hondarribiko tropek Logroñon 1521ean egin zuten alardean, Migel Landriggerkoa ageri da (AGS. CMH. Contaduría del Sueldo. Primera Serie, L 96-I, f. g.); Juanot eta Martin Landriggerkoak 1523ko uztailaren 12an izango ditugu, Donibaneko udaltzaba eta herriak Juanot Igeldokoarekin zuten auzian, azken honen lursail batean Donibaneko santutxorako gurutze bat jarri nahi izateagatik (ARChV. Pleitos Civiles. Zarandona y Balboa Fenecidos, 1510-2) eta Menjota Landriggerkoa donibandarra berriz, 1527 azaltzen zaigu (ARChV. Pleitos Civiles. Lapuerta, Olvidados, 748-1); 1541ean Martin Landriggerkoa Donibaneko kopero dugu (PUA, 1626-2 eta HUA, E-7-I-1-4).

239. Ziurrenik San Matet abizena Errenteriara XVI. mende hasieran pasako da. 1526an Juan San Matetekoa Errenteriako auzotar bezala azaltzen zaigu baina badakigu, berak aitortua,

Mingot Landriggerkoa donibandarrak 1497an Molinao inguruetan sagastiak izango baditu, gerora, 1509an, Oreretako auzotar agertuko zaigu. Itsas-jardueratan ibilitakoa dugu Mingot: azken urte horretan Pedro Garikanokoa legorretarrarekin auzi bat izan zuen, Irlandatik ekarritako 16 arrain kargen itzultzearen inguruan²⁴⁰.

Errenteriako adar hau udal bizitzako partaide izango da: 1521ean, Felipe Landriggergoa oreretarrak Ugarte oinetxeak eta Orreagako monaste-giak Oiartzunen dituzten sarobeak errentan hartzeko eskrituran parte hartzen du²⁴¹. Hainbat urte beranduago berriz, Juan Sanz Landriggerkoa dugu, Maria Perez Garitakoa errenteriarraren anaiordea²⁴².

Frantziarekiko lotura toponimiko argia Pikardia abizenean dugu. Besteak beste, Juan Sanz Pikardiakoa jostuna dugu horren adibide²⁴³. Errenteriako auzotar azaltzen zaigu XVI. mende hasieratik eta bertako bizitza politikoan parte hartu zuen. Alabaina, 1491 urte inguruan jaio zen, Pasai Donibanen; bertan emango ditu hainbat urte. Halaber, badakigu Juan Pikardiakoa ontzi-maisuairen semea zela²⁴⁴. Azken honen inguruan ez dugu datu askorik lortu. Besteak beste, badakigu 1524an Akular mendiarekin muga egiten zuen eta Molinao errekastotik gertu zegoen sagardi bat zuela²⁴⁵. Maisu Juan honen ondorengotzaren inguruan hainbat informazio jaso dugu. Juan Sanzez gain, Anton, ziurrenik bere semea dena, Donibaneko batzar orokorretan ikus dezakegu eta 1490 urte inguruan jaiotako Maria Pikardiakoa, Juan Nuñez Murukoa batxillerraren emaztea, bere alaba zelakoan gaude²⁴⁶. Esan bezala, Donibanez gain, abizena Errenteriarra hedatu zen eta hainbat kide bertan finkatu ziren. Horietako batzuk bizitza politikoan parte hartzeko aukera

...

jaiotzaz donibandarra zela (ARChV. Pleitos Civiles. Zarandona y Balboa, Olvidados, 673-1, 163 at.-164 au. fol.). Agian Juan hau gorago aipatutako Amadin sanpedrotarraren semea zen, zeina XV. mende amaierarako Donibanera joana zen.

240. ARChV. Reales Ejecutorias, 235-49.

241. NAO. Documentos, 179. kaxa, 16. zbkia.

242. Azken honek bere 1548ko testamentuan azaltzen zuenez. Maria, Esteban Irizarkoaren eskribaua zen. Ikus IRIJOA CORTÉS, I.; eta MARTÍN SÁNCHEZ, D.: *Errenteria a inicios...*, aip. lan.

243. Ez da, ordea, Euskal Herrian ikus dezakegun Pikardia bakarra. Bilbon ere, halakorik badugu 1516an eta Durangon berriz, 1541 urtea baino lehenago. SOLÓRZANO TELECHEA, J. A.; eta ARÍZAGA BOLUMBURU, B., aip. lan., 211 orr. Durangon, berriz, Domenja Pikardiakoa izango dugu. Ikus ARChV. Reales Ejecutorias, 617-30.

244. ARChV. Pleitos Civiles. Zarangona y Balboa, Fenecidos, 1510-2. 1530eko martxoan, 38 urte inguru dituela dio. Ikus GAO-AGG, CO CRI 2,2. Jostun bezala, EUA, A-1-2, 45 at.-46 au. (1523ko uztailak 29).

245. GAO-AGG, CO MCI 69.

246. HUA E-7-IV-5-9, 201-304 folioak.

izango dute, bereziki erregidore moduan: kargu horietan arituko dira Juan Sanz (1528, 1543), Robert (1531, 1536, 1542) eta Anton (1541)²⁴⁷.

Beste toponimo atlantiko bat Huyas dugu. Nantesetik gertu eta Loira ibaiaren bokaletik 50 kilometro hegoaldera dagoen île d'Yeu irlari dagokio²⁴⁸. Abizen honekin Pedro sanpedrotarra dugu 1497 urte inguruan eta 1531n, berriz, Jacques izeneko Donibaneko auzotarra. Ondorengo hamarkadetan abizenak bizirik jarraituko du²⁴⁹. Euskaldunentzako eta pasaitarrentzako, Yeu irla kongrioaren arrantzura joateko lekua zen baina baita beste hainbat produktu hartzeko tokia. XVI. mendearen bigarren erdialdean, 1558ko azaroan, Martin Santxez Zubiaurrekoa donibandarra "Huyas" irlara zihoan, bertan 350 dukat gastatzeko asmoarekin, beharrezko zituen gari eta hornidurak erosteko²⁵⁰.

Borgoña abizena (batzuetan Bergoña bezala idatzita) XVI. mende hasieran azaltzen zaigu lehenengo aldiz. Jaso ditugun datuen arabera, Pasai Donibanera mugatzen dela dirudi. Hala, Juanes Borgoña 1519an ikusteko aukera dugu, bertako ordezkarien artean²⁵¹. Bere seme Juan Borgoñakoa 1547 inguruan hil zen. Azken honen arreba, berriz, Maria Martin Borgoña dugu, Juan Eborakoaren ama²⁵².

Era finkoan azaltzen diren abizen toponimiko hauez gain, beste hainbat adibide izango ditugu. Badiaren eta atlantiar isurialdearen arteko harremanak ez ziren hautsi ezta XV. mende amaieratik Frantziako koroaren eta Gaztelaren artean egon zen ia etengabeko gerra testuinguruan ere, 1525 urte hasieran Johanot Arnaut bordelearrak zioen bezala²⁵³. Merkataritza jarduerak, beraz, gure artean hamaika lekutako jendea egotea posible egin zuen.

Atzerritarren iritsiera eta badian edo badiako biztanleekin itsas-jarduerak burutzearen arteko harreman estua Capbretongo auzotarren 1530eko lekukotzetan ikus dezakegu²⁵⁴. Batetik, 1485 urte inguruan jaiotako Sabat

247. IRIJOA CORTÉS, I.; eta MARTÍN SÁNCHEZ, D.: *Erretereria a inicios...*, aip. lan., 2. eranskina.

248. BARKHAM HUXLEY, M.: "La industria pesquera...", aip. lan., 38 orr.

249. 1554an, San Pedron Grazian eta Migel Huyasekoak bataituko dituzte; lehenengoa Juanot Huyaskoa eta Marta Arizabalokoaren semea eta bigarrena, berriz, Jacques eta Maria de Ibason-ena.

250. Eskritura, GPAH-AHPG, 3/342, 109 au. folioan.

251. IRIXOA CORTÉS, I.: *Documentación...*, aip. lan., 102 dok.

252. HUA, E-7-I-1-4.

253. "este testigo partyó de Burdeos con seys naos cargadas de vinos para el puerto del Pasaje con saluoconduto del enperrador e después acá está en los lugares del Pasaje e La Rentería con el dicho saluoconduto". ARChV. Pleitos Civiles. Zarandona y Balboa, Olvidados, 673-1, 485 au. fol.

254. GAO-AGG, CO CRI 2,2.

Labordakoa dugu. Donibanen gazte hasi zen morrontza lanetan, 8 urtez; 1510. urtean irten zen bertatik (25 bat urterekin) eta ordutik itsasoan zehar ibili zen, denbora gehiena ontzi kanpotarretan, baina baita Lezokoetan ere, Ingalaterratik gauzak ekarriz. Bestalde, Bernart Amugrueren hitzak ditugu. 1496 urte inguruan jaioa, Donibanen morrontza lanetan aritu zen 5 bat urtez eta 1520 urte inguruan kanporanzko bidea egin zuen. Kanpoan izateak ez zuen badiarekiko harremana galtzea ekarri, urte horietan zehar Donibanetik sartu-atera egon baitzen. Horrez gain, Juan La Lana capbretondarrak Pasaian Hondarribia eta Capbretongo ontzietan ibilia zela zioen²⁵⁵. Lekuko horiek aditzera ematen dutenaren arabera, 16-17 bat urterekin hasi ziren Donibanen lanean, 5-8 urtean morroi moduan lan eginez.

Bestalde, 1526an 18 urteko Juan Cabreton dugu, “*natural que se dize de Cabretón, que es en el regno de Françia, estante al presente qu’es del puerto del Pasaje, jurydición de la vylla de Fuenterravya*”. Galdeketari emandako erantzunei esker, atzerritar hauen txertatzearen inguruko datu azpimarragarriak ditugu:

“dixo este testigo que no conosçe a ninguno de los conthenidos en la dicha pregunta, çebe to a Martín Sánchez de Byllabiçiosa, que le conosçe de seys años e más tiempo porque este testigo como bibe con vn hermano suyo que es vezino del dicho lugar del Pasaje”²⁵⁶.

Aurrekoak 16-17 urterekin itsasoan hasi baziren, Juan 12 urterekin Donibanera etorri zen, bere anaia bertan zegoela aprobetxatuz. Alegia, bere jatorriko komunitate bateko kide bat bertan zela. Denbora gutxiren buruan hasiko zen marinel, izan ere, Esteban de Santiago eta Martin Santxez Villaviciosakoa Bordelera joan zirenean, bera 2-3 egun lehenago irten zen hara joateko Mitxel izeneko Donibaneko auzotarraren galeoian, kortsariotza lanean, Pasaian ezkonduakoa baina Iparraldekoa zen Bartolome Aristegikoarekin batera²⁵⁷.

Azkenik, toponimia aldetik zailtasunak erakusten dituzten abizenen inguruan hitz egin behar dugu. 1497an sanpedrotarrek ematen duten ahalordean, Juan Perez Colardaokoa dugu. Jatorri toponimiko zalantzarria duen abizena da. XVIII. mendean zehar Frantzian “Collardau” abizena topa dezakegu, Saint-Maigrin edo Champagnac-en, Bordeletik ez oso urruti. Frantzian

255. Eta bide batez, La Lana abizenaren jatorria argitzen lagunduko liguke.

256. ARChV. Pleitos Civiles. Zarandona y Balboa, Olvidados, 673-1, 295 at. fol. Ontzi gipuzkoarretan Iparraldeko zein Frantziako pertsonak aritzea ere ohiko kontua bihurtu zen Galiziako bale-ehizarako ere, 1530 urterako. Ikus VALDÉS HANSEN, F.: *Los balleneros en Galicia (siglos XIII al XX)*. A Coruña: Fundación Pedro Barrié de la Maza, 2006, 146-147 orr.

257. ARChV. Pleitos Civiles. Zarandona y Balboa, Olvidados, 673-1, 296 au-at. Aristegiren aipamenerako, ikus ibidem, 336 au.

antzeko abizenak ere baditugu, besteak beste Colardeau, Coulardeau eta Colardot. Horietako batzuk XVII. mende hasieratik²⁵⁸.

1525ko abuztuan Pedro Volartekoa San Pedroko auzotar bezala azaltzen zaigu²⁵⁹. 1528ko inkestan *Maria Velartekoa* izeneko emakume bat aipatzen da, esklaba bat morrontza lanetan zuena. Azkenik, XVI. mende hasieran Kristobal Bulartekoa dugu Erreterian bizitzen eta bertako auzotar bezala.

Bolart, Bulart, Belart, abizen horiek beste esparru geografiko batzuetara begiratzean behartzen bagaituzte ere, toponimia aldetik zaila zaigu leku zehatz bat hartzea. 1584an, Donostiako auzotar batek Bulenart abizena zuen eta orduan aipatzen da Lovainako flandriarra zela²⁶⁰. Alabaina, dokumentazioak Iparraldera edo Frantziara begiratu behar dugula dio. 1538an Maria Lopez Bulartekoa eta Pedro Saez Iraurgikoa hondarribiarraren arteko ezkontza hitzarmena adosten zen. Maria Donostiako auzotar Pierres Bulartekoa eta Katalina Arsukoaren alaba zen. Eskriturak baina, zuzenean ez bada ere, guztiak San Pedroko biztanleak direla adierazten digu: Mariari ezkonsarian emandako ondasunak San Pedro zeuden etxe bat, denda bat eta baratze bat ziren. Halaber, Maria, Kristobalen arreba zen; dokumentuan azken hau Erreterian bizi eta bertan ezkondua zegoela aipatzen du eta hala da; izan ere hiribildu horretako errejidore bezala hautatua izan zen 1540ean²⁶¹.

258. www.geneanet.org/genealogie/fr/collardau.html. Bestetik Laba/Lauba eta agian Labao ditugu. XVII-XVIII. mendeetan zehar, "Lauba" abizena Akitanian ikus dezakegu. Agian hemen topatu behar dugu Pasaiarekiko harremana baina baieztapen finkorik ezin dugu egin ([http://es.geneanet.org/search/?page_size=20&resource=arbre&vplist\[name\]=&name=LAUBA&nbindi=&country=®ion=&subregion=&place=&annee_debut=1400&annee_fin=1650&source=&sub_frm4fd96d8058073.x=37&sub_frm4fd96d8058073.y=12&ajax_ok=1](http://es.geneanet.org/search/?page_size=20&resource=arbre&vplist[name]=&name=LAUBA&nbindi=&country=®ion=&subregion=&place=&annee_debut=1400&annee_fin=1650&source=&sub_frm4fd96d8058073.x=37&sub_frm4fd96d8058073.y=12&ajax_ok=1)).

Bestalde, garai honetan Pedro Oliverkoa izango dugu. Osoa zaila zaigu abizenaren nondik norakoa azaltzea. Ingalaterrako merkataritzaren inguruan kontsultatu ditugun lanek ez dute asko aipatzen. Horregatik, erabaki dugu frantziar jatorrikoen artean jartzea. Edonola ere, ohartu behar dugu gure uste besterik ez dela. Abizenaren inguruan, honakoak aipatu ditzakegu. Pedro Oliver-ekoa 1525an agertzen zaigu San Pedroko auzotar bezala (ARChV. Pleitos Civiles. Quevedo, Fenecidos, 1349-2, 203 fol.). 1528ko galdeketa adierazi zuenaren arabera, 1472. urtean jaio zen eta pasaitartzat du bere burua. Abizena hainbat hamarkada geroago aurkituko dugu, 1569ko abuztuaren 27an, San Pedro, Katalina Oliverkoak bere haurra bataiatu baitzuen. Haurraren eta aitaren izenik ez da aipatzen, ama da abizen hori duena.

259. ARChV. Pleitos Civiles. Quevedo, Fenecidos, 1349-2, 203 au. fol.

260. ARAGÓN RUANO, A., aip. lan., 165 orr. Badugu Magdalena Balac-ekoa izeneko emakume bat, baina ezer gutxi dakigu berari buruz: 1499an jaioa zela, Sabadina San Bizentekoaren alaba zela eta 1553rako alarguna zela (HUA, E-7-I-1-4).

261. GPAH-AHPG, 3/324, 92 au.-94 at. folk. Kristobalantzako, ikus IRIJOA CORTÉS, I.; eta MARTÍN SÁNCHEZ, D.: *Erreteria a inicios...*, aip. lan.

d) Flandria

XVI. mendean ez bezala, XV. mendeko dokumentazioan Flandriari buruz oso datu gutxi ditugu, nahiz eta pasaitarrak garraiolari moduan askotan iritsi ziren²⁶². 1550tik aurrera aldiz, hainbat pasaitar han bizitzen ikusiko ditugu eta oso ongi islatuko dute bokaleko komunitateetako kide batzuen garapena, garraiolari izatetik merkatari izatera pasako baitira²⁶³.

Badian zehar ibili edo finkatu zirenen artean datuak urriak badira ere, badaude batzuk. Horietako bat 1497 urtean Pedro Trintxerkoari hartutako lekukotzan aipatua dugu. Pedrok zioenez, flandriar baten emazteak, garia buruan zeramala, Donostiatik San Pedrorako bidea egiten ari zen momentuan haurra izan zuen; geroago flandriar honen izena Adrian dela badakigu²⁶⁴. Datu hauei auzi berdinean azaltzen den beste bat gehitu behar diogu. Izan ere, 1498ko urrian lekukoak aurkezten doazenean, auto hauetan testigu gisa Adrian Gelandakoa agertzen zaigu²⁶⁵.

Hainbat urte geroago, 1541ko irailean, adibide bitxia dugu. Orduan Martin Santxez Villaviciosakoaren alargun zen Maria Migel Santiagokoak bere testamentua egin zuen. Bertan hainbat emakida xedatzen zituen, horietako bat Adrian izeneko morroi flandriarri zuzendua. Maria Migelek aipatzen zuenez, hainbat urtetan bikotea zerbitzatzen egon ondoren, Flandriara itzulia zen. Testamentu egileak ez zituen eskainitako lanak ahazten eta 6 dukat ematea erabaki zuen, zor zitzaiona kitatzeko asmoz²⁶⁶.

262. Besteak beste, Juanicot Cotilloskoa 1491 urtean, Bordeletik L'Ecluse edo Sluis hiri flandriarrera ardoa garraiatzeko asmoarekin. Euskaldunek Flandriarekin zuten harreman estuaren isla dagoeneko 1455 urtean dugula, Gaztelarren Kotsulatutik "bizkaitarrak" (euskaldunak, kantabriarrak, galiziarak, asturiarrak eta, 1530era arte, nafarrak) beraien nazio propioa sortu zutenean. CASADO ALONSO, H.: "La nation et le quartier des Castellans de Bruges (XVe-XVIe siècle)". In: BOTTIN, J.; eta CALABI, D.; (zuz.): *Les étrangers dans la ville: minorités et espace urbain du bas Moyen Âge à la*. Paris: Fondation Maison des sciences de l'homme, 1999, 369 eta 371 orr. (365-376). Egile berak ere dio Brujasen zegoen "nazio gaztelarra" Europako garrantzitsuena eta ugariena izan zela.

263. IRIXOA CORTÉS, I.: *Pasaia...*, aip. lan., 55-57 orr. GOIENETXE PATRÓN, R., aip. lan., eta bereziki, egile hauek erabiltzen duten ARChV. Pleitos Civiles. Taboada, Olvidados, 580-1 auzia.

264. "...que la mujer de [txuriz] flamenco, viniendo cargada de la vylla de San Sabastyán, parió en el camino" (ARChV. Pleitos Civiles. Fernando Alonso, Fenecidos, 1330-1, LXXXII au. eta LXXXVI at.-LXXXVII au. folk.).

265. ARChV. Pleitos Civiles. Fernando Alonso, Fenecidos, 1332-1, 26 at. fol. (1517-1520). Donostiako kasuan, horietako asko goarnizioko soldaduak izan zitezkeen. Ikus ARAGÓN RUANO, A., aip. lan., 105 orr.

266. IRIXOA CORTÉS, I.: *Pasaia...*, aip. lan., 43 orr. eta bereziki, ARChV. Pleitos Civiles. Masas, Olvidados, 846-6, 64 au.-at. fol. Morroiek etorkinen demografian izan zuten eraginaren inguruan, ald. NAVARRO ESPINACH, G.; IGUAL LUIS, D.; eta APARICI MARTÍN, J., aip. lan., 194-196 orr.

Bestalde, eta gorago aipatu dugun Londres abizenaren kasuaren ildotik, XVI. mende hasierako datu bat aipatu behar dugu. Juanot Llastreskoa sanpedrotarrak “maisu Coman” ezizena zuen. Gure ustetan flandriar jatorriko abizen oso argia islatzen du (Koeman), baina zergatia zein den azaltzeko ez dugu inolako daturik²⁶⁷.

e) Italia

Gure auzotarrak Mediterraneo aldean ikusteko aukera izango dugu XV. mendearen amaieratik²⁶⁸. Errenteriarren inguruan ditugu daturik gehienak. Kontutan hartu behar dugu XIV. mende amaieran eta XV. mendeko lehen erdialdean Valentziatik Flandriarako bidea egiten zuten ontzi gehienak genoarrak eta “bizkaitarrak” zirela. Ondorengo hamarkadetan, 1474-1513 artean, gaztelarren kopurua gailenduko da (%75) eta hauetatik ia erdia (%47) Santander eta Hondarribia artekoek osatzen zuten, tartean errenteriarrek²⁶⁹. Datu hauei esker, hainbat garraiolarien izen-abizenak dakizkigu, guztiak badiako hiribilduko auzotarrak: Migel Urdinolakoa, zeinak Valentziatik Londres eta Bristolera hainbat merkatari italiarren salgaiak eramane zituen; Martin Igeldokoa, merkatari galiziarren produktuak Valentziara eramane zituena. Hauen artean Juan Granadakoa da adibiderik azpimarragarriena, Mediterraneo mendebaldean zehar ibili baitzen XV. mende amaieran, Valentzian, Sizilian eta Afrika Iparraldean. Horrez gain, ezin ditugu ahaztu XVI. mendetik aurrera Mediterraneoan zehar eman ziren etengabeko liskarrak, gure auzotarren jarduera militarrek aregotu zirelarik²⁷⁰.

267. ARChV. Pleitos Civiles. Quevedo, Fenecidos, 1349-2, 45 at. fol.

268. Ald. HEERS, J.: “Le commerce des Basques en Méditerranée au XV^e siècle (d’après les archives de Gênes)”. In: *Bulletin Hispanique*, 57 (1955), 292-324 orr. eta INCLÁN GIL, E., aip. lan. Oharkabea pasa den adibide bikain eta zoragarri bat, 1517an Juan Martinez Isturizagakoa donostiarraren kontakizunak dira. Ikus *Colección de Documentos Inéditos para la Historia de Guipúzcoa*, 2. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, 1958, 9-48 orr.

269. HINOJOSA MONTALVO, J.: “Las rutas del Atlántico y del Mar del Norte”. In: SESMA MUÑOZ, A. (zuz.): *La Corona de Aragón en el centro de su historia. Aspectos económicos y sociales (1208-1458)*. Zaragoza y Calatayud, 24 al 26 de noviembre de 2009. Zaragoza: Gobierno de Aragón, 2009, 336 orr. (309-344) (<http://es.scribd.com/doc/91258575/Actas-La-Corona-de-Aragon-en-el-centro-de-su-historia1>) eta IDEM: “Intercambios y relaciones entre Valencia y las ciudades marítimas del norte europeo”. En: REGLERO DE LA FUENTE, C. M. (coord.): *Poder y sociedad en la Baja Edad Media hispánica. Estudios en homenaje al profesor Luis Vicente Díaz Martín, tomo 2*. Valladolid: Universidad de Valladolid, 2002, 997 orr. (993-1005).

270. IRIJOA CORTÉS, I.; eta MARTÍN SÁNCHEZ, D.: *Errenteria a inicios...*, aip. lan. eta IDEM: *Errenteria XVI. mende hasieran...*, aip. lan. Sevillarako aldiz, oso datu gutxi ditugu XVI. mende hasieran. Ald. OTTE, E.: *Sevilla y sus mercaderes a fines de la Edad Media*. Sevilla: Fundación el Monte, 1996.

Hortaz, badiako biztanleen eta italiarren arteko harremanak beste geografia esparru batzuk baino ilunagoak badirudite ere, egon bazeudela ondorioztatu dezakegu. Ez bakarrik pasaitarrek lurralde horiek jomuga zituztelako, baita italiarrek edo errepublika italiar ezberdinek, beraien mertakal garapenean Pasaia ainguraleku moduan erabili zutelako ere. 1524ko bi lekukotzek, gurean italiako marinel edo itsas-gizonen adibiderik nabarmenenak ematen dizkigute. Batetik Felipe de Venecia beneziarra dugu, 1496 urte inguruan jaioa; bestetik Antonio del Águila, Genoako erreinuko L'Águila herrikoa, 1499an jaioa. Lehenak Pasaia biztanle ("estante") moduan aurkezten du bere burua eta momentu horretan ez du auzotartasunik. Antoniok, berriz, L'Áquilako biztanle eta auzotar dela aitortzen du eta gainera, Esteban Santiagokoa eta Martin Santxez Villaviciosakoa duela bi urtetatik ezagutzen zituela²⁷¹. Antonioren kasuak finkatze prozesu baten hasiera bati lotu diezakiok; Feliperenak, aldiz, harreman sendoagoak isla ditzake, bertan bizi delako eta ez duelako "italiar" auzotasunik.

Harrigarria bada ere, beraiek ez dute Italiari buruzko lehen aipamena osatuko. Hainbatetan aipatu dugun 1497ko zuziko testigantzak hartzerako

271. ARChV. Pleitos Civiles. Zarandona y Balboa, Fenecidos, 673-1, 139 au.-159 au. (1526 urtea). Felipe Beneziak zera zioen: "natural que se dixo ser del reyno de Venecia, estante al presente en el lugar del Pasage (...), que es de hedad de treynta años e que es natural de Venecia, pero no tiene avn vezindad (...) que conoçe a los dichos Esteban de Santiago e Martyn Sánchez de Villaviçiosa, maestros de naos, de tres años ha esta parte, porque este testigo ha andado e andovo en vna nao de el dicho Santiago, en obra de quatro meses, por la bista e habla e conversaçión que entonçes tomó con ellos (...) este testigo se hizo marinero de la nao del dicho Esteban de Santiago e ansy fecho por marinero de la dicha nao, se entró en la dicha nao estando la dicha nao en el dicho puerto del Pasage e fue dentro en ella, hasta que llegaron delante la dicha çibdad [Bordele], e porque yvan en compañia las naos de el dicho Martyn Sánchez e Esteban, solían entrar los unos en las naos del otro e los otro [sic] en la otra (...) después que ansy sacaron la dicha artilleria desde a quatro días, vyo este testigo los tyros de las naos del dicho Esteban e Martyn Sánchez junto a la casa del dicho Martyn Sánchez, e este testigo preguntó por qué las avía sacado la artylleria de las naos e le respondieron el piloto de la nao del dicho Esteban e algunos marineros, que ansy se avyan conçertado los maestros e los mercaderes que avían afleytado las naos...".

Antonio del Águila, "vezino que se dixo ser de la Águyla, que es en el reyno de Genoa, (...) que es de hedad de veynte e syete años poco más o menos e que es natural e bezino de la Águyla, que es en el reyno de Genoa, (...) andovo en çierto tiempo en la nao de Esteban de Santiago (...). Conoçe a Esteban de Santiago e Martyn Sánchez de Villaviçiosa, maestros de nao, (...) de dos años e medio a esta parte; que este testigo, la prymera vez es [sic] començó a conosçer en el dicho lugar del Pasaje e porque (ha) andado çierto tiempo en la nao de el dicho Esteban (...). [Duela 20 hilabete] Miguel de Santiago e a Estevan de Santiago, su padre, conçertándose con este testigo para que fuese en la nao por marinero, le dixeron a este testigo que ellos avían afleytado su nao para Burdeos çiertos mercaderes ytalianos por cargar de linos e pasteles para los traer a los puertos de Vizcaya".

garaian, pertsonen artean “Iohan Genovez” bat ageri zaigu²⁷². Pertsona bera 1525 urtean aurkituko dugu, oraingoan San Pedroko auzotar bezala²⁷³. Maila juridikoaren ondorioa argia da, bertan ezartzea erabaki zuela adierazten baitu. Juan 1465 urte inguruan jaio zen eta XVI. mendearen hasierako urteak joan ahala, bertan finkatu zela dirudi; noiz hil zen ez dakigu, baina bere datu gehiagorik topatu ez dugunez (ezta 1528ko inkestan ere), 1530 urte inguruan zendu zela pentsa dezakegu. 1525ean hartu zioten lekukotzan, duela 46 urte-tik ordura arte San Pedroko lursailen inguruko berriak zituela aipatzen du, alegia, 14 urte zituenetik²⁷⁴. Horren gazte izanda, baileteke gurera Felipe eta Antonio bezala iriste: Italiako ontzietako eskifaiaren partaide gisa, 12 bat urterekin edo, 1478an²⁷⁵.

Pasaialdean finkatutako italiar baten inguruan dugun beste iturri bat 1528 espedienteak osatzen du. Bertan Luca izeneko beneziar bati egiten zaio aipamena. Bere inguruan ez da gauza handirik aipatzen, baina datu eskas hauek argi uzten dute gure artean denbora zeramala eta inguruan ezartzeko asmoa zuela; ordurako alaba ezkonduak zituelaren datuak hori agerian uzten du²⁷⁶.

272. Zehazki, 1498ko azaroan hartutako lekukotzetan. Ikus ARChV. Pleitos Civiles. Fernando Alonso, Fenecidos, 1332-1, 27 au. fol. Deban ere, Juan de Genova izeneko auzotarra ageri zaigu XVI. mende hasieran. Itsas-jarduerekin lotua zegoen, bere aita berarekin bizi zen eta Grazia Amezqueta/Alegriakoarekin ezkondata zegoen. FERNÁNDEZ MARTÍNEZ, M.; HERRERO LICEAGA, V. J.; eta MONTECELO FUENTEFRÍA, L., aip. lan., 514, 535-536, 551 eta 574 orr.

273. ARChV. Pleitos Civiles. Quevedo, Fenecidos, 1349-2, 213 au. eta hh. folk. “Juan Ginobes” bezala.

274. Batzuetan “Genovés” abizenak esklabu turkiarrei aipamena egin diezaieke. 1566ko Donostiako erroldak halako adibide bat jasotzen du, “Francisco Ginobés o Turquesco”, zeina greziarra zen eta 1572an hainbat arazo izan zituen (ARAGON RUANO, A., aip. lan., 164 orr.). Alabaina, errolda berean badaude “Gacome Ginobés”, “Bartolomé Balentin ginobés” edo “Joan Çiçiliano, levantisco” izenekoak. Ikus GARCÍA DE VICUÑA OLAIZOLA, I., aip. lan.

275. Lekukotzen dinamikak lekuei buruzko lehenengo oroitzapenak 15-20 bitartean jartzen dituzte. Hauetan aipatzen diren adinari buruzko datuak beti tentuz erabili beharrekoak badira ere, baieztapena egiteko, batzuetan lekukoek dokumentazio idatzia erabiltzen zuten. Hala ikus dezakegu 1501an Donostia eta Errenteriaren arteko auzi batea aurkeztutako bi lekukoetan. Batetik, Hondarribiko auzotar zen Anton Perez Agirrekoa “zaharrak”, hau zioen: “dixo que hará setenta e çinco annos por Santo Antón primero que berná, porque lo tiene escrito en su libro”. Bestetik, Donostian jaiotako eta San Pedroko bikariorde zen Pero Lopez Etxezarretakoak esandakoak ditugu: “Fue preguntado este testigo cuántos [annos] ha. Dixo que había çinquenta e ocho annos en el mes de ssetiembre que agora viene, que su padre d’este testigo lo tenía escrito en su libro”. OUA, C-4-3-2, 139 au. eta 166 au.-at. folk.

276. ORELLA UNZUÉ, J. L.: *Las raíces de la Hidalguía...*, aip. lan., 89-90 orr. XVI. mendearen bigarren erdialdean ere italiar kutsu nabaria duten abizenak ikusteko aukera izango dugu. San Pedron “Génova” abizena agertuko da: Maria Martin Genova Gayangos, 1562ko azaroaren 30ean bataiatua (Juan Genobakoaren alaba). Urte batzuk lehenago, 1557ko urriaren 21ean, Alexandre Genova eta Maria Ortiz Laubakoak izenik gabeko umea bataiatuko dute. Donibaneri dagokionez Venecia abizena Donibaneko bataiatuen artean agertzen da 1594an.

Felipe de Venecia eta Antonio dell'Aquilaren adibideek atzerritarrek badia ezagutzeko izan zezaketen aukeraren inguruan hitz egitera garamatza. Itsasoa bare zegoenean bidaia jarraitzeko ez zegoen arazorik; baina eguraldiak txarrera egiten zuenean, badian halabeharrezko egonaldiak egin behar ziren, ekaitzek eta enbatek noiz atertuko zain. Hori da 1531ean, Londresetik bueltan, Petri eta Lorentzo Cardel anaia donostiarrei gertatu zitzaiena.

Urte hartan beraien "Nicolasa" naoa Pasai Donibanen ainguratu zuten eguraldi kaskarra zela eta. Itsasontziak Livornora zemaratzan salgaien artean, Dubrovnik edo Ragusako batzuk zeuden²⁷⁷. Produktuen inguruan sortutako auziak Donostian izan zitekeen italiar komunitatearen inguruko datuak ematen dizkigu; hainbatetan aipatu den logikaren ildotik, hiribilduan behin-behingo zeudenak bertan bizi zirenen etxeetan gelditzen zirela ikus daiteke²⁷⁸. Horien artean Jeronimo Buenaventura dugu, bere kasuak Italiako errepublika ezberdinetako meneko edo auzotar ezberdinen artean sor zitezkeen loturak islatzen baititu. Auzi horretan, Jeronimok zera adierazten zuen:

"dixo que es verdad que *Françisco Ariano, beneçiano, que posa en la casa d'este testigo y vino en la dicha nao por mercader o fator de mercader*, le ha rogado y encargado dibersas vezes los días pasados para (que) los dichos çinco paquetes de cariseas se traaujase por lleuar a Françia o se pusieren a buen recavdo...".

Era berean, 1501 inguruan jaiotako Paulo Beberin merkatari genoarrari zera galdetzen zitzaion: "*sy posan juntos este testigo e Françisco Ariano, veneçiano, en la posada de Gerónimo Buenaventura que es en la villa de Sant Seuastián*"²⁷⁹. Pentsa dezakegu, beraz, Buenaventuraren ostatuak nola-baiteko erreferentzia puntu osatzen zuela italiarrentzako. Genoar honen inguruan ez dugu datu gehiagorik topatu, baina badugu oso esanguratsua den bat. 1525eko maiatzaren 9an Luis Cruzat merkatari iruindarraren eta Maria Gomez Erbetakoa andrearen ezkontza hitzarmenean, bere izena aipatzen zen²⁸⁰. Mariaren gurasoek ezkonsari gisa eman zutenaren artean, Andre Maria kalean zeuden etxe batzuk eta beraien gozamina zeuden²⁸¹. Orduan baina, etxeak hiru urteko epeaz errentan emanda zeuden; nori eta Buenaventurari:

277. Uztailean zera adierazten zen: "la dicha nao avía quatro meses que avía aportado al Pasaje por estar fecha ynnabegable no podían seguir el dicho baje" (ARChV. Pleitos Civiles. Zarandona y Wals, Olvidados, 997-7, 27 at.). Sizilian izen bereko herria badago ere, Albizturri errepresalia gutuna bidaltzen zitzaioenan "senoría de Arragoça" eta "çiudad de Arragoça" aipatzen da, Inperio Otomandarrari zergak ordaintzen zizkiona, gainera. Honek argi eta garbi erakusten du Dalmaziako Errepublika famatuari egiten diola erreferentzia.

278. Ibidem, 11 at. eta 12 au. folk.

279. ARChV. Pleitos Civiles. Zarandona y Wals, Olvidados, 997-7, 2 at. fol.

280. FERNÁNDEZ ANTUÑA, C. M.: "Nota sobre el caserío...", 3. dok., 74 orr.

281. "el usufruto prestación avitado e renta de unas casas que en la dicha villa tienen en la cal[le] de Santa María, sobre la puerta nonbrada Santa María, que se atienen de la una parte

“E por quanto de presente dixieron los dichos bachiller [Erbeta] e su muger que las dichas casas tenían arrendadas por tiempo y espacio de tres años a Gerónimo de Buenabentura, mercadero ginobés, el qual vive en ellas por cada un año beynte ducados, que dende agora le traspasavan e traspasaron al dicho Luys Cruzat como a esposo e marido de la dicha María Gomes, su hija, e para en aumento de la dicha su dote, la dicha renta para que por sí o por quien él quisiere pueda cobrar el dicho arrendamiento y renta para en adelante, teniendo la dicha casa e conservándola en lo que está”.

1531n etxe berean jarraitzen zuen ala ez, ez dakigu, baina argi dago oraindik ere Geronimo Donostian bizi zela, hau da, gutxienez 6-7 urte zera-matzala gure artean. Bere finkapena islatzen duen datua 1531ko auzi horretan dugu, hainbat alditan Donostiako auzotar moduan aipamena egiten baitzaio²⁸².

Horrez gain, prozesu horrek beste datu bitxi bat eskaintzen digu. Donostiako alkatearen aginduz merkatalgai ragusarrak bahitu egin ziren eta beraien salmenta enkantean ateratzea erabaki zen. Berria Donostiako kaleetatik zabaltzeko, abizen oso esanguratsua duen pertsona bat aukeratu zuten pregoilari gisa, “Juan de Genoba” izeneko bat hain zuzen ere²⁸³.

Bestalde, genoarrentzako Pasaia ez zen guztiz ezezaguna. 1489an, Sabad Aldabekoa hondarrabiarrak, horietako hainbatekin kontu-kitatzea egitekotan zela, genobarrek, San Pedron ainguratuta zuen naoa bahitzeko baimena lortu zutelaren berri izan zuen²⁸⁴. Ildo beretik, 1526an Pasai Donibane Vicente de

...

a la puerta e barbacana de la dicha villa e de la otra a la dicha calle pública, con más el uso e presta[çión] del dicho balluarte e cubo que a voluntad de la dicha villa tienen pagando el dicho Luys Cruzat o sus caseros e renteros el dicho çenso por todo el dicho tiempo de los dichos veynte años, que comiençan a correr (...) dende el dicho día en adelante”. Ibidem.

282. Urte horretako uztaillean, adibidez. Ikus ARChV. Pleitos Civiles. Zarandona y Wals, Olvidados, 997-7, 29 au. fol.

283. Ibidem, 12 au., 13 at., 15 au. edota 21 au. folk. Ez dakigu San Pedron azaltzen zaiguna bera den, dokumentazioak azaleratzen dituen italiar askok halako izen-abizenak baitzituzten. Dena den, pregoilariaren datuak beste hausnarketa bat egitera garamatza: ez ote zen enkantearen berri emateko italiar bat hautatu, hiribilduan eta inguruetan egon zitezkeen beste italiarrek horren berri zehatza eta ulerkorra izan zezaten?

284. AGS. RGS. 1489-III, 172 fol. (Medina del Campo, martxoak 19): “Saba(d) de Aldabe, vesino de la villa de Fuentarrabía, nos hizo relación por su petición que ante nos en el nuestro Consejo presentó, diciendo *qu’él tiene çiertos debates e cuentas con algunos genoveses* e otras personas, las quales dis que no han querido ni quieren acabar las dichas cuentas. Como quier qu’él está presto de lo hazer, segund que dixo que veríamos por vn requerimiento que ante nos en el nuestro Consejo presentava, que dis qu’es agora venido a su notiçia *que los tales genoves(es) e otras personas han ganado de nos algunas cartas para le aver de embargar vna su nao que tiene en el puerto del Pasaje*, jurediçión de la villa de San Savastián, en lo qual dis que sy asy pasase, él resçeibiría grande agrauio e danno e perdería los fletes que avía de ganar la dicha su nao. E nos suplicó e pidió por merçed mandásemos dar nuestra carta por la qual mandásemos a los dichos genoveses e otras personas que se (a)sentasen con él a cuenta e qu’él estava presto de les pagar”.

Aymar saboiarrarekin eta lehen aipatu dugun Luis Cruzat merkataria donostiar-iruindarrarekin auzitan zegoen, nao bretoi baten atxikitzea zela²⁸⁵.

f) Portugal

Portugal eta Gipuzkoaren arteko Erdi Aroko merkataritza harremanak oso gutxi ikertuak izan dira. Azken lan batzuek Deba bailarak erreinu horrekin zuen lotura azpimarratu dute, XVI. mende hasierarako guztiz finkatua dagoena. Probintziako ekialdeko hiribilduek izan zuten harremana, berriz, ahulagoa dirudi, gerora gertatuko den ez bezala²⁸⁶. Portugal, Deba bailarako merkatarien norako nabarmena izan zen, eta harreman honen inguruan datu ugari ditugu. Dena den, ikerkuntza batzuek Donostiak erresuma lusitaniarrarekin zuen merkataritza loturaren adibide esanguratsu batzuk azaleratu dituzte. Besteak beste, 1470ean errege portugaldarrak mesede edo pribilegio bat eman zien donostiarrei; honen bidez, Lisboan beraien ontziak ainguratzeagatik ordaintzen zuten zergatik salbuesten zituen²⁸⁷. Aurreko mendeetan ere nolabaiteko erlazioa ikus daiteke. 1297. urtean, Lisboako merkatariek Kantauri itsasertzeko hainbat hiribildurekin bake-tratatua sinatu zuten, tartean Donostia eta Hondarribirekin²⁸⁸. Kasu honetan, baina, portugaldarren eta kantauriarren harreman zuzena ikusi baino, Mediterraneo eta Europa Iparraldea konektatzen zituen itsas bidesareetan jazotako pirata jarduerak sortutako tirabiretan pentsatu behar dugu, akordioan kantauriarrek lisboarrei kalte-ordaindu behar baitzituzten eta beraiei atxiki edo atzemandako salgai zein ontziak itzuli. Ez gaude jarduera ekonomiko zuzena islatzen duen datu baten aurrean, itsas-trafikoaren itzalean sortzen ziren beste jarduera batzuen aurrean baizik.

Gure badiarako oso datu gutxi ditugu, nahiz eta 1531n bertako ontziak porturatzen zirela jakin²⁸⁹. Sanpedrotarren 1528 lekukotzek ez dute portugaldarren inguruan datu askorik ematen; aitzitik, behin bakarrik aipatzen da hauen presentzia eta oso era zeharkakoan. Badian zehar finkatu ziren portugal-

285. PUA, 1626-3, 123 au.-124 at. fol. Bestalde, abizen toponimikoak kontutan hartuz, 1531ko batzarrean ageri den “Antonio de Sanfilleo” delakoaren abizena, baliteke Italiako hegoaldean, kostaldetik oso hurbil dagoen San Feli izeneko herriari aipamena egitea.

286. Ald. IRIJOA CORTÉS, I.: “Fuentes inéditas...”, op. cit., eta bereziki, MEDRANO FERNÁNDEZ, V.: *Un mercado entre fronteras. Las relaciones comerciales entre Castilla y Portugal al final de la Edad Media*. Valladolid: Universidad de Valladolid, 2010, 317 orr. eta hh.

287. MEDRANO FERNÁNDEZ, V., aip. lan., 324 orr.

288. Eta baita Santander, Ladero, Castro Urdiales eta A Coruña-koak, besteak beste. SOLÓRZANO TELECHEA, J. A.: “Santander y la construcción de Europa...”, aip. lan., 47 orr.

289. GAO-AGG, CO CRI 2,2.

dar kutsuko abizenik nabarienak Eborra eta Texo izan daitezke. Lehenengoak Portugal barnealdeko hiriari erreferentzia egingo lioke. Bigarrenak, aldiz, Tajo ibaiari. Gure artean hainbat Juan Eborakoa ditugu, guztiak XVI. mende hasieratik aurrerakoak²⁹⁰.

Egia bada edozein abizen zuzenean bere jatorri toponimikoarekiko zuzeneko lotura ezartzea arrisksua deritzogula, Britainia, Ingalaterra edo Asturiasetik etorritako jendea badugu, ez dugu zergatik pentsatu behar Portugaletik etorri ez zirenik. 1514an, Donibaneko kopero Juanikot Amadingoari Hondarribiko alkateen mandatu baten berri ematen zitzaionean, lekukoen artean “Pedro de Portugal” izena zuen Donibaneko biztanlea zegoen²⁹¹. Azkenik, 1523ko martxoan Francisco de Camina agertzen zaigu donibandarren artean. Ziurrenik, abizenak Portugalen baina Galiziarekin muga egiten duen eta kostan dagoen “Caminha” herriarekin zerikusia izango luke²⁹².

g) Kantabria, Asturias eta Galizia

Azkenik, etorkinen kasurik argienari egin behar diogu lekua. Aurreko gehienak XV. mendearen amaieran eta XVI. mende hasierako datuen bidez ezagutu ahal izan ditugu. Kantauriar isurialdekoak ordea, hainbat hamarkada lehenago azalduko dira, San Pedroko elizaren sorreran parte hartu zuten biztanleen adibideak ondo islatzen duen bezala. Hala, Donostiak San Pedron bultzatutako populatzearen zati handi bat bertatik zetozen pertsonekin egin zela argi dago. Kantabrietik Ampuero, Colindres, Cotillos²⁹³, Escalante Oreña, Quejo edo Santander ditugu; Asturiasetik La Canal, La Grande, Llanes, Colongas²⁹⁴, Llastres, Ribasella eta Villaviciosa; Galiziatik Callao, Noia eta Ribadeo. Hauez gain, Burgos aldeko Gayangos eta Baro abizenak aipatu behar dira.

290. Juan Eborakoaren alargun Katalina Landriggerkoa, 1521 urte inguruan jaio zen (GAO-AGG, CO ECI 619); ziurrenik, Juan Eborakoa hau, 1531n azaltzen zaigunaren semea izango litzateke (GAO-AGG, CO CRI 2,2). Pasai Donibaneko Juan Eborakoa, “zaharra”, izen bereko baten eta honen lehenengo emaztearen seme zen. Azken honek bere bigarren emazte Maria Migel Asteasukoarekin 6 seme-alaba izan zituen: Pedro, Martin, Maria I, Maria II, Marota eta Katalina (GPAH-AHPG, 3/345, 36 au-38 at. fol.; 1562. urtea). 1563an, berriz, Pedro Eborakoa bere alaba Katalina San Pedroko elizan bataiatu zuen.

291. HUA, C-5-I-23-2.

292. Ikus II eranskina eta ARChV. Pleitos Civiles. Zarandona y Balbosa, Fenecidos, 1510-2.

293. Kantabrian Cotillos eta Cotillo herriak daude, biak barrualdean kokatuak.

294. Hau behin-behingo hipotesi bezala mantentzen dugu, Biarno barrualdean Collongues izeneko herria baitago eta agian, honekin lotu beharko genuke.

Horietako gehienak, XV. mendearen bigarren erdialdetik ditugu dokumentatuak. Garaiko dokumentazioaren arabera, beraien jaiotza datak 1440-1460 artean koka ditzakegu eta, beraz, Pasaian jaiotako lehenengo edo bigarren belaunaldia osatzen dute. **Bigarren eranskin** bezala txertatu dugun taulak oso ongi islatzen du prozesu hori, baita 1420tik ere. Cotillostarrak, adibidez, bertan kokatzen diren aitzindarien artean ditugu: Pedro Cotilloskoak Donostiako udalbatzari 1429 urtean lursaila eskatzen zionean, bere izen bereko aita bertan bizi zela aipatzen da. Kantauri kutsuko abizenen arteko ezkontzak ohikoak izango dira: 1468an jaiotako Amadina Cotilloskoak, Domingo Quexokoa izango du senar. San Pedro inguruetan zegoen populazio urriak eta kantauriar esparrutik etorri zirenak hainbat eta hainbat izanik (batzuk, gainera, jatorrizko komunitate berekoak), halako prozesua normala izango da. Dena den, adibide goiztiarrek euskaldunen eta kantauri kutsukoen arteko loturak ere islatzen dituzte. Hor ditugu Juan de La Canal eta Elbira Barrentexekoa senar-emazteak, 1442an San Pedroko lursail batzuen dohaintza lortu zutenak²⁹⁵.

Aipatutako abizenek esanahi toponimiko argia dute. Batzuetan, ordea, hipotesiekin lan egin behar dugu. La Canal, adibidez, gune bezala Asturias barnealdean dugu, Villaviciosatik ez oso urruti. Horregatik, abizen horrek ere bertako jatorria adierazten duela uste dugu. Pedro Villaviciosakoa, adibidez, Pedro de La Canal bezala ezaguna zen²⁹⁶. Antzeko kasua La Grande / La Grandan dugula pentsatzen dugu, 1577ko Villaviciosatarren aitonsemetza frogan esandakoak aintzat hartzen badigutu. Oz abizenari dagokionez, ohar batzuk egin behar ditugu. Hasiera batean Lugoko Foz herriarekin bat zetorrela uste genuen, baina hainbat egilek “Oz” Abizen honek jatorria Kantabrian jartzen dutenez, hara begiratu beharko genukeela uste dugu; izan ere, abizen hori zuten Laredoko auzotarrak ezagutzen ditugu gure artean²⁹⁷. Gainera, etimologikoki forma modernoegia dela iruditzen zaigu; alegia, ikertzen dugun garaian “Foz” jarri beharko luketela eta ez, berriz, “Oz”. Abizan honek XV. mendeko lehen erdialdera eramaten gaitu, Esteban Oz-ekoa 1437an jaiotua baitzen.

Galiziar kutsuko abizenak ugariagoak dira Bostehuneko hasieran, aurreko mendearen amaieran egonaldiak egin zituztela dokumentatua badugu ere²⁹⁸. Pedro de Oliver-ek, San Pedron lau daudela adierazten du 1528ko informazioan: Gonzalo izeneko bi, Jacue eta talaian bizi zen Juan. Gonzalo horietako bat ezkondua dago eta seme-alabak ditu. Beste lekukotza batzuek, aldiz, Pedro izeneko bat ere ematen dute. Donibanen, aldiz, Frantzisko izeneko bat bizi da. XVI. mendeko lehenengo urtetan gehiago izanik ere, honek

295. IRIXOA CORTÉS, I.: “Portu aprobetxamendua...”, aip. lan.

296. ARChV. Pleitos Civiles. Quevedo, Fenecidos, 1349-2, 241 au. eta 255 au. folk.

297. 1522an, adibidez, Pedro de Hoz laredotarra dugu. Ikus IRIJOA CORTÉS, I.: “Documentación relativa...”, aip. lan., 496-499 orr.

298. 1488an, adibidez, Muroseko auzotarren karabela bat San Pedron zegoen 35 bota sardin-zahar eta lehortutako arrainarekin. ARChV. Reales Ejecutorias, 14-33, 3 at.-4 au. folk.

ez du esan nahi gurera lehenago iritsi ez zirenik. Lehenengo galiziar kutsuko biztanleak XV. mende hasieran koka ditzakegu, hala nola, Noia abizenekoak. Magdalena eta Katalina Noiakoa orduan jaio ziren: lehena 1434an eta bigarrena, aldiz, 1448an²⁹⁹.

Callao da geografia galiziarrekin lotutako abizen zalantzarri bat. Gure ustetan Ribeirako concelloaren barne dagoen San Pedro de Palmeirako parrokiako lekua da, kostaldean kokatua eta A Coruñaeko Pobra do Caramiñalen ondoan dagoena³⁰⁰. Marota Callaokoa 1440 inguruan jaiotakoa da eta baliteke 1474an Martin Santxez Arriagakoaren emazte den Maria Callaokoa izatea³⁰¹. Domingo Callaokoari dagokionez, jaiotza data Marotak berarentzako aipatzen duenetik gertu zegoela uste dugu.

Ribadeori aipamen berezia egin behar diogu. Badirudi XV. mendeko bigarren erdialdean, halako abizena zutenak merkatari donostiarrek zirela: 1461ean Martin patroiz eta merkatari jardunetan dugu; Esteban, berriz, Ingalaterrarekin harremanak ditu 1470. urtean. Elisa Ferreriak biak emigrazio prozesuaren adibide gisa jartzen zituen bere tesian eta guretzako ere, adibide argia dira³⁰². Baina zalantzatan gaude Ribadeo hauek sanpedrotarrak ez ote ziren; ez dugu ahaztu behar Pasaian bizitzea eta Donostiako auzotar bezala agertzea ez dagoela kontrajarria. Dena den, aitortu behar dugu badian ikusten dugun Ribadeo abizena duen lehenengo pertsona, Domingo Perez izenekoa, 1497ko auzian agertzen dela eta bere adinaren inguruko daturik ez dugula³⁰³.

Beste batzuetan, abizenek Kantauriar kutsu nabarmena dute baina topinimia aldetik ezin ditugu besteak bezain argi kokatu. Horien artean, Donostian garrantzia nabarmena eskuratuko duten Santiagotarrak ditugu. Badakigu Pasaiara XV. mende hasieran iritsitako familia dela; gainera, Donostiar oligarkiako hainbat partaiderekin bateratzearen eredu bakarrenetariko bat osatuko dute. Hau da, Pasaiatik hiribilduetarako bidea era nahiko arrakastatsuan egingo dute³⁰⁴.

299. Biak oraindik bizirik daude 1517an. Magdalena, Juanun Erausokoaren alarguna zen urte horretan. Ikus ARChV. Pleitos Civiles. Quevedo, Fenecidos, 1349-2.

300. Ald. ARChV. Sala de Hijosdalgo, 713-11 (1584 urtea) eta ibidem, 1078-59. Non "Callao" izeneko herria Asturiasko Caso kontzejuko zati den (1716 urtea). Azken hau oso barrura dago eta horregatik, uste dugu gure artean azaltzen den "Callao" abizena Galiziarri hobeto egokitzen zaioa.

301. Ikus AGS. RGS. 1498-II-27, fol. 132.

302. FERREIRA PRIEGUE, E. M.^a, aip. lan., 510 orr. Egile honek Galizian auzotartutako edo bertaratutako euskaldunak ere aipatzen ditu. Ibidem, 509-510 orr.

303. On Anton Ribadeokoa donostiarra, adibidez, 1529ko Ana Hoakoaren testamentuan aipatzen da (GAO-AGG LCI 0).

304. Beraien inguruan, DÍEZ DE SALAZAR, L. M.: "Notas sobre el Patronato, Iglesia y Hospital de San Martín de San Sebastián (siglo XVI)". In: *BEHSS*, 24 (1990), 561-569 orr.; IRIXOA CORTÉS, I.: *Pasaia...*, aip. lan., 25-26 orr.

Ribadeoren kasuan adierazi bezala, hainbatetan Donostiatik gurera etorritakoak zirela pentsa dezakegu. Logika gehiago izan dezake biztanleak hiribilduan kokatzea, bertako abantaila juridikoak, ekonomikoak eta azpiegituren aldetikoak aprobeztatuz. Hala, Pasaiaiko badiak garrantzia eskuratzen joango den heinean, familia edo leinu horietako kide batzuk hara lekualdatuko lirateke. Ohartu behar dugu, gainera, prozesu hau ikertu gabe dagoela. Baina XIV. mende amaieratik etorritakoak Donostiak bultzatutako ekimenaren ondorio badira eta, gainera, itsasoarekin harreman estua dutenak, hasieran Pasaiaiko badien ezarriko direla uste dugu. Horregatik, 1439an Donostiako auzotar bezala on Pedro Escalantekoa elizgizona agertzen zaigunean, ez dugu zertan pentsatu behar Donostian ezarritako Escalante herriko auzotarrak kokatu zirenik. XV. menderako Donibanen abizen bereko kideak ditugu.

Bestalde, garrantzia edo aipamen txikia duten beste hainbat abizen topatu daitezke, Ampuero edo Santa Clara kasu. Lehenengoari dagokionez, Kantabriako jatorri bat adierazten duela argi dago, baina Pasaian ez zen asko hedatu. Topatu ditugun datuen arabera, adibide bakarra dugu eta bere inguruan datu gutxi ditugu. Halaber, aurrekoekin gertatu bezala, XV. mendeko Donostian topatzen dugun abizena da³⁰⁵. Santa Clarari dagokionez, Donibanen finkatuta ikusiko dugu XVI. mendean eta gure ustetan, bere jatorria Kantabrian dago. Behintzat, badakigu XIV. mende amaieran, Santiago eta Santa Clara abizenak, Escalante eta Camargo bezalakoekin batera, Santanderreko merkatari familien artean zeudela³⁰⁶.

Burgostar jatorria duten abizenen nondik norakoa ezin dugu era argi batean azaldu. Errenteriako San Vitores abizenaren kasuan Errioxako artile negozioekin zerikusia duela uste dugu³⁰⁷, baina Pasaian ageri zaizkigunak ez dakigu zein oinarri zuten. Dena den, badakigu Gayangos eta Baro abizenak Kantabria eta Errioxan daudela; ondorioz, Burgosekin zuzeneko harreman bat ikustea baino, baliteke abizen horien lekua Kantabrian kokatu behar izatea. Ez dira, dena den, Gaztelako Koroa osatzen zuten erreinu edo entitateetatik zetozen bakarrak. Gaztelar kutsuko beste batzuk baditugu: García de Mora harakina, 1497an San Pedroko biztanle zena, eta 1489an Pasaiko auzotar moduan agertzen zaigun García de Toledo³⁰⁸.

305. 1486 Martin Ampueroakoa San Nikolas kofradiako kide zen. ARChV. Pleitos Civiles. Moreno, Fenecidos, 1337-4.

306. SOLÓRZANO TELECHEA, J. A.: "Santander y la construcción de Europa...", aip. lan., 54 orr.

307. IRIJOA CORTÉS, I.; eta MARTÍN SÁNCHEZ, D.: *Errenteria a inicios...*, aip. lan.; IDEM: *Errenteria XVI. mende hasieran...*, aip. lan.

308. Badirudi oraindik bizirik dirahuela 1553an, San Pedro eta Donostiaren arteko auzia berriz hasten denean; orduan ere, harakin eta gainera San Pedroko auzotar bezala dago. ARChV. Pleitos Civiles. Fernando Alonso, Fenecidos, 1330-1, XL au. fol. Berarekin batera,

Oinarrian San Pedro inguruak kantauriar kostaldeko biztanle kopuru nabarmen batekin populazu baziren, eta gainera Donostiaren ekimenez, honek kantauri itsasertzean zeuden hiribildu eta populazio guneen arteko harreman estua adieraziko luke, gorago aipatu bezala. Zonalde horretako populatzea aurreko mendeetan emandako prozesuen itzalean bultzatutakoa du. Asturiaserako ditugun hainbat datuk Kantauri kostaldeko herri zein biztanle ezberdinen erlazioa agerian uzten dute. Gaztelako Marinaren Ermandadeak hori uztartzeaz gain, XIV. mendean itsasertze guztiko hiribilduak hainbat jarduera partekatzen zituztela ikusteko aukera izango du. XIV. mendeko lehen erdialdean kantabriarrak Asturiasen daude eta asturiarrak, berriz, Bizkaian ageri dira³⁰⁹. 1330an, Ingalaterrako Eduardo III.ak piratakeritza salaketak jarri zituen honako populazio guneen aurka: Hondarribia, Donostia, Getaria, Mutriku, Laredo, Santander, Ribadeo, Viveiro, A Coruña, Noia eta Pontevedra³¹⁰. Bestalde, XV. mende amaieran eta XVI. mende hasieran badiako biztanleek ezagutzen zituzten hainbat portuen izenak ditugu. 1497an San Pedrok Donostiarekin izandako auzian, lekuko ezberdinek Frantzia eta Ingalaterrako portuez gain, Arroxela, Bartzelona, Ferrol, A Coruña, Cádiz eta Cartajenakoak aipatzen zituzten³¹¹; 1517an, aldiz, Laredo, Santander, Ribadeo, Viveiro, Muxía, San Lúcar, Puerto de Santa María eta Málaga aipatzen ziren³¹².

Zalantzarik ez dugu hauen oinarria arrantza jarduerak izango zirela, sardiñarena edo balearena³¹³. Llanes, Ribadesella, Ribadeo eta Quejo bezalako portuak bale ehizarekin lotutako plataforma garrantzitsuak izan ziren eta horrez gain, XIV. mendean dagoeneko, euskaldunek Galiziatik gatza ekartzen zuten³¹⁴. Halaber, 1528an galiziar bat atalaian bititza nahiko esan-

...

hainbat hamarkada lehenago ikus ditzakegun Juan Oreñakoa, Juan Balleskoa, Alonso Texokoa, Martin Perez Leaburukoa eta Esteban Alzatekoa ditugu.

309. RUIZ DE LA PEÑA SOLAR, J. I., aip. lan., 168 orr., hemengo 28-29 oharra, eta 228 orr.

310. TENA, M.^a S., aip. lan., 549 orr. eta 57 oharra.

311. ARChV. Pleitos Civiles. Fernando Alonso, Fenecidos, 1330-1, XCIX au., CXXV au., CXLV au. edota CLV at. Cartagena eta Ferrolgoak Pasaiaren parean jartzen zituzten lekuko batzuek, Fernando Gabiriakoa donibandarrak bezala: “que a su juyso e paresçer non ay en toda Espanna nin en otras partes donde este testigo avya andado otro tal puerto como es el del Pasaje sy non es el puerto de Cartajena o de Ferrol, que es cabo La Curunna...” (ibidem, CXLV au.).

312. IRIJOA CORTÉS, I; eta MARTÍN SÁNCHEZ, D.: *Errenteria XVI. mende hasieran...*, aip. lan.

313. Arrantza jarduera populazio horien garapenerako RUIZ DE LA PEÑA, J. I., aip. lan.

314. AZPIAZU ELORZA, J. A.: “Los balleneros vascos en Cantabria, Asturias y Galicia”. In: *Itas Memoria* 3 (2000), 77-97 orr. Felipe Valdes-ek Lugoko Bares, San Cibrao eta Burela herriak aipatzen ditu; XVI. mendean, berriz, A Coruñaeko Camelle, Malpica eta Caión. VALDÉS HANSEN, F., aip. lan.

guratsua da, nahiz eta hauek XVI. mendeko bigarren erdira arte ez sartu negozio horretan³¹⁵.

4. Zehaztapen batzuk

Aurreko datuek argi erakusten dute Pasaiako badia hainbat lekutako jendearen geraleku eta bizileku izan zela. Horren lekuko argiena San Pedro inguruetako populatze prozesua dugu, urte gutxiren buruan arrakasta nabarmena izan zuena. Komunitate hori osatzen joan zen jendeak, hainbat lekutatik etorritakoa, uztartze prozesu nabaria erakusten du eta horren lekuko, geografia esparru ezberdinak islatzen dituzten abizenen arteko harremanak eta ezkontzak dira. Oinarrizko jarduerak itsasoari eta bereziki arrantzari lotutakoak ziren, elikagai batzuk ondoan zituzten lursailak ustiatuz lortu bazituzten ere. Hala, XV. mende amaieran San Pedro arrantzale komunitate bat bezala azaltzen zaigu; bertako biztanleek hala aurkezten digute³¹⁶. Baina pixkanaka, itsas-garrarioak leku berezia izango du eta hau finkatzen doan heinean, badiako biztanleak European zehar barreiatuak ikusiko ditugu. Hau guztia ez zen gertakari isolatua izan; aitzitik, badiako komunitate guztiak izan ziren dinamika horretan sartu zirenak. Kontinentea zeharkatzen zuen dinamika batean, alegia.

Testuinguru honek merkataritza mugimendu handia sortuko du, XVI. mende hasierako Oarsoaldean hainbat kanpotar ikusiko ditugularik. Orain, ordea, ez dira San Pedron ikusiko ditugun atzerritar berdinak izango; ez dira leku beretik etorriko edo, hobe esanda, hainbat hamarkada lehenago ikusten ditugun Kantabria edo Asturiasko guneez gain, beste batzuetatik etorriko dira.

Bostehunaren hasieran ikusten dugun mugimendu hau ez du XV. mende hasierakoarekin zerikusirik. Hasteko, kanpotarren finkatzea babestuko duen Donostiaren ekimenik ez dagoelako. Datozenak itsasoari lotutako jardueretan oinarritutako agerpena izango dute, eta hauek maila internazionala dutenez, Europako herrialdeetatik datozenak bat baino gehiago izango dira.

Oreretaren kasuak beraien inguruan hitz egitea ahalbidetzen digu, eta uste baino datu gehiagorekin gainera. Azken hiribildu honetan bizitako prozesuek argi islatzen dute hainbat atzerritarren gizarteratzea: bertako eta eskualdeko leinuetako ordezkariekin ezkondu zirelako, bizitza ekonomiko eta politikoan jardun zirelako, eta dokumentazio gehiago dugulako, besteak beste. Azken

315. Ald. VALDÉS HANSEN, F., aip. lan., 100-102 orr.

316. “ser el pueblo derramado e ser avsentes de sus propias casas e aver espacio de vna legoa (...) e por ser el dia de labor e las gentes del logar del Pasaje ser trabajadores e andar los vnos a pescar e los otros ha afanar a ganar sus propias e myserables mantenencias” (ARChV. Pleitos Civiles. Fernando Alonso, Fenecidos, 1330-1, XXVI at. fol.).

hau da Pasaiarako dugun hutsunerik nabarmenena, baina 1528ko inkesta oso tresna baliogarria da. Honen bidez, bertan kokatu ziren kanpotarren gizarteratzea agerikoa da. Errenterian bezala, bertakoezin ezkontza eta negozioak bideratu zituzten: Luca italiarrak Pasaian ezkonduko bi alaba zituen; Juan Corcamgoa irlandarra ezkondu zegoen eta Gonzalo galziarrak, ordurako ondorengotza zuen. Hurrengo urteetan ez dirudi egoera honek aldaketa handirik izan zuenik, Probintzia mailan eman ziren arauak edozein izanda ere.

Itsasoak biztanle horiengan zuen garrantziak agerian uzten du populazio mugimendu horien sakontasuna. Martin Santxez Villaviciosak 1536 urtean Irlandako arrantzura joateko egindako bidaiaren inguruko hitzek oso informazio azpimarragarria eskaintzen digute. Egile batzuen ustetan Irlandako eta Galiziako arrantziek itsasbaterreko arrantzari Pasaiako eskulan ugari kendu zieten eta horri aurre egiteko nolabaiteko taktika erabili beharrean aurkitu ziren. Horretarako, zer hobea, hainbat geografia esparruekin zeuden loturak aprobetxatuz beste leku batzuetako marinelak kontratatzea baino. Martinen kasuak oso ongi islatzen du prozesu hori: berarekin beste 55-56 gizon zeramatzala adierazteaz gain, beraien jatorria aipatzen zuen. Horietatik 14-15 Pasai Donibanekoak ziren, 8 lekeitiar, Eako 20 eta Frantziako (Iparraldekoak, ziurrenik) 5 gizon zituen. Alegia, bizkaitarrek eskifaiaren %50 inguru osatzen zuten. Horrez gain, lehen ikusi ditugun Sabat Labordakoaren, Bernart Amugruekoaren edo Felipe Veneziakoaren lekukotzak adibide bikaina dira.

Datu hauek eskifaien aniztasuna adierazten dute; ez bakarrik erreinu berean zeuden zonalde ezberdinetako biztanleak zituztenak, nazioarteko kideez osatutakoak ere bai³¹⁷. Itsasoarekin lotutako jarduera garrantzitsua zuten herrietan, inguruetako jendea ez ezik beste probintzia edo herrialdetako pertsona ugari erabiltzen zituztela agerian uzten dute, koroen gaindiko mugez haratagokoa gainera. Martin Santxezen kasuan marinelen erdiak bizkaitarrak izatea ezohikoa dirudi, baina probintzia ezberdinetako herrien arteko loturen beste adibide bat islatzen duela uste dugu.

Mugikortasun honen oinarria portuen eta kabotaia-nabigazioaren garrantzian eta dinamismoan ikusi behar dugu; egonaldiaren epea edozein izanda ere, leku askotako ontzi eta jendea hamaika lekutatik igarotzen baitzen. Badia eta bere komunitateak ez dira salbuespena izango eta aurreko lerroen bidez argi geratu da Erdi Arotik aurrera Pasaiak eskuratu zuen geroz eta garrantzia ekonomiko handiagoak hamaika lekutako jendea gure artean ikusteko aukera eskaini zuela. Garapen honek, gainera, eskulan gehiagoren beharra areagotuko luke eta bertako jendea ez ezik, urrunago dauden populazio guneetakoak erakarriko ditu; badiaren itsas-harremanen islaren adibide izango direnak³¹⁸.

317. Ald. CHILDS, W. R.: *Anglo-Castilian trade...*, aip. lan., 164 orr. eta hh.

318. IRIXOA CORTÉS, I.: *Pasaia...*, aip. lan., 63 orr.

XV. mende hasierarekin alderatuta, XVI. mendean iristen ziren gehien-egonaldia laburra izango zen. Gurera ohiko garraio lanak egitera etorriko ziren, produktu batzuk lurreratu eta beste batzuk kargatzeko. Horren arabera egonaldiak izango ziren, denbora txikikoak: atsedean hartzeko, ontziak konpontzeko edota ekaitzen aurrean babeslekua bilatzeko helburuarekin iritsiko ziren. Horrekin zera adierazi nahi dugu: XV. mende erdialdetik bizi izan zen merkataritza oparotasunaren aurrean, atzerritarrek gurean izan zirela, bai, baina marinel eta itsasgizon gehienek gutxi emango zutelagure artean. Batzuetan baina, bizitzen geratuko dira. Gainera, hainbat kasutan halako erabakia hartuko dutenak beste maila bat islatuko dute; merkatariaik edo hauen faktoreak izango dira. Dena den, ohartu behar dugu azken hauek hiribilduetan kokatuko direla, horretarako azpiegitura handiago bat zuten guneak baitziren eta horrez gain, merkatal hartu-emanak edo salerosketak zentralizatzen zituztenak. Batzuetan bokaleko komunitateetan ikusiko ditugu, baina ohikoena Erreterian, Donostian edo Hondarribian finkatzea izango da.

Horregatik, atzerritarrek utzitako aztarnak aurkitzeko, Erreteriak zuen papera eta bere inguruan sortutako dokumentazioak eskaintzen digun aukera azpimarratu behar dugu. Bere maila politiko-juridikoak (hiribildua izateak, alegia), erakargarrtasun handiagoa izango du: zituen pribilegio eta mesedez gozatzeko aukera ematen zuen, azpiegitura gehiago zituen. Hala, bertan hainbat faktorek egonaldiak egiteaz gain, bizitzen ere izango ditugu, Thomas Barcot/Batcock argiena delarik. Beste leku batean bizitzaren gorabeherak aztertzeak aukera bikaina eman digu atzerritar baten bizipenen eta finkatzearen inguruan hitz egiteko.

Gainera, hiribildu honek eman diezaguke itsasoarekin edo, behintzat, marinel edo itsasgizon gisa lotuta ez dauden atzerritarren jardueren berri. Egia da gure artean ikusten ditugun gehienak itsas-merkataritzarekin zerikusia dutela; edo, behintzat, itsasoko jarduerekin. Baina badaude beste ogibide batzuk zituztenak³¹⁹. 1535ean, Erretereriako udalbatzak Flandrian zegoen Onofre Isastikoa alkateari zera eskatzen zion: hiribilduko kanaleak irekitzeko beharrezkoa zuten maisu bat han bilatzeko³²⁰. Antza denez, halako lanak egiteko kanpotarrak kontratatzea ez zen ezohiko kontua. 1516an, Bilboko udalbatzak Felipe Picardo izenekoarekin hitzarmena egin zuen, honakoa egiteko asmoz:

319. Itsasoaz gain, 1528 espedienteak harakinei egiten die aipamena. Horietao gehienak frantziarrak edo Iparraldekoak dira. Ez da ez-ohiko gauza, Erretereriako kasuan ondo ikus dezakegunez. Ikus IRIJOA CORTÉS, I.; eta MARTÍN SÁNCHEZ, D.: *Erretereria a inicios...*, aip. lan.

320. *Ibidem* eta IRIJOA CORTÉS, I.; eta MARTÍN SÁNCHEZ, D.: *Erretereria XVI. mende hasieran...*, aip. lan.

“çierta hobra e hedifiçio por donde, con curso de avenida de agua natural, se puedan alinpiar las dichas calles traseras e cannos públicos syn inconbeniençia ninguna, sacando el agua del río e trayéndolo a la dicha villa para que ande por los cannos públicos y calles trasseras”³²¹.

Gurean finkatu ziren atzerritarrak lehendabizikoz nolatan iritsi ziren adieraztea ez da erraza: batzuk eskifaiatan sartuak, beste batzuk aldiz, mendeetako harremanen eta ezagutzaren ondorio dira. Beste hainbatek, agian, zeharkako eran ibili ondoren hemen pixkanaka finkatuko direlaren adibidetzat hartu ditzakegu. Eta badiarekin harreman zuzena ez badu ere, nolabaiteko ideiak Guillen Brun edo William Brown bristoldarraren kasuak eskaintzen dizkigu.

Merkatari hau 1516an auzitan ikus dezakegu Martin Ibaizabalgoa gaztearen aurka, alkabalaren inguruan. Williamek saldu zituen 120 oihalengatik, 14.400 marai ordaindu behar zituen alkabala moduan³²². Honen arabera, Ingalaterrak esportatzen zuen produktu nagusietako baten inguruan negozioak bideratu zituen merkataria dela pentsa dezakegu. Hogeitaz lehenago, baina, bere egoera bestelakoa dirudi.

Antza denez, 1497 urte inguruan etorri zen Donostiara, hiribildu honetako auzotar batzuek Brown eta beste hainbat merkatariren ontziari eraso eta eginiko kalteak kobratu nahian. Kudeaketak egiten urte luzeak eman zituen, bereziki Donostian eta Valladoliden. Epe horretan, badakigu 4-5 urte eman zituela Iñigo Ortiz Salazargoa donostiarrarenean ostatu hartuta:

“...qu’el dicho Guillem Brun (...) bino a esta villa de San Sebastián en prosecución de lo que en la dicha pregunta se contiene, e que en beniendo, fue e se aposentó e tomó por su posada la casa del dicho Yñigo Vrtiz, a donde después acá el dicho Guillem Brum a posado saluo en los tienpos que en prosecución de la dicha causa a sallido a negoçiar a Balladolid e a otras partes. E saluo algunos días que benido de Balladolid, el dicho Guillem Brum se aposentó en la dicha villa en la posada de la Catalina de la Pandilla. Después, por rogaria d’este testigo e de otros, el dicho Yñigo Vrtiz acogió a su casa de cabo al dicho Guillem Brum, de manera que al dicho Guillem Brum después que bino syenpre ha visto posar en las casas del dicho Ynigo Vrtiz, saluo las vezes que dicho tiene. E que este testigo, posando el dicho Guillem Brum en las dichas casas, estando comiendo algunas vezes, llegó en las dichas casas del dicho Yñigo Vrtiz e vio que en su mesa en vno con otros mercaderos e entre ellos estaua asentado e comiendo con los otros honrradamente, segund costunbre de la dicha tierra, con mucho basteçimiento de pan, de bino, de carne (...) que crehe que rebatidos los tienpos qu’el dicho Guillem Brum a estado fuera, el dicho Guillem Brum

321. ENRÍQUEZ FERNÁNDEZ, J.; HIDALGO DE CISNEROS AMESTOY, C.; eta MARTÍNEZ LAHIDALGA, A.: *Colección documental del Archivo Histórico de Bilbao (1514-1520)*. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 2001, 401. dok., 1517-1519 orr.

322. ARChV. Reales Ejecutorias, 308-24.

abría posado en la dicha casa del dicho Ynigo Vrtiz quatro años, poco más o menos”³²³.

Era berean, Domingo Hoakoak zera zihoen:

“qu’el dicho Guillem Brum vino a la dicha villa de San Sebastián deziendo que benía sobre çierto rouo que a él e a çiertos sus consortes le auían fecho çiertos veçinos e naturales d’esta Prouinçia. E que saue que al dicho tiempo, el dicho Guillem Brum fue a posar a la casa del dicho Yñigo Vrtiz a donde estubo e ha estado (...) çinco años e medio, poco más o menos, (...) por diversos tienpos; e los quales años e tienpos el dicho Ynigo Vrtiz le dio de comer y beber teniéndole en su mesa, dándole la mesa e tabla a la costunbre de mercaderos honrrada e basteçidamente de pan e vino e carne e de las otras prouisiones, e la casa e cama e seruiçio conplidamente como a mercadero se suelen dar (...); que luego que bino el dicho Guillem Brum a la dicha villa de San Sabastián, este testigo vio qu’el dicho Guillem Brum se aposentó e estaua aposentado en casa del dicho Ynigo Vrtiz e saue e vio qu’el dicho Guillem Brum después acá, por espacio de los dichos çinco años e medio poco más o menos tiempo, ha estado en la dicha casa en los tienpos que solía ser en esta Prouinaçia e quando no yba a Balladolid (...) dentro el qual dicho tienpo (...) vio qu’el dicho Yñigo Vrtiz le daba de comer e beber teniéndole en su mesa e dando gela a la costunbre de mercaderos conplida e basteçidamente pan e vino e carne e pescado e de otro nesçesario e casa e cama e seruiçio como a mercadero se suele dar...”³²⁴.

Williamek zioenez, ez zekien gaztelaniarik, ezta euskararik ere. Horrez gain, Iñigoren ostatuan 6 urtez egoteak idurituko luke Donostian hainbat ingeles egonik ere, ez luketela azpiegitura finkorik; komunitate berdineko kideen arteko loturak uztartzea eta mantentzea zaila litzaketeela, guztiak Ortiz Salazargoaren etxean ez bazeuden, behintzat. Brownek, halaber, ez du Iñigorekin hitz gogorak izateko aukera galtzen, berarekin izan duen jokabide-guztiz zuzena ez zela salatuz³²⁵. Harritzekoa da hau guztia, Ingalaterra eta Gipuzkoaren arteko harremana horren estua izanik. Italiarren kasuan, adibidez, badakigu hainbatek beste baten etxean ostatu hartzen zutela. Eta Hondarribian ere, Thomas Barcoten etxea funtzio horretara bideratuta zegoen. 1521eko abuztuan, John Shipman (Juan Ximan) bristoldarraren faktore “Arriuyt”-ek (Harry White?), Thomasen ostatuan zeuden Londres eta Bristolgo oihalen erregistroa egin zituen³²⁶.

323. Migel Otsoa Olazabalgoaren lekukotza. ARChV. Pleitos Civiles. Zarandona y Wals, Olvidados, 1491, 79 at.- 80 au. folk. Iñigo 1528an judutarren ondorengo bezala jotzen zen pertsonetako bat zen.

324. Ibibem, 73 at. fol.

325. Ald. SOLÓRZANO TELECHEA, J. A.; eta ARIZAGA BOLUMBURU, B., aip. lan., 10-11 orr.

326. GPAH-AHPG, 3/292, 45 au.-at.

Halaber, gaztelaniaz ez dakiela behin eta berriz dio, baina arraroa egiten zaigu frantsesez ez egitea, hainbat donostiarrek jakingo baitzuten. Gainera, gaztelaniaz ez bazekien, hiribilduan, itzulpen lanak egingo zizkion pertsonaren bat topa zezakeela uste dugu³²⁷. Dena den, ingeles batek zeraman ostuan apopilo egon baino, baliteke Iñigoren etxeak funtzio hori betetzea. 1498ko urriaren 30ean, Waterfordeko (Irlanda) auzotar zen Nicolas Sutton Donostian zegoela dakigu, Robert, George eta John Comin irlandarren ahal-dun moduan. Egun horretan ahalorde-ordetzea ematen zuen Iñigo Ortiz Salazargoaren alde; horregatik, uste dugu Iñigok ingelesez (ala frantsesez?) zekiela eta Ingalaterra zein Irlandako merkatari, faktore edo marinelek bere etxean ostatu hartzea³²⁸.

Ondorioz, pentsa dezakegu orduan Brown-ek ez zuela kontaktu askorik gure zonaldearekin, XV. mende amaieran loturak ahulak zirela. Hogei urteren buruan, aldiz, egoera aldatu zela dirudi³²⁹.

Esan bezala, batzuk denbora tarte txikia egiten zuten gurean, edo epe ertainera egon ziren. Beste batzuk, berriz, finkatzeko asmoa agertu zuten eta hainbat urtez biztanle moduan aritu ondoren, auzotartu egin ziren. Pasaiako komunitateetan prozesu hau nolakoa zen ez dakigu; izan ere, beraiek ez zuten halakoetan inolako eskumenik. Hiribilduen gain zeuden populazioak izanik, Donostia edo Hondarribiko udalbatzak ziren hori erabaki behar zutenak. Hortaz, badiako abantailak aprobeatzeko aukera bikain bat Erreterian auzotartzea izan zitekeen; zuzenean Pasaiako komunitateetatik harako bidea egitea. Halaber, auzotasun ezberdinak izateko aukera zegoen; ez zegoen kontrajarria edozein pertsona bi hiribildutako auzo izatea. Thomas Barcot-ek honen inguruan adibide bikaina eskaini zezakeen, Hondarribiko eta Erreteriariko auzotar izan baitzen. Zoritxarrez, dokumentazioak ez du aldeberekotasun hau islatzen.

Auzotasunak garaiko gizarte politikoa kontrolatzen zuten familietan errezeloa handitu zezakeen, bereziki beraiekin inolako odol-loturarik ez zutenean. Dena den, udalbatzak atzerritarren auzotartzea erabakitzen zuenez, azken hitza familia garrantzitsu horien esku geratuko zen. Donibanen edo San Pedron atzerritar batek finkatzeko asmoa agertzeak ez zien Hondarribia edo Donostiari kalte handirik ekartzen; izan ere, han bizi zirenek debekatua zuten hiribilduko udal gobernuan parte hartzea.

327. Bristolen badakigu XVI. mende erdialdean gaztelaniazko itzultzaileak zeudela. Ikus VANES, J. (arg.), aip. lan., 116 orr.

328. Suttoni emandako ahalorderako eta honek egindako ordetzerako ikus, ARChV. Pleitos Civiles. Zarandona y Wals, Olvidados, 1491, 8 au.-9 at. folk.

329. Egile batzuek Donostiako auzotartzat dute. Ald. SOLÓRZANO TELECHEA, J. A.; eta ARÍZAGA BOLUMBURU, B., aip. lan, 3 orr.

Horregatik, auzotasuna lortzeaz gain, gizarteratzearen pauso nagusi bat bertakoekin ezkontzak adostea zen. 1528ko inkestak horren inguruan datu ugari ematen ditu eta hamarkada hauetan ditugun hainbat adibidek, bai gaztelarren kasuan eta baita atzerritarren kasuan ere, hori erakusten digute. San Pedro eta Donibanen aurki ditzakegun adibideez gain, Erreterriako Frechilla, San Vitores, Barcot, Corcam eta beste hainbatek agerian uzten dute kanpotar horiek zer nolako jarrera izan zuten³³⁰. Gurean egonaldiak egin zituztenen portzentaia txikia osatzen badute ere, argi dago batzuentzat badia erakargarria izan zela.

Gizarteratze hau bereziki adierazgarria da bokaleko komunitateetan. Bi herrietako gizarteek irekiera nabarmena islatzen dute, eranskinak adierazten duen bezala; ezin bestela izan, ehun urte lehenagoko aitzindariekin. Garai honetan finkatzen ari ziren komunitateak izaki, beraietako askok arbaso atzerritarrak zituzten eta, halaber, kanpotarrak beraiekin batera aritzeak, aberastasun iturri ziren pertsonak beraien interesekin bat egin eta beraien alde agertuko zirela adieraziko luke.

Honek guztiak tentsiorik gabeko gizarte baten aurrean gaudelaren aurreiritzia eman diezaguke. Egia esan, datu gutxi ditugu inguruko biztanleek atzerritarren aurka izan zuten jarreraren aurrean, ezta Erreterrian ere. Horrek ez du esan nahi tentsiorik egongo ez zenik, baina hauek beste esparrutan emango direla uste dugu. Hainbatetan aipatu dugu; ekonomia loraldi baten aurrean gaude eta atzerritar askok jarduera horietan paper garrantzitsua dute. Ildo honetatik, ez genuke ahaztu behar Europako hainbat lekutatik inportatutako arte-lanek XV. mende amaieratik gurean izan zuten garrantzia: Donibaneko Santa Anaren irudia, Erreterriako Erretaula flandriarra eta Notthinghameko alabastroak, Bonantzako Bristolgo Kristoa, eta abar. 1548an, adibidez, Domingo Arizmendikoak Ingalaterratik Pietatearen eta Santa Anaren irudiak ekarri zituela badakigu, Erreterriako elizan jartzeko asmoarekin³³¹.

Esan bezala, Donostia eta Hondarribiak San Pedron eta Donibanen kokatu zitezkeen atzerritarrekiko izan zezaketen jarrera ere, ez zen komunitate horiekin aurretik mantendu zutena aldatuko. Kanpotarrak han kokatzea ez zuen arriskurik aurkezten hiribilduko eliteentzako. Odol-garbitasunari lotutako arauak udal gobernuan parte hartzearen murrizketaren ildotik

330. Ez dugu ahaztu behar San Vitorestarrak ere Oiartzunera hedatu zirela. Aipatu diren guztiatarako, IRIJOA CORTÉS, I.; eta MARTÍN SÁNCHEZ, D.: *Erreterria a inicios...*, aip. lan.

331. EUA, A-1-8, 153 at. folioa (1548ko martxoaren 28-a). Halako aipamenetarako, ikus GOIENETXE PATRON, R., aip. lan., eta, bereziki, BARRIO OLANO, M. eta BERRASAIN SALVERRIDI, I. (koord.): *El retablo de la Coronación de la Virgen. Erreterria. / Ama Birjinaren Koroatzea erreterria*. Erreterria (prentsan).

ulertzen ba dira, sanpedrotar zein donibandarrek ez zuten eskubiderik; nahiz kapare, nahiz atzerritar izan.

Datu ezak finkatu ziren kanpotarrekiko egoera nahiko lasaia izan zela adieraz diezaguke; behintzat, esparru horretan eta XVI. mendearen lehenengo heren arte. Baina denbora igaro ahala, eta erlijio gatazkek aurrera egiten zuten heinean, hainbat errezelo sortuko direla agerikoa da. Thomas Barcot-ek berak 1535ean adierazi zituenak bezalakoak. 1539-1540an, berriz, Erreteriak hainbat neurri martxan jarri zituen, arlote eta eskaleez gain, atzerritarren kaparetasunaren inguruan. Zer esanik ez, 1523an Pasaia iritsitako liburuaren kargamentua edo urte hartan euskaraz idatzitako idatzi protestanteak iritsi zirela jakinda³³². San Pedron eta Donibanen, berriz, keXuak hamarkada batzuk geroago azalduko dira.



Gauregungo begiekin ikusita, harrigarria gerta dakiguke Pasaia badian izan ziren bi komunitate txiki horiek Behe Ertarotik zer nolako populazio mugimendua ikusi zuten. Gaskoiek hasitako joan-etorriari badiak hamarkadak aurrera zihoazen heinean eskuratutako garrantziak, betiere XV. mende erdialdetik Europa mailan ematen ari zen koiuntura ekonomiko positibo batean, hori guztia erraztu zuen.

Gure helburua datuak aurkeztea izan da. Jakitun gara egin ditugun baieztapenak behin-behinekoak direla eta etorkizunean gai bera leku berean zein beste hiribildu edo populazio guneeetan ikertu dezaketenez baztertu ditzaketela. Edonola ere, gure asmo nagusia bete dugula uste dugu: batzuetan ilun (ilunegi) aurkezten den gizarte baten dinamismoa eta mugikortasuna agerian uztea, hain zuzen ere. Aurreko mendeetako gizarte atzeratu edo itxi baten aurrean gaudelaren aurreiritzia baztertzea.

Horregatik, aurreko lerroetan hainbat datu eta aztarna agerian utzi badira ere, gelditzen diren hutsuneak ugariak dira eta, halaber, hamaika galdera sortzen zaizkigu. Horietako batzuk ulergarritasun eta hizkuntzaren ingurukoak dira, bereziki XV. menderako. Nola ulertu zuten elkar inguru euskaldun peto-petoa zuen biztanlego batek eta hamaika lekutatik etorritakoek?

332. IRIJOA CORTÉS, I.; eta MARTÍN SÁNCHEZ, D.: *Erretereria a inicios...*, aip. lan.; IDEM: *Erretereria XVI. mende hasieran...*, aip. lan.; URKIZU, P.: “Protestantak Euskalerrian XVI-XVII. Mendeetan”. In: *Plazara*, 2 (1985), 22-23 orr. Izan ere, ikerlari batzuek Europa mailan Erdi Aroan eman zen populazioaren ezohiko mugikortasunak Erreforma eta Kontraerreformarekin beherakada nabarmena izan zuela diote. Ikus, ROSSETTI, G.: “‘Accoglienza e rifiuto’ nel Medioevo europeo”. In: ROSSETTI, G. (zuz.), aip. lan., 315-326 orr., bereziki 219 orr.

Elkar ulertze horretan gaztelania, frantsesa ala gaskoiera erabiliko zuten? Euskarak hizkuntza ezberdinen maileguak hartu al zituen? Ala hizkuntza nahastu batean egiten zuten? Zein zen San Pedroko komunitatea populatzen hasi zen lehenengo hamarkadetako hizkuntza-egoera?

Datu ezean ezin dugu baieztapen finkorik egin eta lerro hauetan esandakoak behin-behingo egoera dira. Oinarrian, gurean hamaika lekutako jendea bertaratu zela adierazten digute. Baina prozesu hau guztia, ikerketa sakon batek hobeto ulertzen lagunduko liguke. Izan ere, aipatu ditugunak gurean izan zirela egia bada, hainbatetan ez dakigu nola edo zein egoeratan iritsi ziren, gurean zenbat denbora egin zuten edota azkenean finkatu ziren ala ez.

Amaitzeko beste aipamen bat egin nahi genuke. Ikertu dugun garaian eman zen populazio mugimendua oso esanguratsua suertatu bazen ere, ondorengo hamarkada eta mendeetan geldialdirik ez du izango. Aro Berrian zehar, bereziki badiak ontzigintzan eta errege-ontziterien atsedean leku moduan izango duen garrantziaren ildotik, hamaika lekutatik datorren jende andana egongo da; Probintziak adostuko dituen erabaki eta xedapenak edozein zirelarik ere. Baina honek beste azterketa bat merezi du³³³.

333. XV, XVI, XVII edo XVIII. mendeetako dinamika ekonomiko ezberdinak kontutan hartuta, interesgarria litzateke zein puntura arte abizenik zaharrenek iraun zuten ikustea, eta honen ildotik, komunitate horien populazio-berregituratzea izan zen ala ez. Ald. NAVARRO ESPINACH, G.; IGUAL LUIS, D.; eta APARICI MARTÍN, J., aip. lan., 191 orr.

Eranskinak

I Eranskina:

Pasai Donibaneko batzarretan parte hartutako biztanle eta auzotarrak (1519-1531)³³⁴

Izena	1519	1523-III	1523-VII	1525	1526	1531
Alkiza, Domingo					X	
Amezqueta, Migel		X				
Anoeta, Juanes					X	X
Aranburu, Juan Martinez						X
Aranburu, Pedro		X				X
Arangibel, Juanes / Juanot			X		X	
Arbide, Juan Perez		X			X	
Arbide, Juan Sanz				X	X	X
Aristizabal, Mikeletxo		X				
Arizabalo, Juan; pilotua			X			
Arizabalo, Martin				X		
Arizabalo, Migel			X		X	X
Arizabalo, Ramus		X	X			
Arriaga, Juan Martinez			X		X ³³⁵	
Arsu, Esteban			X			
Artaleku, Martin; maisua					X	
Asteasu, Anton		X	X	X		
Asteasu, Juan / Juanot		X		X		
Asteasu, Juan Martin					X	
Auztegi, Bartolome					X	X
Auztegi, Juan						X
Auztegi, Juanes			X			
Auztegi, Juanikot					X	

334. Iturriak: IRIXOA CORTÉS, I.: *Documentación...*, aip. lan., 102. dok; 1523-III: ARChV. Pleitos Civiles. Zarandona y Balboa, Fenecidos, 1510-2, 13 au.-15 at., 92 au-93 at. fol. eta 108 au.-109 at.; PUA, 1626-3, 123 au-124 at. fol.; GAO-AGG, CO CRI 2,2 eta HUA, B-1-I-1-4.

335. Juan Arriaga bezala.

Izena	1519	1523-III	1523-VII	1525	1526	1531
Azpeitia, Juan	X					
Baigorri, Juanot					X	
Baiona, Bernal				X	X	
Baiona, Juan				X		
Baiona, Migel		X				
Baztan, Pedro						X
Bedua, Lukas						X
Bera, Pedro					X	
Berastegi, Juanot		X			X	X
Berastegi, Martin Santxez		X				
Bigorroto, Perikote					X	
Bizkaia, Juanikot / Juango	X	X	X			
Bizkaia, Juan	X					
Borgoña, Juan	X					
Brotan, Tomas						X
Camina, Frantzisko		X				
Castro, Pedro				X		
Corcam, Juan				X		
Kornotz, Pedro			X			
Cotillos, Martin						X
Darieta, Juan		X			X	
Ebora, Juan		X	X			
Elizondo, Juanikot		X				
Engomez, Martin; galeoi-maisua					X	
Erbeta, Vicent					X	
Escalante, Anton	X		X		X	
Escalante, Jorge		X				
Eskiotz, Juanes			X			
Eskiotz, Migel		X	X	X		
Eskiotz, Pedro		X		X		
Etxabarria, Juanes		X				
Etxabarria, Munjun		X				

Izena	1519	1523-III	1523-VII	1525	1526	1531
Etxabe, Juan					X	
Etxabe, Mingot		X		X	X	
Etxagarai, Ojer					X	
Etxagarai, Pedro						X
Etxeberri, Juan			X			
Ezpeleta, Domingo					X	
Gabiria, Anton, maisua			X		X	
Gabiria, Juan Nuñez ³³⁶		X	X			X
Gijón, Juan					X	
Hernani, Juan				X		
Herrero, Juanes					X	
Herro, Juanot		X				
Huyas, Jacques					X	
Igeldo, Domingo		X				X
Igeldo, Juanot	X	X				
Iraurgi, Bartolome						X
Iraurgi, Bertelot					X	
Iraurgi, Migel						X
Iraurgi, Santxo					X	
Isturizaga, Migel						X
Iturain, Santxo		X				
Kaikuegi, Juanes					X	
Kareaga, Benedikto					X	
La Lana, Migel		X		X		
Laborda, Juan; gaztea	X					
Landrigger, Juanot		X	X		X	
Landrigger, Martin			X			
Lastur, Anton			X	X	X	
Lastur, Juan		X		X	X	
Lavs (?), Juan		X				

336. 1523an, Juan Martínez bezala.

Izena	1519	1523-III	1523-VII	1525	1526	1531
Leitza, Bernat	X					
Lesaka, Domingo		X				
Lezo, Nicolao		X				X
Lezo, Anton I		X		X		X
Lezo, Anton II		X				X
Lezo, Juan					X	X
Lezo, Juangotxo			X			
Lezo, Juanicot I						X
Lezo, Juanicot II						X
Lezo, Martin	X	X	X	X		X
Lezo, Martin Santxez		X				
Lezo, Mateo		X		X		X
Lezo, Pedro I				X		
Lezo, Pedro II				X	X	
Lezo, Tristan; galeoi-maisua		X	X		X	
Lizarraga, Andres						X
Lizarraga, Anton					X	
Lizarraga, Esteban				X		
Lizarraga, Frantzisko		X				
Lizarraga, Jamot				X	X	
Lizarraga, Rafael			X		X	
Lizarraga, Tristan		X		X		X
Lizartza, Domingo				X	X	
Lizartza, Juanot					X	
Londres	X					
Muru, Santxo	X					
Nabejas, Alonso				X		
Nabejas, Anton		X				
Nabejas, Juan / Juanes				X	X	
Nabejas, Juan Perez		X	X		X	
Nabejas, Martin		X			X	
Nabejas, Migel		X				
Nabejas, Munjun		X		X		

Izena	1519	1523-III	1523-VII	1525	1526	1531
Nicolalde, Sanz						
Colonga (?), Juanikot		X				
Pikardia, Anton	X		X			
Pikardia, Juan; maisua	X					
Pineda, Vicenz					X	X
Portuburu, Esteban					X	
Portuburu, Martin			X			
Pui, Domingo del					X	
San Matet, Juanikot	X					
San Matet, Migel	X					
San Matet, Sanzol				X		
San Vicente, Juan Uar		X				
San Vicente, Pedro			X		X	
San Vicente, Santxo		X				
Sanfilleo, Antonio						X
Santa Clara, Esteban					X	
Santa Clara, Juanes	X	X				
Santa Clara, Munjun				X		
Sastre, Pierres	X					
Segura, Migel					X	
Segura, Pedro						X
Talaya, Pedro de la						X
Torre, Diego de la			X			
Txipres, Juanes					X	
Ubilla, Juan; ontzi-maisua	X	X				
Untzeta, Domingo		X			X	
Usurbil, Juanes			X			
Villaviciosa, Anton					X	
Villaviciosa, Esteban					X	
Villaviciosa, Juanikot	X (?)			X		
Villaviciosa, Juanot	X (?)					X
Villaviciosa, Martin		X	X	X	X	X
Villaviciosa, Martin Santxez		X				

Izena	1519	1523-III	1523-VII	1525	1526	1531
Villaviciosa, Migel		X	X			
Villaviciosa, Mingot		X		X		X
Villaviciosa, Simon						X
Villaviciosa, Vicenz			X		X	
Zabala, Juango						X
Zabalaga, Frantzisko		X			X	
Zabalaga, Juango			X			
Zabalaga, Juanot		X				
Zabalaga, Pedro		X				
Zarautz, Txomin ³³⁷						X
Zarautz, Juan					X	
Zarautz, Miqueo / Migel			X		X	
Zarautz, Pedro		X				
Zarautz, X						X
Zelaia, Juanot						X
Zozaya, Juanes				X		
Zuloaga, Migel			X			
Zulotibar, Juan / Juanikot				X	X	
Amezqueta, Juan				X		

337. Batzuetan Domingo bezala. "Txomin" izenez. Ikus IRIXOA CORTÉS, I.: *Documentación...*, aip. lan., 104. dok.

II Eranskina:

1450 baino lehenago jaiotako hainbat sanpedrotar³³⁸

Alen, Pedro	1427 jaiotako Juan Hernanikoak errenteriarrek aipatzen du 1461ean San Pedrorra joan zela berarekin bizitzera eta 7 urtez han egon zela berarekin
Almortza, Juan	1427 inguruan jaioa, 1498an bizirik. Sortzez ez da pasaitarra, Donostia ingurukoa baizik. 1484 urte baino lehenago baratzea du San Pedron. Marinel-arrantzalea.
Altzate, Esteban	1413 inguruan San Pedro jaioa. 1498an bizirik dago.
Andoain, Domingo	1390 inguru jaioa. 1501ean bizirik dago; 110 urte dituela esaten da.
Artsu, Esteban	1410 inguruan jaioa.
Berrasoeta, Pedro	1450 inguruan jaioa. Gurasoak eta aiton-amonak gipuzkoarrak ditu.
Binaga, Juan	1428-1431 inguruan San Pedron jaioa. Bertako biztanle eta auzotarra. 1501ean bizirik. Ahaideak ditu Donostian eta Errenterian.
Binaga, Sanzol	1429an aipatua.
Callao, Domingo	Ikus La Carboera, Marota
Callao, Marota	1440 inguruan jaioa. 1474tik, gutxienez, Martin Santxez Arriagakoa garraiolariaren emaztea. Txiroa 1498 inguruan.
Camargo	1442an aipatua.
Cotillos, Pedro; gaztea	1429an aipatua.
Cotillos, Pedro; zaharra	1429an aipatua. Pedroren aita. Etxea Sanzol Binagakoaren ondoan du.
Gayangos, Juan	1437 baino lehenago jaioa.
Ieroa, Migel	1443-1451 inguruan San Pedron jaioa. Arrantzalea, 1484 inguru Juan Sarastikoarekin arrantzan zegoen eta harrapatutako arraina lehortu egin zuten, Arroxelara eramateko asmoz
Isasa, Juango	1448 inguruan jaioa.
Isasti, Juan	1421-26 inguruan Errenterian jaioa. 1446tik San Pedron bizi da. Bertako auzotar moduan ageri da 1501ean. Ordurako alarguna da eta San Pedron, ezkonduko bi alaba ditu.

338. Iturriak: ARChV. Pleitos Civiles. Fernando Alonso, Fenecidos, 1330-1, 1331-1, 1332-1; ARChV. Pleitos Civiles. Lapuerta, Fenecidos, 1597-1 eta ARChV. Pleitos Civiles. Quevedo, Fenecidos, 1349-2.

Isasti, Juangi	1438 inguruan jaioa. Jaiotzaz pasaitarra eta hemengo auzotarra. Marinela.
Kornotz, Nikolas	1442an aipatua.
La Canal, Juan	Elbira Barrenetxeakoaren senarra 1442an
La Canal, Juan (II)	1448 inguruan jaioa; “Matalot” ezizenez ezagutua.
La Carboera, Marota	1438-44 inguruan San Pedron jaioa. Domingo Callaokoaren emaztea.
La Fuente, Esteban	1411-1413 inguruan jaioa. Marinela. Itsasoan 1484 urte inguruan. 1496an gaixo zegoela aipatzen du eta 1501 gaixo eta adindua dela dio. Donostian ezkon dutako hiru lehengusu ditu; Erreterian, berriz, bere lehengusu baten seme ezkonduak.
La Lana, Martin	1430 inguruan jaioz, Pasaian. 1497an Hondarribiko auzotar eta Donibaneko biztanlea da.
La Lana, Menjota de Juan	1448 inguruan jaioa. Juanicot La Lanakoaren arreba.
La Lana, N.	1407 inguruan jaioa. Bizirik 1497an. Martinen aita.
Leasael (?) ³³⁹ , Juanot	1447-a baino lehenago Pasaian bizi da. Marinela. Bartzelonaz gain, Gaztela, Frantzia eta Ingalaterrako portuak ezagutzen ditu. Katalina Callaokoaren koinatua eta Estebe Artsukoaren osaba.
Lizarraga, Lope	1438-1441 inguruan jaio. San Pedroko auzotarra. Marinel-arrantzalea. 1501ean bizirik darrai. Donostian eta Erreterian ez du seniderik.
Muru, Juan Perez	1448 inguruan jaioa. Gurasoak eta aiton-amonak gipuzkoarrak.
Noger, Martikot	1442an San Pedron bizi da.
Noia, Katalina	1448 inguruan jaioa.
Noia, Magdalena	1434 inguruan jaioa. Juan Erausoren alarguna 1518an.
Orena, Juan	1431 inguruan jaioa. Ahaideak Donostian eta Erreterian.
Oz, Esteban	1437 inguruan jaioa.
Quexo, Juanot	1452 inguruan jaioa. Jaiotzaz sanpedrotarra eta han bizi izan da hainbat urtetan. 1496tik aurrera, Donostia du bizileku eta hemengo auzotarra da.
San Matet, Pedro	1442an Donostiako auzotar bezala egiten zaio aipamena.

339. Olazabal? La Canal?

Santander, Juan	1425-28 inguruan San Pedron jaioa. 1484-85 inguruan Donostiara doa bizitzera eta bertako erregidore da 1497an. 1470ean Arroxelatik garia ekarri
Santander, Sebastian	1427an baino lehen jaioa. Jaiotzaz pasaitarra da baina 1497an Donostian bizi da. Arrantzalea, baina 1467 inguruan ogibidea utzi zuen, horretarako gai ez zelako.
Segura, Kristobal	1437 inguruan jaioa.
Texo, Alfonso del	1428 inguruan jaioa. 1498an Donibaneko auzotar da. 1498a baino lehenagoko 40 urtetan bertan eta San Pedron bizi izan da.